**LANA: GREBA DEITU DUTE GAURKO METALAREN ALORREAN /4**

**URKULU: IBARREKO UDALEK EZ DUTE 'EKOHIRIRIK' NAHI /5**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko apirilaren 4a • IV. urtea • 105. zenbakia • DOAN BANAT




**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
**Oñatiko txokolate tradizioaren historia idazten**

**JOSE ANGEL ACHÓN**
*"Garai bateko gizarte gatazken eragile izan ziren bandokideak"* /7

**HAUTESKUNDEAK**
**Andoni Gartzia izango da EAJ-EA koalizioko alkategaia Oñatin /5**

**ERDIALDEAN: BERGARAKO INDUSTRIALDEAREN GAINEKO GEHIGARRI BEREZIA**

**ASTEKO GAIA: EUSKARAREN HERRI LASTERKETA /2-3**

# Badator Korrika!

Mauletik abiatuko da Korrikaren 13. aldia gaur, apirilak 4, egubakoitza, eta Iruñera bidea egingo du, hamar egunean, gau eta egun, gelditu barik, Euskal Herri osoa zeharkatuta. Tartean, zelan ez, gure ibarra bisitatuko du AEK-k bi urtean behin euskaldunon hizkuntza eskubideen alde antolatzen duen lasterketak.

Debagoiendarrok gogotsu parte hartu izan dugu Korrikako aurreko aldietan, eta aurten azkenaldiko parte-hartzerik altuenetakoa izan daiteke, aspaldion ez bezala Korrika egunez pasatuko da-eta geuretik. Apirilaren 6an, domekan, Bergara eta Oñati bisitatuko ditu eta hurrengo egunean, astelehenean, Arabatik etorriko da euskararen aldeko lasterketa, Leintz Gatzagatik Arrasatera. Arrasatek Bizkaiari pasatuko dio gero lekukoa.

- *Azken urteotako esku hartze altuenetarikoa izan daiteke ibarrean*
- *Apirilaren 6an eta 7an pasatuko da Korrika Debagoienetik*



**KORRIKA 2003ren HITZORDUAK DEBAGOIENEAN**

| Apirilak 6, DOMEKA | | Apirilak 7, ASTELEHENA | |
|---|---|---|---|
| • Osintxu | 15:43 | • Leintz Gatzaga | 17:02 |
| • Bergara | 16:12 | • Eskoriatza | 17:28 |
| • Elorregi | 15:03 | • Aretxabaleta | 18:07 |
| • Oñati | 17:43 | • Arrasate | 18:36 |

Tximeleta koloretsua, aurtengo Korrikaren irudia.

## ARRASATE

### Milatik gora lagunek bozkatu du gerraren aurkako galdeketan

Ameriketako Estatu Batuek eta Erresuma Batuak Iraken aurka egindako erasoaren gaineko galdeketa egin zuten joan den domekan Arrasaten. Gerraren aurkako hiritarren plataformak antolatu zuen galdeketa, eta hiru mahai jarri zituzten kalean. Guztira 1.263 boto zenbatu zituzten Irakeko gerraren aurka; eta aldeko bat bera ere ez. **/5**

## BERGARA

### On Serafin Esnaola abadea herriko seme izendatu dute

On Serafin Esnaola abadea herriko seme izendatu du Bergarako udalbatzak, aho batez, eta Algodonera inguruan sortuko den bizitoki-auzoan kale edo plaza bati haren izena jarriko diote. On Serafinek herrian egindako lan guztia eskertu nahi izan diote. On Serafin iazko azaroaren 2an hil zen, Donostian. **/6**

## LEINTZ GATZAGA

### Gazte legazpiar bat hil da Gatzagan, auto istripuan

Gazte legazpiar bat hil zen eguenean, goizeko 11:30ean, Leintz Gatzagan, Gure Ametsa jatetxearen eta Arabako mugaren arteko bihurgune batean. Hildakoa, 27 urtekoa, Gasteizera bidean zihoan, Ford Fiesta auto batean. Honek eta Arrasaterantz zetorren kamioi batek aurrez aurre jo zuten.


FordTransitConnectBerria



FordTransitConnectBerria

- Negozio mota bakoitzarendako automobil apropos bat.
- Geldirik egon ez zaitezen, ordezkatzeko automobil komertziala zure esku.
- Eskarmentu handiko profesional talde baten aholkularitzarekin.
- Automobil komertziala berehala jartzen dugu zure esku.
- Karrozatuen eskaintza handia eta momentuan zure esku.
- Finantzaketa zure neurrira.
- Tailerrak ordutegi zabalagoa du.

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea zg
ARRASATE
Tel.: 943 797 564




Astelehenetik zapatura
Goizez, 10:00etatik 13:30era
Arratsaldez, 16:30etik 20:00etara

UDABERRI-UDA

- Kamisetak 14 euro
- Prakak 21 euro
- Alkandorak 24 euro
- Poltsak 24 euro
- Gerrikoak 24 euro

DONNA
Otalora lizentziaduna
ARRASATE



DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Korrika da

## ■ Ibarrean 64 kilometro inguru egingo dituzte ■ Hemengo 90 erakunde izan dira laguntzaile ■ Egun argiz pasatuko da aurten Korrika geuretik




Aspalditik ez zen Korrika egun argiz pasatzen Debagoienetik, eta aurten horrela izango da. Edozelan ere, gauez pasatu denean ere parte-h

LEIRE KORTABARRIA

Etzi, domeka, iritsiko da 13. Korrika Debagoienera: apirilaren 6an, Bergaratik eta Oñatitik pasako da; eta 7an, astelehena, Gatzagatik, Eskoriatzatik, Aretxabaletatik eta Arrasatetik. Ibarreko gainerako herriek, Antzuolak, Elgetak eta Aramaiok, horiek ere bat egingo dute, *Herri bat geroa lantzen* leloa erabilita, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen euskararen aldeko ekimen honekin.

Antolatzailea, urtero moduan, AEK da (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea). Debagoieneko zatiaren ardura Mondragoeko Erdu-AEK euskaltegiak eraman du, eta hango arduradun Nerea Abadek esaten digu parte hartze altua espero dutela Debagoienean, kontuan hartuta, gainera, aurten, aspaldiko partetik, egun argiz bisitatuko gaituela Korrikak.

### KORRIKA-LAGUNTZAILEAK

Korrika Mauletik irtengo da aurten, gaur, egubakoitza, apirilak 4. Handik hasi eta Iruñerako ibilbidea egingo du martxa horrek, hamar egunez, gau eta egun, gelditu barik, lekukoa Euskal Herriko bazter guztietatik eramanda. 2.100 kilometrotik gora korrituko dituzte milaka euskaldunek, beste behin. Korrikaren helburua honakoa da: "Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea, eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea", dio AEK-k.

Bigarren helburu hori lortzeko, metroak saldu egiten ditu AEK-k; aurten, hamar eurotan. Debagoienean, guztira, 64 kilometro egingo dira, 30 domekan eta 34 astelehenean. Herri guztietako udalek, eta hainbat elkartek, enpresak, sindikatuk, alderdik, gremiok, koadrilak… erosi dituzte metrook. Horiek Korrika-laguntzaileak dira, eta ibarrean 90 izan dira aurten.

### "EUSKARARI ERASOAK"

Korrika 13k euskararen ofizialtasuna eta hori babesteko legeak eskatuko ditu. Aurten aldarrikapen hori are indartsuagoa izango da, AEK-k dioenez: "Azkenaldian euskarari eta AEKri egindako erasoek larri kaltetu dute koordinakundea. Horrek guztiak baldintzatu egin du Korrika". Hori dela eta, aurten, inoiz baino gehiago, euskaltzale guztion atxikimendua eskatzen du AEK-k; ibarrekoon kasuan, apirilaren 6an eta 7an gauzatuko da hori.

TOLOSAN, KALITATEZKO HARAGIAREN EGUNA

**Apirilak 5:**

- Ganadu eta bere elikagaien erakusketa goizeko 9:00etatik aurrera.
- **Pertsonai ezagunen arteko HARAGI GISATU LEHIAKETA.**

* Ainhoa Aierbe/Andoni Imaz.
* Joxerra Gartzia/Agustin Gajate.
* Aizpea Goenaga/Millan Telleria.
* Mikel Markez/Josune Bereziartu.
* Angel Mª Peñagarikano /Abraham Olano.
* Periko Alonso/Santi Bakero.
* Kike Amonarriz/Angel Alkain.
* Juan Manuel Erasun/Ainhoa Ostolaza.
* Anabel Arraiza/ Aitor Zabaleta.
* Nerea Pikabea/Joxemi Saizar.
* Ramon Labaien/Jose Mª Gorrotxategi.

- Bertsolariak eta Inaxio Perurenaren herri kirol erakustaldia.
- **Goiz guztian zehar, haragi dastaketa publikoa.**
- Egurdiko 13:00etan sari banaketa.
- LEKUA: Tolosako Triangulo Plazan.

Giokela, Berme Osoko Okela




Badakizu, zer jan, hura izan!

# tor!






GOIENKARIA

artzea bikaina izan da geurean.

## KORRIKA 2003ren IBILBIDEA DEBAGOIENEAN

### Apirilak 6, DOMEKA




### Debabarrena-Debagoiena-Urola

Korrikak Debagoienetik egingo duen ibilbidea sekula baino korapilatsuagoa izango da aurten: bi egunetan pasako da ibarretik. Horrek badu bere azalpena, Erdu-AEK-ko Nerea Abad arduradunak dioskun moduan: "Azken lau aldiotan, Korrika gauez pasa izan da ibarretik, eta hori aldatzea nahi genuen, besteak beste, umeei Korrika ezagutzera emateko, askok Korrika Txikiarekin bakarrik lotzen zutelako. Bestalde, parte hartzea altuagoa da Korrika egunez egiten denean".

Hortaz, domekan, apirilak 6, Bergaratik eta Oñatitik igaroko da Korrika. Iritsi, Debabarrenetik iritsiko da. Osintxu izango da Debagoieneko lehenengo pasagunea; 15:45 doi-doi direnean dago aurreikusita Korrika heltzea. Bergararantz jarraituko du lasterketak; ibarrera sartu eta hiru ordu laurdenera izango da Bergarako plazan. Handik Elorregira iristeko, hiru ordu laurden-edo hartuko ditu. Oñatirantz segituko dute korrikalariek, eta herriko erdi gunean izango da Korrika, seiak laurden gutxi inguruan. Handik, Legazpira pasako da.

### Apirilak 7, ASTELEHENA




### Araba-Debagoiena-Bizkaia

Aurreko egunean, domekan, geuretik irten eta Urola ibarrean utzi genuen Korrikaren ibilbidea. Legazpitik jarraituta, Urola, Goierri, Tolosaldea… zeharkatuko ditu Korrikak. Ibilbide luzea egingo du berriro Debagoienera etorri aurretik: apirilaren 7an, Tolosara iritsiko da, eta handik, hegoaldera jarraituko du, Nafarroara iritsi arte.

Nafarroako iparraldeko hamaikatxo herri bisitatuko ditu Korrikak apirilaren 7an. Gaueko eta goizeko ordu txikietan egingo du ibilbidearen zati hori. Lakuntza, Betelu, Irurtzun, Altsasu… zeharkatuko ditu, besteak beste.

Nafarroak Arabari pasako dio Korrikaren lekukoa. Astelehen eguerdi aldera, Arabako Araia ibarra bisitatuko du lasterketak. Arabako hainbat lekutik igaroko da, Aguraindik, besteak beste.

Azkenik, Landara pasako da, eta handik, berriro ere geurera. Arratsaldeko bostak inguruan hartuko du lekukoa Gatzagak. Gero, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate izango dira pasaguneak. Zortziak hogei gutxi inguruan, Bizkaiak hartuko du lekukoa.

KORRIKA, MUNDU OSOAN ZEHAR

### Ordenagailuaren bidez, Suitzara edo Mexikora ere iritsi da Korrika

*Ziberkorrika* da aurtengo berritasunetako bat. Korrika birtual horri esker, mundu osoko euskaldunek ere euskararen lekukoa eramateko gai dira. "Milaka kilometro egin ditu dagoeneko: Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa, Suitza, Mexiko, Londres, Mallorca… Makina bat lagunek eman dio bultzada ekimen berezi horri", dio AEK-k.

Lekuko birtuala erostea 40 euro kostatzen da, eta *ziberkorrika*-ren mapan eroslearen bizilekua agertuko da. Lekukoa erosteko, jo *www.korrika.org* webgunera.

OMENALDIA

### "Ez dok Amairu" mugimendua sortu zutenen kemena eta gogoa gaurkotuaz

Aldi oro Korrikak pertsona edo mugimendu bat omentzen du. Aurten, *Ez dok Amairu* mugimenduari omenaldia egiten dio: "Izena Azkuek jasotako herri ipuin batetik dator, euskal kulturaren alorrean, hamahiruaren adur gaiztoa hautsi eta pizkundeak aurrera joko zuela adierazteko. Gaur egun, Korrikak gauza bera adierazi nahi dio gizarteari: ez dago hamahirurik", dio AEK-k, eta gaineratzen du: "Eraso, zatiketa juridiko eta neurri murriztaile guztien gainetik, aurrera egin dezakegu, lanari ilusioz ekiten badiogu".

KORRIKA ETA DEBAGOIENA

### Korrikaren hamahiru aldietatik bi Debagoienetik abiatu dira

Debagoienak izan du zeresana Korrikaren historian. Lehenengo Korrika Oñatitik abiatu zen, 1980ko azaroaren 29an, *Zuk ere esan bai euskarari* leloarekin. Bilbon bukatu zen. Hamargarren aldia Arantzazutik irten zen, 1997ko martxoaren 14an, eta bederatzi egunen buruan bukatu zen, Bilbon. *Euskal Herria korrika!* izan zen aukeratutako leloa.

Bestalde, aurtengo Korrikaren abestia, *Gero bat gaurdanik*, Ruper Ordorika oñatiarrak abesten du, Mikel Laboarekin batera.

KORRIKA TXIKIA

### Apirilaren 4an eta 7an izango da Korrika Txikia ibarreko herri gehienetan

Korrika Txikiaren bidez, Korrikaren esanahia gaztetxoenei ezagutzera ematen zaie. Korrika Txikia gaur, egubakoitza, izango da Bergaran (15:15ean) eta Antzuolan (16:00etan); eta astelehenean egingo dute Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako (hiru herriotan, 15:15 inguruan) eta Elgetako (16:30 inguruan) umeek. Ohikoa duten bezala, ikastetxeek adostutako ibilbide labur bat beteko dute umeek. Gero, kasu batzuetan, askaria edo jolasak izango dituzte.

LANA

**LANA Koop.**
**BATZAR NAGUSI ARRUNTERAKO**
**DEIALDIA**

Lana kooperatibaren estatutuetako 43. artikuluan agertzen den legez, Artekaritza kontseiluak batzar nagusi arrunterako deialdia egiten du, **2003ko apirilaren 11n**, 15:30ean lehen deialdian eta 16:00etan bigarren deialdian, Oñatiko kultura etxeko batzarren aretoan (Santa Marina plaza z/g ). Ondorengo

**GAI ZERRENDA**

1. 2002ko batzar arruntaren agiria onartu.
2. 2002ko memoria, kontuak eta balantzea aztertu eta onartu.
3. Soberakin garbiak banatu.
4. Lege eta araudizko erabakiak.
5. 2003ko Gestio Plana aztertu eta onartu.
6. Barne araudiaren 33/4 artikulua aldatu: "Lehen ekarpenaren zenbateko eta ordainketa"
7. Artekaritza kontseilua eta Zaintza batzordea berritu.
8. Beste batzuk; galderak eta eskaerak.

Oñati, 2003ko martxoaren 26a




MAIDER OSA
Alberto Elkoroiribek (LAB), Unai Martínezek (ELA) eta Leire Ormazabalek (LAB) gaurko lanuztearen berri eman zuten eguaztenean.

# Metal arloan greba egiteko dei egin dute gaurko ELA eta LAB sindikatuek

*Lan hitzarmena sinatu ezinik dabiltzala-eta, lanuzteak egiten dihardute*

ENEKO AZKARATE

**Gipuzkoako enpresaburuen elkartea (Adegi) eta sindikatu nagusiak metalgintzako lan hitzarmena sinatu ezinik dabiltza. Horregatik, lanuzteak egiten dihardute langileek azken asteotan. Gaurko, egubakoitza, grebarako dei egin dute Debarroan.**

Sindikatuak eta enpresarien elkarteak dagoeneko lau bat aldiz jarri dira mahaiaren bueltan, metaleko lan hitzarmenaren gainean berba egiteko, baina Gipuzkoako enpresarien elkartearen proposamena "funtsik gabekoa" iruditu zaie sindikatuei. ELAko ordezkari Unai Martínezen hitzetan, enpresariek %3ko igoera proposatu dute, hau da, KPIren azpitik; horrez gainera, lanorduetan murrizketarik ez dute proposatu eta, bestalde, gauez lan egiteagatik edo lan arriskutsuak egiteagatik ez dute lan sari gehigarririk eskaini.

Hori guztia dela eta, lanuzteak egiten dihardute azken asteotan metal arloko langileek. Hain justu ere, gaur Debarroan egin dute greba. Ibarreko hainbat kooperatibak ere grebarekin bat egin dutela adierazi zuten eguaztenean, prentsaurrekoan, ELAko eta LABeko ordezkariek. Atzo, eguena, auto karabana egin zuten herriz herri, eta gaur, eguerdiko 12:00etan, manifestazioa, Bergaran. Bestalde, enpresaburuek eskaintza hoberik egin ezean, apirilaren 10ean eta 11n ere lanuzteak egingo dituztela aurreratu dute sindikatuek.

# 'Egunkaria'-ren aldeko Debagoieneko batzordeek elkarrekin jardungo dute

*Ibarreko enpresetan harpidetzak bultzatzea eta dirua batzea da asmoa*

IRATI AGIRREAZALDEGI

*Egunkaria*-ren itxiera dela-eta, batzordeak sortu dira ibarreko herri gehienetan, eta asteon, batzarra egin dute elkarren berri izateko eta zenbait egitasmo bateratzeko. Batzarrean, herrietako ordezkariez gain, *Egunkaria*-ko harpidetza arduraduna ere izan zen, harpidetzak bultzatzea da-eta batzordeon helburuetako bat.

Horretarako, Debagoienean enpresetara joko dute harpidetzak egiteko, *Egunero*-n eta ondorengo egunkarian publizitatea egiteko eta langile bakoitzeko diru kopuru bat emateko eskatzeko.

ELKARRIZKETA/ENPLEGU POLITIKA BERRIAK

## ITZIAR ETXEBERRIA/ENPLEGU SAILEKO TEKNIKARIA

# *"Langabeziari aurre egin gura diogu plan horrekin"*

AMAGOIA LASAGABASTER



**Martxoaren 29an (zapatua), mekanizazio ikasturtearen amaiera ekitaldia egin zuten Aretxabaletako Institutuan. Ekitaldian, diplomak banatzeaz gainera, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Enplegu Saileko teknikari Itziar Etxeberriak enplegu politika berrien gaineko berbaldia egin zuen.**

**Zein da Eusko Jaurlaritzak bultzatutako enplegu politika berria?**

Gure helburua da langabeziari aurre egitea, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzak enplegurako egitasmoak egiten ditu. Oraingoan, 2003tik 2006ra bitartean garatuko den enplegurako plana jarri dugu abian.

**Eta zertan datza egitasmo hori?**

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako enplegurako politika berriak bost puntu edo alor ditu: lehena lan egin gura duenari beharrezko informazio ematean datza; bigarren puntuan, lanerako gertatzeko beharrezko prestakuntza eman gura dugu. Horretarako, gainera, Eusko Jaurlaritzak doan emango du beharrezko heziketa, eta gero, enpresariek ikaslea sei hilabetez lanean hartzeko konpromisoa hartzen dute. Hirugarren puntuan, langabe gehien dauden kolektiboak –emakumezkoak eta atzerritarrak, alegia– lan merkatuan integratzeko ahalegina egin gura dugu; laugarren egitasmoa enplegu berriak garatzean datza; eta, azkenik, bosgarren puntuan, Eusko Jaurlaritzak lortu gura du erakunde publiko guztien arteko koordinazioa. Foru Aldundia eta udalak gurekin lankidetzan ibiltzea oso garrantzitsua da horrelako planak aurrera eramateko.

*"Atzerritarrak eta emakumeak lan merkatuan sartzen ahaleginduko gara"*

*"Beste eskualde batzuekin alderatuz, Debagoienean oso laneratze maila ona dago"*

**Enplegurako politika berri horiek zein eragin izango dute Debagoienean?**

Beste eskualde batzuekin alderatuta, Debagoieneko laneratze maila oso ona da. Langabezia tasan, ia Europakoaren parean zaudetela esango nuke, eta horrek esan gura du egoera ona bizi duzuela. Hala ere, emakumeen alorrean lan handia gelditzen zaigu egiteko Debagoienean. Emakumeak etxetik atera eta lan merkatuan sartu gura ditugu. Horretarako, aurrez aipatutako plana abian jarri eta emakumeari beharrezko lan prestakuntza eta orientazioa eman gura diogu. Eusko Jaurlaritzarendako oso garrantzitsua da emakumeek lan merkatuan parte aktiboa izatea. Izan ere, beharrezkoa da emakumeak independentzia ekonomikoa izatea, eta horretarako bide bakarra lan merkatuan sartzea da.




publidenak.

Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.

- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak

Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.

HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE

TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net




JON BEREZIBAR

Herritar ugarik hartu zuten parte gerraren gaineko galdeketan.

# Milatik gora lagun Arrasaten, gerraren aurkako galdeketan

*Kale bilkura egingo dute, astero, gerraren aurka*

E.A.

**Ameriketako Estatu Batuek eta Erresuma Batuak Iraken aurka egindako erasoaren gaineko galdeketa egin zuten joan den domekan Arrasaten. Herritar ugarik hartu zuten parte.**

Gerraren aurkako hiritarren plataformak antolatu zuen galdeketa eta hiru mahai jarri zituzten kalean. Guztira 1.263 boto zenbatu zituzten Irakeko gerraren aurka; aldeko bat bera ere ez. Goizez eta arratsaldez egin zuten galdeketa. Goizez, Arima Zurin, Musakolan eta Seber Altuben; eta arratsaldez, Arima Zurin, Kontzezinon eta Seber Altuben.

Antolatzaileak oso pozik agertu dira gerra salatzeko antolatutako ekimen sinboliko horrekin. Eta beste ekimen batzuk antolatzeko asmoa dutela aipatu dute. Esate baterako, kale bilkura egingo dute egubakoitzero, 19:00etan, Arrasateko Herriko Plazan.

# Ibarreko udalek ez dute nahi 'Ekohiri'-rik Urkulu inguruan

*Ezta inguru hartan beste urtegi bat egiterik ere*

E.A.

Mankomunitateak alegazioak aurkeztu dizkio Debagoieneko Lurralde Zatiko Planari. Plan horren arabera, 16 urtean Debagoienean 9.500 etxebizitza eraikitzea zehazten da. Jarduera ekonomikora, berriz, 157 hektarea bideratzen ditu planak. Kopuru horiek txikiegiak dira Mankomunitatearen iritziz, eta ez diete udalei etorkizunean ager daitezkeen beharrei erantzuteko malgutasunik bermatzen.

Mankomunitatearen desadostasuna eragin duen beste puntu bat da Urkulun sortu asmo den *Ekohiria*. Urkulu inguruan 1.000 etxebizitza eraikiko dituzte planaren arabera, eta Mankomunitatearendako hori ez dator bat lurraldearen garapen jasangarriarekin, egitasmo horrek eragin handia izango luke-eta bai nekazaritzaren eta bai paisaiaren ikuspegitik hain balio handia duten Urkulu inguruko lurretan. Azkenik, Mankomunitatea ez dago ados Urkulu-2 urtegiaren proposamenarekin ere. Jarritako helburua, aisialdira bideratzea batez ere, neurriz kanpoko egitasmoa dela uste du.

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Eibar-Gasteiz autobidea ez da urrira arte zabalduko, Larreategiko zubiko arazoengatik

Apirilean zabaltzekoa bazen ere, gutxienez urrira arte itxoin beharko dugu Bergaratik Eibarrerako A-1 autobideko zatia erabiltzeko. Soraluzeko Larreategiko zubibidean izandako arazoak eragin dute atzerapena. Gainera, zabaltzekotan, zubibideetako bat –arazorik izan ez duena– zabalduko dute. Baliteke, gainera, arazoak izan dituen beste zubibidea bota eta berriro ere eraiki behar izatea. Hori jakinarazi du Antton Jaime Errepide diputatuak. /E.A.

## HAUTESKUNDEEN USAINEAN

# Alderdi politikoak zehaztuz doaz, apurka, hautagaiak eta programak

*Arazoak arazo, sinadurak batzen hasi dira herriz herriko plataformak*

ENEKO AZKARATE

**Maiatzaren 25ean egingo diren hauteskundeei begira, alkate eta zinegotziak eta Gipuzkoako batzarkideak aukeratzeko, apurka-apurka badoaz gauzak argitzen. Hautagaien eta indar politikoen asmoen berri izaten ari gara gutxika-gutxika.**

Oraingo astean aurkeztu dituzte Bergaran eta Elgetan EAJ-EA koalizioaren hautagaiak. Bergaran Victoriano Gallastegi izango da, beste behin, alkategaia. Zerrendan hirugarrena doana, German Muruamendiaraz, Eusko Label Fundazioko presidentea da gaur egun. Elgetan Patxi Basauri aurkeztuko da berriro. Antzuolako lehengo alkate Mikel Larrea ere badoa zerrendan.

Bestalde, Oñatiko eta Aretxabaletako zerrendaburuak honako hauek izango dira: Andoni Gartzia, gaur egun Garaia egitasmoko gerentea, Oñatin, eta Arritxu Oliden, Aretxabaletan. Dena dela, bi herriotan oraindik ez dute zerrendak aurkezteko ekitaldirik egin.



Arritxu Oliden: EAJ-EA, Aretxabaletan.



Andoni Gartzia: EAJ-EA, Oñatin.



Joxe Etxeberria: Aralar, batzarretarako.



Isabel Salud: EB, batzarretarako.

**ARALARREK ERE BAI**

Aralarrek oraingo astean egin du Arrasaten hauteskundeei begirako ekitaldia. Ahaldun nagusi izateko hautagaia aurkeztu du: Iñaki Irazabalbeitia Elhuyarko zuzendari nagusia. Eta Joxe Etxeberria arrasatearra Deba-Urola barrutiko hautagaia Batzar Nagusietarako.

**EZKER BATUAK, ISABEL SALUD**

Ezker Batuak zehaztu ditu hainbat zerrendaburuen izenak. Arrasaten, esaterako, Joseba Ugalde aurkeztuko da berriro eta Ander Rodríguez izango da bigarren. Bergaran, Andres Díez edo Isabel Salud, bietako bat izango da zerrendaburua, eta Oñatin –EBk lehen aldiz aurkeztuko du zerrenda–, Karmelo Pérez; Aretxabaletan, Jaime Muxika; eta Eskoriatzan, Xabier Zugasti. Bestalde, Isabel Salud bergararra izango da Orioko barrutiko hautagaia Batzar Nagusietarako.

**PLATAFORMAK: PAPERAK GERTU**

AuBk Gipuzkoako batzar nagusietarako zerrendak eta programa domekan aurkeztuko ditu Errenterian. Horren berri emateko agerraldia egin dute oraingo astean. Agerraldi horretan Debagoieneko bi aurpegi ezagun izan ziren: Joxean Alustiza Fagor Arrasateko Kontseilu Errektoreko presidentea eta Joxe Mari Etxaniz preso ohi bergararra.

Bestalde, herriz herriko hautesleen plataformak arazoak izan dituzte hauteskundeetara aurkezteko behar dituzten sinadurak batzeko. Astelehenean hasi behar ziren sinadurak batzen, baina horretarako inprimakiak eguenera arte ez dira heldu. Notaritzan eta udaletxeetan sinatu behar da.



### Saria Txolarteko begiraleendako

Jokin Antxia Atzegiko Debagoieneko arduradunak Bergarako Txolarte klubeko begiraleei argizaiola bat eman zien aurreko zapatuan, musutruk egiten duten lan bikaina aitortzeko. Gaur egun adimen urritasuna duten 43 bazkide ditu Txolartek eta zapatu arratsaldeetan batzen dira Martoko kaleko 8. zenbakian duten egoitzan. Guztira ibar osoko 16 begirale dabiltza lanean, eta neskak dira gehienak. Apirilaren 23an Santoñara eta udan Tarragonara joateko irteerak antolatu dituzte Txolartekoek. /E.M.

ANTZUOLA

## Gerbasioren omenezko bazkarirako txartelak salgai

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak maiatzaren 11n emango dio zilarrezko domina Gerbasio Legorburu txistulari antzuolarrari.

Iazko urteko batzarrean erabaki zuten Gerbasiori domina hori ematea, urtetan egindako lanaren ordain gisa.

Egun horretarako hainbat ekitaldi antolatzen dihardute herriko txistulariek; besteak beste, herri bazkaria egingo dute. Dagoeneko salgai jarri dituzte bazkari horretarako txartelak, Gorosti eta Aitz-Garbi tabernetan. /A.I.

ARAMAIO

## Udan sahararrak Aramaiora ekartzeko aukera dute aramaioarrek

Fronte Polisarioko Euskadiko ordezkaritzak egindako proposamenarekin bat egin, eta udan saharar umeak Aramaiora ekartzeko aukera egongo da.

Helburua da Tyndoufeko kanpalekuetan jaio eta bizi diren 7 eta 12 urteko umeak oporretan ekartzea, uztailaren 6tik irailaren 6ra arte, horrela, umeok kanpalekuetan jasaten dituzten gabeziak apur bat ahatz ditzaten, eta basoak, errekak, itsasoa... ikus ditzaten.

Guztira 450-500 ume ekarri gura dituzte EAEra. Iaz 400 etorri ziren. /U.M.

ELGETA

## Odol ateratzea martitzen arratsaldean izango da

Odol Emaileen Elkarteak deituta, datorren apirilaren 8an, martitzenean, odol ateratzea izango da udaletxeko beheko solairuan.

Joan daitezkeen guztiak 18:00etatik 20:00etara hurreratu beharko dira bertara.

Elkarteko kideek azpimarratu dute odola ematea beste bati laguntzea dela. Izan ere, Elgetan urtean bi aldiz egiten dute odol ateratzea: apirilean eta urrian, hain zuzen. Orain arteko deialdiei erantzunez, 70 elgetar inguru azaldu ohi direla esan digute./I.A.



ARTXIBOA

BERGARA

## On Serafin Esnaola abadea herriko seme izendatu du udalbatzak eta Algodonera inguruan sortuko den bizitoki-auzoan kale edo plaza bati haren izena jarriko diote

Aho batez hartu du erabakia udalbatzak. On Serafinek herrian egindako lan guztia eskertu nahi izan diote. On Serafin Errezilen jaio zen, 1915ean, eta iazko azaroaren 2an hil zen Donostian. 1937an egin zen abade, eta Bergarara 1964an iritsi zen; lehen meza ekainaren 7an esan zuen, San Pedron, eta astebete geroago San Antonioko ermitan hasi eta han eman zituen erretiratu arteko urteak. Abade izateaz gain, eragile soziokulturala ere izan zen, euskara bultzatu zuen herrian eta Pol-Pol mendizale taldeko Gaztetxoen Saila sortu zuen. Haren ibilbide oparoa dela eta, hainbat sari jaso zuen, besteak beste, Bergarako Kirol saria 1991n eta Sabino Arana saria 1999an. Eta bi liburu idatzi zituen: *Euskal kleroa klandestinitatean* eta *Eliza baten itxiera*. /M.B.

OÑATI

# Herriaren webgunea bost hizkuntzatan dago oraingo astea ezkero

Eguaztena ezkero (apirilak 2) bost hizkuntzatan dago Oñatiren gaineko webgunea, *www.oinati.org*, hain zuzen ere. Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziak kudeatzen eta zuzentzen duen webgune hori orain dela urtebete inguru jarri zuten sarean, Oñati ezagutzera emateko.

Ordutik orain arte bi hizkuntzatan eskaini du informazioa webgune horrek: euskaraz eta gaztelaniaz, hain justu ere.

Webgunearen helburu garrantzitsuenetako bat Oñatiren bisitariei informazioa ematea eta turistak erakartzea izanik, informazio hori beste hizkuntza batzuetan ere eskaintzea erabaki zuten. Horrela, katalanez, ingelesez eta frantsesez ere irakur daiteke eguaztena ezkero Oñatiren gaineko webgunea.

Aurrera begira beste berrikuntza batzuk egiteko asmoa ere erakutsi dute webgunea kudeatzen duen Turismo eta Garapen Agentziako arduradunek. Arrikrutzeko lanekin hasten direnean, lan horien gaineko informazio eguneratua aurkitu ahal izango dugu webgunean.

**BISITARI UGARI LEHEN URTEAN**

Turismo eta Garapen Agentziak jarraipen zehatza egin dio Oñatiren webguneari. Lehendabiziko urte honetan jaso dituen datuen arabera, egunean, batez beste, 57 bisitari jasotzen ditu webguneak. Bisitarien jatorriari dagokionez, aipagarria da azken hiruhilabetekoan, esaterako, %58 estatubatuarrak izan direla. /AINTZANE IRIZAR

**Zertzelada**

**Webgunearen helburuetako bat turistak erakartzea izanik, katalanez, frantsesez eta ingelesez ere kontsulta daiteke orain webgunea.**

LEINTZ GATZAGA

# Lagun asko egon ziren dendaren eta Turismo Bulegoaren inaugurazioan

Gatzagako herritarrez gain, ibarreko jende ugari egon zen joan den egubakoitzean, hilaren 28an, Labidea dendaren eta Turismo Bulegoaren inaugurazio ekitaldian.

Mikel Laboaren *Bentatik nator bentara noa* kantuarekin eman zioten hasiera ekitaldiari. Joxerra Agirreurreta alkateak agurra egin zuen, eta gero herritarrek denda eta bulegoa bisitatu zituzten. Gero, Labidea denda eta Turismo Bulegoa kudeatuko dituzten Aitziber Gorosabelek eta Amaia Olabek luncha eskaini zieten ekitaldian parte hartu zuten lagunei.

Apirilaren 1a geroztik zabalik daude bai bulegoa bai denda Gatzagan. /A.G..



AINTZANE GARDOKI

**Apirilaren 1ean zabaldu zituzten ateak dendak eta bulegoak.**

ARRASATE

## Guztira 427 aparkaleku egingo dituzte Laubiden, lur azpian

Bikani Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu Laubide eta Biteri inguruko lur azpiko aparkalekuak. Guztira 427 aparkaleku egingo dituzte; 150 edozeinek erabiltzekoak izango dira eta gainerakoak 50 urtean erabiltzeko salduko ditu Udalak, partikularrendako. Hain justu ere, 15.000 euro balioko du aparkaleku bat erosteak.

Datorren urria-azaroa inguruan hasiko dira lanok egiten.

Horrez gainera, gaur egungo udal aparkalekua kudeatuko du Bikani Eraikuntzak SL enpresak. /U.M.

ARETXABALETA

## Udaletxean egongo dira eskuragarri EHNA egiteko beharrezko orriak

Aretxabaletako udalbatzarrak Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena (EHNA) lortzeko laguntza ematea erabaki zuen astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran. Horren ildotik, hemendik aurrera EHNA tramitatzeko orriak udaletxean egongo dira eskuragarri. Erabaki hori Bai Euskal Herriari taldeak aurkeztutako mozioari esker onartu zuen udalbatzarrak. Eta, horrez gainera, erabaki zuten EHNA baliagarria izango dela Aretxabaletako Udalean egin beharreko tramitazio guztietarako. /A.L.

ESKORIATZA

## Antimilitarista Eguna ospatuko dute bihar eskoriatzarrek

Eskoriatzarrek urtero egiten dute festa udaberri hasieran, eta aurten Antimilitarista Eguna antolatu du Gazte Asanbladak. Iraki egindako erasoa legez kanpokoa dela aldarrikatuko dute bihar.

Kale animazioarekin hasiko dute festa, 11:00etan, eta gero *Alde hemendik* lelopean kale agerraldia egingo dute. Ondoren, herri bazkaria, eta 18:00etan Asier Serrano bakarlariak eta Surfing Kaos taldeak musika emanaldia egingo dute. Gauean Silencio Absoluto taldeak joko du. /M.A.



ENEKO AZKARATE

# José Ángel Achón

HISTORIALARIA

# “Arrasateko erreketaren ondoren, ahaide nagusi guztiek bat egin zuten, hiribilduen aurka egiteko”

GIPUZKOAKO HISTORIA MODERNOA

**“Historialari batzuen iritziz, hiribilduak nagusitu izana oso garrantzitsua da ulertzeko gure historia modernoa: foruak, Batzar Nagusiak, erakundeen egituraketa...”**

LURRALDE EGITURA

**“Ahaide nagusien logika nagusitu izan balitz, Gipuzkoako lurraldearen egitura Nafarroakoaren antzekoa izango zela esan genezake, ezberdintasunak ezberdintasun”**

Debagoieneko bandokideen arteko borrokak, gizarte gatazkak eta lurralde historikoen sorrerak aztergai izan ditu oraingo astean José Ángel Achón (Donostia, 1962) historialariak. *Bergara, historia topagunea* hitzaldi sortaren barruan, Bergarako Udal Agiritegiak antolatu du hitzaldia. Besteak beste, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren sorrera eta foru ideologia klasikoa izan ditu mintzagai historialari eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak. Aipatzekoa da, bestalde, historialari horrek idatzi zituela Esteban de Garibairen memoriak orain dela urte bi. Guk bandokideen gainean egin dugu berba José Ángel Achón ekin.

ENEKO AZKARATE

**Azalduko diguzu zein izan den hitzaldian zabaldu nahi izan duzun mezu nagusia?**

Batez ere XV. mendeko bandokideen arteko lehiak izan ditut berbagai. Euskal historiografiaren gairik garrantzitsuenetakoa da hori, karlistaldiekin batera. Historialariok arreta berezia eskaintzen diogu bandokideen arteko gatazkari. Izan ere, gure historiaren zati bat da gatazka hori, garai konkretu bateko gertakarien ezaugarri. XV. mendeko gertakariez ari gara, nahiz eta XIII., XIV. eta XVI. mendeetako hainbat datu ere badakizkigun gai horren gainean.

**Zeintzuk ziren bandokideak?**

Bandokideen arteko borroken atzean, gatazka ugari daude: jauntxoen eta nekazarien arteko borrokak, ahaide nagusien eta hiribilduen artekoak, ahaide nagusien artekoak… Historialari batzuek lehia batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diegun arren, argi dago bandokideen arteko gatazken atzean, esan dudan moduan, beste hainbat gatazka daudela. Bestalde, bandokideak zeintzuk ziren galdetzen didazu. Bada, *bandokide* berbak adierazten digu berba bera jarri dionak begi txarrez begiratzen diela bandokideei. Izan ere, bandokidea da komunitatea zatitzen edo apurtzen duen norbait, hau da, komunitatean gatazka sorrarazten duen norbait. *Bandokide* eta *ahaide nagusi* gauza bera izango litzateke edo pertsona multzo berak adierazteko berba bi izango lirateke, baina bigarrenak, *ahaide nagusi* berbak, konnotazio positiboagoa dauka. Ahaide nagusia da ahaidetasunagatik batzen den kolektiboaren burua. Baina ahaide nagusien etsaien ikuspuntutik, ahaide nagusiak bandokideak dira, hau da, komunitate mota zehatz bat apurtzen dutenak.

**Orduko komunitateari onik edo kalterik egin ziotela esatea kontzeptu egokiak erabiltzea da?**

Oso gaitza da hori zehaztea. Benetan onartu beharko genuke ahaidetasunean oinarritutako gizarte egitura honek gatazka ia endemikoak sortu zituela. Kontuan hartu behar da XV. mendea liskar handiko sasoia izan zela; hortaz, oso gaitza da esatea bandokideek edo ahaide nagusiek orduko gizarteari kalterik egin ote zioten edo ez. Edozelan ere, bandokidea kalte egiten zuen giza talde bezala hartua izan da sarritan. Baina bandokideen jardunak bazeukan logika bat, bandokideek bazuten komunitatea eta giza harremanak ulertzeko modu konkretu bat, nahiz eta hiribilduen ikuspuntutik bandokideen jardunak inolako logikarik ez izan.

**Zer dakigu bandokideez?**

Garai bateko gizarte gatazken eragile edo protagonista moduan aztertzen ditugu historialari batzuek. Bestalde, ahaidetasunean oinarritzeko edo egituratzeko arrazoiak ere aztertu dituzte hainbat historialarik. Eta beste historialari batzuek, azkenik, bandokideen amaieraren gaineko ikerketak egin dituzte, hain justu, ahaide nagusien eta ermandadetan batuta zeuden hiribilduen arteko gatazken gainekoak. Gipuzkoako kasuan, esaterako, probintziaren egituraren gaineko ikuspuntu bik egin zuten talka. Ahaide nagusien iritziz, Europako beste lurralde batzuen moduko egitura izan beharko luke Gipuzkoak: erakunde propioak izan beharko lituzke, baina hainbat estamenturekin, eta ahaide nagusien buruek noblezia ordezkatu beharko lukete; horixe izango litzateke goreneko estamentua, eta gero kleroak eta herritar arruntek osatuko lituzkete gainerako estamentuak. Bestetik, hiribilduen iritziz, Gipuzkoa osoak estamentu bakarra izan beharko luke, behe mailako nobleziak osatuko lukeen estamentua, hain justu ere. Hortaz, lurraldearen egitura ulertzeko modu ezberdin bi eta kontrajarriren arteko lehia izan zen.

**Zein nagusitu zen?**

Hiribilduena, hau da, estamentu bakarrean oinarritutako gizarte egituraketaren aldekoa. Historialari batzuen iritziz, hiribilduak nagusitu izana oso garrantzitsua da ulertzeko gure historia modernoa: foruak, Batzar Nagusiak, erakundeen egituraketa…

**Hortaz, gaur egungo lurralde historikoen egituraketaren sorrera bandokideen eta hiribilduen arteko gatazkaren ondorio dela esan daiteke?**

Esan dezakegu aro modernoan garatu den lurralde eta erakundeen antolaketa gatazka haren amaieraren ondorio dela.

**Eta interpreta dezakegu zelako lurralde egituraketa eta erakundeen antolaketa izango genituzkeen bandokideak nagusitu izan balira?**

Oso gaitza da horri erantzutea. Baina ahaide nagusien logika nagusitu izan balitz, Gipuzkoako lurraldearen egitura Nafarroakoaren antzekoa izango zela esan genezake, ezberdintasunak ezberdintasun. Jakina, Nafarroak beste erakunde egituraketa mota bat dauka, baina hiru estamenturen inguruan dago antolatuta.

**Badaukagu nahiko informazio gai horren gainean?**

Bai. Lope García Salazarren kontakizunak ditugu, ahaide nagusi baten ikuspuntutik kontatutako lekukotza, hain justu ere. Bestalde, bandokideen familien artxibo pribatuak ditugu, baita hainbat udal artxibotako informazioa ere. Azken horietakoek ematen digute hiribilduen ikuspuntua. Batez ere Gipuzkoako datuak dakizkigu; beste lurralde historikoetakoak, gutxiago.

**Bandokide batzuen izenak?**

Familia eta etxe handiak: Gebara, Lazkano, Ganboa, Oñati-Loiola, Gabiria, Ozaeta, Guraia, Bañez de Artazubiaga… Batzuen dorreek, harmarriek… oraindik zutik diraute.

**Arrasateko erreketa une garrantzitsua izan zen bandokideen arteko liskarretan, ezta?**

Bai; zalantza barik, hala da. Aramaioko eta Oñatiko jauntxoen arteko liskarren ondorio da XV. mende erdialdeko gertakari hura. Ahaide nagusien arteko gatazkan, mugarria da Arrasateko erreketa. Bestalde, Debagoienean, azpimarratzekoa da Oñatiko Gebarak bere sasoian izan zuen garrantzia. Hortaz, esan genezake Debagoienean modu partikularrean gertatu zirela bandokideen arteko borrokak. Erreketaren ondoren, jauntxo haien arteko liskarrak, zelanbait esatearren, baretu edo arrazionalizatu egin ziren. Eta gertaera haren ostean, gainera, ahaide nagusi guztiek bat egin zuten hiribilduen aurka egiteko.

**Zergatik desagertu ziren?**

Lurraldearen antolaketa ereduak dauka zerikusia horrekin. Batzar Nagusien inguruan antolatzeko modua nagusitu zen, erregearen laguntzarekin. Eta horrek ahaide nagusien helburuak zapuztu zituen. Hortaz, bandokide batzuk *birziklatu* egin ziren; eta beste batzuek alde egin zuten beste lurralde batzuetara, gorteetara…

# Zabalik



MIKEL LIZARRALDE

## Otsailak 20

**Otsailaren 20ko goizaldean, lagun baten telefono deiak ohetik altxarazi nindueneean, bizitzaren parte bat kendu zidaten. Egunero-egunero, astelehenetik larunbatera bitartean, nire bizimoduaren zati ezinbestekoa zena errotik moztu zidaten.**

**Otsailaren 20ko goizaldean, guardia zibilek nire lantokira sartu eta hura itxiarazi zutenean, azken urteotan bigarren etxean izan nuena hertsi zuten. Goizalde hartan, lankideekin kafea hartu eta zigarroa erretzeko erabiltzen genuen gela desagerrarazi ziguten betiko, baita behin baino gehiagotan bisitarien kolpe gogorrak jasan behar izan zituen atekristalera "ikusezina" ere. Eguneroko etxea kendu ziguten.**

**Otsailaren 20ko goizean, lantoki kanpoan geundela, lankideak, lagunak eta nik neuk ezagutzen ez dudan jendea kendu zidaten. Makurrarazita eraman zituzten. Ez genekien nora. Edo zoritxarrez bagenekien.**

**Otsailaren 20ko goizean –eta arratsaldean, eta gauean, eta hurrengo egunean, eta hurrengoan–, sakelako telefonoak sekula santan baino lan handiagoa izan zuen, hura ere ohetik altxarazi balute bezala. Eta otsailaren 20ko goiz hartatik aurrerako egunetan, sakelako telefonoak elkartasun eta laguntza mezuak zekartzala jakin nuen.**

**Otsailaren 20an ez nintzen gogoratu, urtero bezala, hurrengo eguna 23-F zela. Nahikoa nuen beste *Tejerazoarekin*.**

**Otsailaren 20ko goizaldean *Egunkaria* itxi zigutela jakin nuen, ez dakit zein epailek hala aginduta. Lankide eta nagusi nituenak eraman zituztela.**

**Baina otsailaren 22an Donostian bildu eta horrenbesteko lagun aurkitzeak –denak ziren lagunak, ez daukat dudarik– aurrera egiteko indarra eman zigun. Eta egingo dugu. Zalantzarik gabe.**

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar-ko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Euskararik gabe, Euskal Herririk ez

Otsailaren 20 goizaldera berriz ere Euskal Herria eta euskara beste eraso baten atarian esnatu ziren. *Euskaldunon Egunkaria* egiten den eraikinari ateak itxi zitzaizkion, berriz zabalik ikusteko esperantza gutxirekin.

Nahiz eta euskaldunok asko ez izan, euskara hutsez idatzitako egunkari bat irakurtzeko hizkuntza eskubidea urratu eta ukatu zaigu. Non daude euskaldunon hizkuntza eskubideak?

Eraso hau salatzeko eta euskaldunak garela ozen adierazteko parada ederra izan genuen Donostiako kaleetan barrena, baina orain astebete beranduago zer?

Euskaldunoi orain legez dagozkigun hizkuntza eskubideak aitortzera jo behar dugu, eta *Euskaldunon Egunkaria* kalean ikusteko borrokatu behar dugu. Honek pertsona guztion eguneroko konpromisoa eskatzen du; ezin gaitezke hilabeterako *Egunero*-ren irakurle bihurtu, baizik eta betirako.

Eraso hauek jarraipenik izan ez dezaten gure eguneroko lanean tinko jarraitu behar dugu. Bestela, eraso gehiago eta bortitzagoak ezagutuko ditugu, eta urte askotako izerdiak kartzelan izango du amaiera. Dudarik gabe, hori ez da guk nahi duguna, gure helburua xumea bezain argia da: proiektu guztiak aurrera eramatea normalizazio osoz.

Besterik gabe, Loramedi Euskara Elkarteak eta Aretxabaletako EHEk eraso hau gogor salatzeaz gain, elkartasuna adierazi nahi die *Euskaldunon Egunkaria*-ko atxilotu eta langileei. *Egunkaria*, aurrera!

ARETXA PLATAFORMA
Aretxabaleta

## Ezkerti?

Hauteskundeak gertu daudela-eta, euren zerrenda burua aurkezteko aitzakiaz, Ezkerti izeneko panfleto bat buzeonatu berri du Aretxabaletako IUk.

Nire ustez, Gezurti izena hobeto legokioke. Izan ere, dituen lau orrialdeetan zehar, berba beste gezur botatzen baitituzte. Ezin denak azaldu, baina horra adibide batzuk:

"EB-IUk 14 etxebizitzaren eraikuntza desblokeatu du…", "Hitzarmen bat sinatu berri da…". Sinatu berri den hitzarmen hori, 2000. urteko irailaren 28an sinatu zen, hau da, IU gobernura heldu baino urte bete lehenago. Hala ere, eta nahiz eta dena gertu izan, beste urte bete behar izan dute proiektua kontratatzeko. Zeinen aldetik egon da, beraz "pasotismo jarrerarik"? Tartean, hainbat ahalegin egin ditugu Madrazorekin edo bere departamentuko norbaitekin biltzeko, baina bidalitako gutunei erantzun ere ez digu egin. Eta nik datuak emango ditut. Gutun hauek 2001eko urrian eta 2002ko urrian bidali ziren. Azkenean, bere alderdiak antolaturiko hitzaldi bat eman behar zuela Aretxabaletan, eta lortu genuen berarekin elkartzea.

Aurrerago, eta Jaime Mujika, buruari, eginiko elkarrizketan, honelakoak irakur daitezke: "Duela bi urte plan estrategiko bat antolatu genuen (sic)…". Nortzuk? IUkoak? Joño, eta gu denok Udalak antolatu zuelakoan! "Txostena udaletxean aurkeztu genuen (sic)… baina ez da ezertxo ere egin". Edo aurkeztu zenuten txostena ez duk irakurri, edota herrian gertatzen denaz enteratu ere ez haiz egiten.

Azken aldera, gobernu taldearen aurka aritzeaz nahiko ez, eta kooperatiba ere mintzagai hartzen du. "Kooperatibaren alde egiten dute lehenbizi eta herria bigarren tokian uzten dute". "Badira Arrasateko kooperatiban (sic) goi karguak dituzten zenbaitzuk…". Gaur egun, zazpi gara kooperatiban lan egiten dugun zinegotziak. Esango al didak hauetatik nortzuk diren goi karguak dituztenak? Aipatuko diguk herria bigarren tokian utzita kooperatibaren alde burutu dugun ekintza bakarra?

"Aretxabaletarrak nahasirik daude. Herriaren alde ez dela ezertxo ere egiten ikusten dute". Nahasirik badaude, hire hitzek ez die nahasmenetik ateratzen askorik lagunduko. Zein erraza den ezer frogatu gabe edozein astakeri esatea, ezta? Horrela jokatuko duk udaletxean (iristen bahaiz)? Ezkerti?

ANJEL BERGARETXE AGIRREGABIRIA
(ARETXABALETAKO ALKATEA)
Aretxabaleta

## Olatuen arteko hausnarketa

Ekaitzaren olatuen artean nekeza izaten da urrutira begiratzea. Barealdi laburreko uneak dira egokienak handik eta hemendik zer datorkigun aztertzeko eta hara edo hona jotzeko. Makina bat gauzarekin gertatzen da horrelako zerbait. Oraingo ekaitzak egunkaria eta euskal mundua astindu eta egurtu du. Talde gisa euskal gizarteak eraso honi eman dion erantzuna bikaina izan da. *Egunkaria*-ri eta euskarari lagundu egin genion otsailaren 22ko Donostiako manifestaldi erraldoiarekin. Euskarari laguntzen diogu Kilometroak, Herri Urrats edota Korrikan parte hartzen dugun bakoitzean. Euskarazko egunkaria indartzen ari gara harpidetza gorakadarekin.

Jakinekoa da, hala ere, beroaldiaren ondoren barealdia datorrela. Eta gero zer? Mariano Ferrerrek horrela galdetzen zien entzuleei: *Flor de un día?* Barealdian egindako lana da garrantzizkoena, egunerokoa, etenik gabea, pausoz pausokoa. Eraiki nahi dugun hiztun herriaren oinarriak sendo finkatzeko garaia da. Eta zer da hizkuntza eta hiztunen alde lan egitea? Hara! Mundu osoan hizkuntza guztietako hiztunek egiten dutena: hizkuntza horretan bizi, hortxe dago gakoa, hizkuntza horretan bizi nahi izatean alegia. Ez gara euskaraz biziko oso abertzaleak garelako edo hiltzear dagoen hizkuntza-ondasuna babesteko, gizarte honen talde-erabakiari eta nahiari bakoitzak bere nahia eta gogoa eransten diolako baizik. Hor dago koxka:

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



gure seme-alabekin, gurasoekin, gustuz, gogoz eta bihotzez hizkuntza horretan jardun nahia. Gure lagunekin eta etxekonekoekin hizkuntza horretan disfrutatzea. Gure lanbidean erdaraz hain "kalitate" handiz egiten dugun hori euskaraz ere egiteko erronka geure buruari jartzea. Bezeroari edo dendariari harremanak euskaraz izateko gogoa behin eta berriz adieraziz, hitzez eta egitez! Anje Duhaldek, Xabier Amurizaren letrari musika jarriz, honela dio: "Maita nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago". Euskaldunok, batez ere beroaldian, izugarri maite dugu euskara, baina gozatu? Zenbat gozatzen dugu? Gure bihotzeko nahia, indarra, berotasuna eta goxotasuna ahora (hitz eginez), begietara (irakurriz) eta eskuetara (idatziz) iritsi behar zaigu.

Eta hau ez dago Acebes, Mayor Oreja edota Aznar-en esku, hau gure eta soilik gurea den kontua da!

Otsailaren 22ko manifestaldian, Kilometroetan eta abarretan gabiltzanon erdiek euskara maitatzeaz gain euskaraz bizitzeko ahalegina egingo bagenu, aspaldi izango genukeen euskarazko egunkari sendoa, 30-40 mila alekoa. Horrelako egunkariak laster estaliko zituen orain artekoak omen zituen ahuleziak: eskelak, herrietako albisteak, kirolak, aniztasuna… eta ez genuke pozoitutako erdal prentsaren pentzutan egon beharko.

Hau horrela bada, ez gaitezen geratu hurrengo olatua noiz etorriko zain, bakoitzak hartu behar ditu neurriak. Zein hizkuntzatan nahi duzu bizi? Zeinetan gozatu? Zein hizkuntzatan nahiko zenuke gozatu zure ondorengoekin? Zelan nahi duzu ikasi edo lagunak egin? Zer nahi duzu irakurri?… Aurkitu ezazu zure barneko egiazko erantzuna, ez azalekoa, ez bat batean datorkizuna; jokatu ezazu zintzo zeure buruarekin. Beroaldian egiten ditugun talde agerraldiek baino indar handiagoa dute bakoitzak bere egunerokoan hartzen dituen hizkuntz erabakiek. Taldearen "nahia" izatetik bakoitzaren "benetako nahia" izatera iritsi behar dugu. Bat eta bat bi gara, bi eta bi lau, lau eta lau zortzi… Milaka bagara "gura" dugunok, zerk eta nork galarazi dezake gaur gure nahia? nahia bakoitzaren barnean dago. Ni eta zu askeak gara "nahi" izateko, nire eta zure "nahiak" ezin dira espetxeratu, ezin dira galarazi, ezin dira isilarazi. Nik "euskaraz bizi nahi dut" eta txanpa hau ez dut pasatzen utzi nahi aurrera egiteko.

IÑAKI ARTOLA
Bergara

## Aski da: epaitegian euskaraz!

Euskara ez da bere lurralde osoan hizkuntza ofiziala, eta teorian ofizialtasuna onartu zaion eremuan, praktikan hizkuntza eskubide urraketa ugari ageri dira. Egunero-egunero zapaltzen dira gizarteko arlo ezberdinetan legez eta eskubidez dagozkigun hizkuntza eskubideak, hortaz, ezin esan euskarak ofizialtasun erreala bizi duenik.

Alor hauetako bat justizia administrazioa dugu, epaitegietan ageri-agerikoa da euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketa, eta horren adierazle dira Bergarako epaitegiari dagozkion honako datu hauek:

Bergarako epaitegian Debagoieneko 62.450 euskaldunen hizkuntza eskubideak ez dira errespetatzen. Epaitegiko epaileen %100 (4 epaile) erdalduna da; funtzionarioen %68 ez da euskalduna, eta bertako inprimaki eta jardueretan erdarak dauka lehentasuna.

Bergaran justiziak pertsona zein giza taldeen eskubideak bermatu beharrean, hizkuntza komunitate baten eskubideak zapaltzen ditu justizia injustizia bihurtuz.

Egoera honen aurrean, EHEk euskaldunon hizkuntza eskubideak aldarrikatu eta Bergarako epaitegian euskaldunok jasaten dugun zapalkuntza salatzeko, elkarretaratzea egin genuen Bergarako epaitegiaren aurrean.

Hizkuntza eskubideak bermatu! Aski da: epaitegian euskaraz!

BERGARAKO EHE
Bergara

## Lehen eta bigarren mailako kirolak

Badira pare bat urte Musakolako Kiroldegia birmoldatu zutela, baina, erabiltzaile guztien mesederako izan al da? Guk, Arrasateko Judo Taldeko guraso eta kirolariok, ezetz esan dezakegu.

Azken urteetan Aukearen aldetik jasotako promesa bat ere ez dugu betetа ikusi:

Birmoldatze obrak hasi ziren, baita judoa egiten zen lokalean ere; ondorioz, hainbat hilabetez ezin izan ginen entrenatu. Obrak bukatzean bageneukan tokia, guztiz berritua, baina hara non etorri zen gure ezustea, koltxonetak entrenamendu bakoitzaren aurretik jarri eta ostean kendu egin behar genituela esan zigutenean, tona eta erdi! (kontuan izan behar da, gainera, lehen saioa haurrena izaten dela).

Aukeak eskaini zigun irtenbide bakarra Antoñako pabilioian "judo egiteko toki" bat izan zen. Baina "lokalak" ez zituen ezta baldintza minimoenak ere betetzen: lehengo gelaren tamainaren erdia zuen, oinutsik ibiltzeko izugarrizko hotza, babestu gabeko ertzak, saskibaloi kantxako zarataren ondorioz entrenatzaileari entzuteko arazoak… Judo Elkarteak azaldu zituen kexen ondorioz, Aukeak "lokala" egokitu egingo zuela agindu zuen, hori dio behintzat helarazi zigun gutunak.

Urtebete pasatu da eta oraindik itxoiten ari gara. Noiz arte? Ala kirol minoritarioek ez dute Kiroldegi honetan tokirik?

ARRASATE JUDO ELKARTEA
Arrasate

## Baselina

Ingurumenaz arduratzen zarenetarikoa baldin bazara, oraingoz ziur kezkatuta zabiltzala; baina horretarikoa ez bazara ere, jakin ezazu, orain, politikari eta teknikari batzuen eskutik, urtegi berri bat, 16 hektareako ur parke bat, 94 hektareako parke tematikoa, eta etxebizitza eskuragarriaren eskasiari aurre egiteko…, zer? ba, mila txalet muturretik sartzea proposatzen digutela, Debagoienean dugun naturgune hoberenetarikoan gainera, Urkulu inguruan, alegia.

Eta, norendako izango dira etxe berri horiek? Ba, ez zuretako eta ezta niretako ere, eskualdeko "jauntxo" berriak eroso egon daitezen baizik, han bertan arrantzan, arraunean, zaldi gainean eta golfean ibil daitezen. Zu eta ni domeketan paseatzera joango gara, beren etxetxoak harresien gainetik ikusi nahian.

Herrietako dendari txiki eta erdi guneak berriz, erne, plan berria zuetaz ere gogoratzen baita. Arrasaten, hiper bat handitzearekin nahikoa dela dio planak, beste ezer egiteko premiarik ez dagoela azpimarratuz. Badakizue, ostiraletik igandera, inguruko gazte maite guztiok makrozentrora edo parke tematikora, hori bai, super-eskaintza eta super-bonoak ondo ordainduta.

Agur ba, herrietako zineei eta kaleko giroari.

Planaren gainontzeko proposamenek, tamalez martxan dauden hainbat proiektuetaz gain, ez dute beste inolako ekarpenik egiten. Lurraldearen Zatiko Plan hau, tankera honetako esaldiez josita dago: "Ekohiria", "Jasangarritasuna", Ingurumenera ezin hobeto egokitzea", "Ingurumen-kalitate handiko gunea", "Habitat alternatiboa" etab. Hori guztia, promotore gutxi batzuen estalkia besterik ez da, barnean negozio borobila, azkar aberasteko tresna dago. Lotsagarria, aurkeztezina, gehiengoari adar jotze izugarria. Gutxi batzuk jadanik eskuak igurtzen dihardute; guri, berriz, ez digu inongo graziarik egiten.

Ekotxaleta erosiko ez duen gehiengoa osatzen dutenen artekoa baldin bazara, hobe duzu lehenbailehen baselina eskuratzen hastea.

MENDIA BIZIRIK
Bergara

## SOS animaliak

GOIENKARIAra jotzen dut, etxeko eta kaleko animalien aurkako gertakari ikaragarri baten lekuko izan naizelako. Oraingo asteko goiz batean, autoa gelditu nuen ikaraturik katakume bat errepide erdian hilzorian zegoelako. Autotik irten nintzenean, kalearen beheko aldean, beste katakume bat aurkitu nuen egoera berean.

Albaitariarengana jo nuen. Bertan, katakume bat akabatu beharra izan genuen eta autopsiaren erantzunaren zain gaude. Besteari azterketa egin, eta pozoituta zegoela adierazi zidan albaitariak. Egoera hori ikusirik, samindurik geratu nintzen eta gorputz guztia dardarka hasi zitzaidan katakumearen heriotza nolakoa izan zen jabetuta.

Gertakari hauek Arrasateko auzo batean gertatu ziren, beste askotan gertatzen diren bezala. Sarri aurkitzen dira pozoitutako eta bortxakeria erabiliz eraildako katakumeak.

Posible izango litzateke momentu batez pentsatzea eta hausnartzea? Animalien bizitza, berez gogorra izanik, guk heldutasunez akabatzea zuzena al da?

Nik animalien bizitza hobetzeko borrokatuko dut, baina horretarako laguntza behar dut. Arrazoi hauengatik guztiengatik egoera latz honen berri eman nahi diot herritarrei.

YIRA ALONSO
Arrasate

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

*Alkategai guztiek euskaldunak izan beharko lukete hemen?*

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA** Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA** Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
**ADMINISTRAZIOA** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK** Goio Arana (Diseinua) Gotzon Arzelus (Publizitatea)
**PUBLIZITATEA** Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA** Iban Arantzabal
**TESTUEN ZUZENKETA** Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA** Julen Aranguren

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA** Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA** Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

*Podiuma*

# Aitor Zabaleta |AUTO GIDARIA|

**Aitor Zabaleta auto gidaria ezaguna da, ibarrean ez ezik, Debagoienetik kanpo ere. Joan den asteburuan ekin zion denboraldiari, Mendiko Txapelketarako lehen probarekin. Denboraldirako dituen asmoak kontatu dizkigu.**

**Denboraldia San Cosmeko Igoerarekin hasi berri duzu. Zelan joan zen lehen proba?**

Ondo, lehen postuan amaitu nuen. Edozelan ere, izan zen arazorik. Nire lehiakide diren Egozkueren eta Villariñoren autoek nirearena moduko motorra dute, baina autoak arinagoak dira. Federazioari baldintza berberak jartzeko eskatu arren, lehenengo lasterketan ez dute nire eskaria kontuan hartu, eta nor bere autoarekin joan zen. Bidea labaina eta estua izanik, autoa egoki prestatzea zaila da, baina azken lasterketa, garrantzitsuena, lehenengo postuan amaitu nuen, baita errekorra egin ere.

**Iaz, Euskal Herriko Txapelketa lehen postuan amaitu zenuen, ezta?**

Bai, eta aurten ere irabazteko helburuarekin joango naiz. Baina nire nahia da arauak denondako berak izatea, bestela ez dut zer eginik, nire mugetatik kanpo ibili beharko nintzatekeelako eta horrek istripuak izateko arriskua gehituko lukeelako.



GOIENKARIA

Sendo ekin dio aurten ere Zabaletak auto igoerei.

**“Niretako auto lasterketarik politena, duda barik, etxekoa da, Gorlako Igoera”**

**“Pilotu moduan bete barik dudan ametsa Europako Txapelketan parte hartzea da, baina horretarako diru asko eta denbora luzea behar dira”**

**Badago automobilismorako zaletasunik Debagoienean?**

Ni 22 urtean gelditu barik nabil. Garai baten, hamar pilotu bergarar ibili ginen lasterketetan, eta orain ere, jende gaztea badabil. Askorik ez izan arren, Euskal Herriko eta Espainiako lasterketetan dabiltzanak ez dira txarrak.

**Parte hartu duzun probetatik, zein duzu gustukoen?**

Ez da politena, baina oroitzapen onena Castelloko lasterketakoa da. Semea jaiotzear zegoen eta Espainiako txapeldun titulua eskuratu nuen. Politena, berriz, etxekoa, Gorlako Igoera.

**Pilotu moduan betetzeko duzun ametsik badago?**

Europako Txapelketara joateko gogoa dut, baina horretarako diru asko eta denbora luzea behar dira. Babesleekin nahiko zorte ona izan dut, baina maila horretako txapelketa batera joateko oraingo aurrekontua zazpi aldiz biderkatu beharko nuke, eta ezinezkoa da, babesle gehiago lortu ezean.

**Zein da orain arte zure buruari jarri diozun erronkarik handiena?**

Espainiako Txapelketa irabazteko gogoa nuen, eta hamar urtean lau aldiz lortu dut lehen postua, baina ilusio handien azken garaipenak egin dit.

**Autoen esparruan sartu berria den gazte bati zein gomendio emango zenioke?**

Gazte asko dabil autoen esparruan, eta oso azkar, gainera. Lasterketetan parte hartzen hasten direnetik irabaztera iritsi arteko tartea handia dela esango nieke. Eta bide hori egiteko pausoak banan-banan eman behar direla.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Gure Txokoa 1-Aloña Mendi 3 / Bergara 4-Hernani 0 / Aretxabaleta 2-Mundarro 0 / Mutriku 1-Mondra 1

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 3 puntu |
| 2. | Joseba Albizu | (Aloña) | 2 puntu |
| 3. | Andoni Rodríguez | (UDA) | 1 puntu |



**Josu Zubikarai**
Bergara



**Joseba Albizu**
Aloña



**Andoni Rodríguez**
UDA

**Josu Zubikarai**
Gol zaparrada..., eta joko bikaina Bergarak!

**Joseba Albizu**
Aloñaren bigarren garaipena jarraian. Garrantzitsua!

**Andoni Rodríguez**
Zelai erdian joko ezin hobea egin zuen Andonik.

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 13 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara | 12 puntu |
| 3. | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| 4. | Eric García | (UDA) | 9 puntu |
| 5. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 8 puntu |



**Jon Muruamendiaraz**
Mondra



**Gorka San Vicente**
Bergara



**Jon Altzola**
Bergara



**Eric García**
Aretxabaleta



**Josu Zubikarai**
Bergara

Goienkaria

*Kirolaburrak*



## ARETO FUTBOLA/ELGETA

Hastear dago aurtengo Elgetako Areto Futbol Txapelketa. Izena eman nahi duten talde guztiek apirilaren 9ra arteko epea izango dute, Elgetako udaletxera telefonoz deituta (943 76 80 22). Iaz bederatzi taldek hartu zuten parte eta aurten ere parte-hartzaile kopurua berdintsua izango dela uste dute antolatzaileek. Txapelketa apirilaren 12an hasiko da eta ekainaren 28ra arte iraungo du.

Talde bakoitzak izena emateko 30 euro ordaindu beharko ditu eta beste 30 euro berme modura. Txapelketa irabazten duen taldeak trofeoa eta 180 euroko saria jasoko ditu, bigarrenari trofeoarekin batera 90 euro emango dizkiote eta txapelketan golik gehien sartu dituen jokalariak, azkenik, trofeoa eta 60 euroko saria jasoko ditu.

## TXIRRINDULARITZA/DEBAGOIENA

Datorren astean denboraldiko hitzordu garrantzitsuenetariko bat dute txirrindularitza zaletuek. Izan ere, Euskal Herriko Itzulia jokatuko da apirilaren 7a eta 11 bitartean. Aukera polita da errepideetara irten eta munduko txirrindulari onenekin gozatzeko.

Debagoienean txirrindulariak pasatzen ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, lehenengo etapa, astelehenekoa, Legazpin hasi eta Legazpin bertan bukatuko da. Bidean, Antzuolatik, Bergaratik eta Oñatitik pasatuko dira ziklistak. Etapa 14:00etan hasiko dela kontuan hartuta, Antzuola eta Bergarako txirrindularitzazaleak goiz irten beharko dira bizikleta gainekoak animatzera; Oñatitik, aldiz, 16:00ak aldera pasatuko da itzulia.

## BOLOAK/ARRASATE

Arrasateko Udalak bolatoki berria egiteko proiektua onartu du. Lehengo bolatokia zegoen tokian aparkalekuak egin zituztela-eta Santa Marinako Peña Bolisticako kideak arduratuta zeuden. Bolatoki berria Galizia kalean dagoen berdegunean egingo dute. Hamar metro zabal eta 35 metro luze izango da eta inguruan eserlekuak jarriko dituzte.

## PILOTA/BERGARA

Bergarako Udalak araudi berezi bat onartu du frontoia profesional mailako pilota enpresei uzteko era baldintzatuz. Horrela, enpresek pilotalekua doan erabili ahal izango dute, Udala bera arduratuko da-eta ur eta argi gastuak ordaintzeaz. Trukean, ordea, ez dute inolako diru ordainik jasoko. Arrasateko eta Oñatiko udalek ere interesa azaldu dute araudi hori eskuratzeko. Izan ere, uste dute egokiena dela herri guztiek pilotalekuen gaineko araudi bateratua kaleratzea.

## TXIRRINDULARITZA/BERGARA

Gorlarako Igoera jokatu zen joan den domekan Bergan. 29. aldia bete zuen probak, eta errepideko ibilbidea egin eta Gorlara igotzen lehena Jokin Ormaetxea txirrindulari azkoitiarra izan zen. Debagoieneko azkarrena, berriz, Debabarrena taldean dihardduen Xabier Aranguren elgetarra izan zen.



**Eskaintza bereziak lanparetan, zaharberritze lanengatik**

**Elektragailuak / TB / Hi-Fi / Beep Informatika**

**MILAR ELKORO**

**Olarte 1**
**ARRASATE**
**Tel.: 943 79 18 86**
**Faxa: 943 77 09 36**

APIRILAREN 1ETIK aurrera

EUSKAL HERRIAK ZURE SINADURA BEHAR DU!

AuB Autodeterminaziorako Bilgunea

GIPUZKOAKO UDAL IDAZKARITZA GUZTIETAN eta NOTARITZETAN

**BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA**
Roberto Rafael Oliver Puertolas (Notaritza)
Ibargarai 20 • BERGARA
Ordutegia: 10:00–13:00 //16:00–17:30>>>943 76 10 73

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEAK
948 21 36 01 www.aubilgunea.org
DIRU LAGUNTZA
BANCO DE VASCONIA 0095 4638 17 0600206470

FAXISMOARI ESAN OZENKI 50.000 BAIETZ!


e-debagoiena
ETORKIZUNA HURBILTZEKO
TE ACERCAMOS EL FUTURO
"e-administrazioa proiektuak erraztasun ugari ekarriko dizkio herritarrari. Ordenagailu bidez Udalarekin harremanetan izango gara"
"e-debagoiena barruan dauden proiektuetarako dirulaguntza bila ari gara une honetan"
Sabin Fernandez
MUko ikerketa zuzendaria
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Euskaltel
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA







Zatoz!

Gure erakusketa ikustera gonbidatzen zaitugu



BERGARAKO INDUSTRIALDEA
Telleria 23-Pab. D5
Tel.: 943 76 98 30•Faxa: 943 76 52 44
BERGARA

PROYECTO - DECORACIÓN
Ipar project, s.l.
COCINAS - BAÑOS - CERÁMICA




GOEINKARIA
Kataideko industrialdean hainbat urte egon ondoren, iazko irailean joan zen Araneta Labegaraietara.

■ INSTALACIONES ARANETA

# Su-itzalgailuekin ISO 9002 jaso dute

**Duela 27 urte sortu zen Instalaciones Araneta. Martin Ormazabal eta Jose Antonio Aperribai izan ziren sortzaileak. Kataideko Industrialdean hainbat urte igaro ondoren, 2002ko irailean joan ziren Labegaraietara. Industriarako eta suteen aurkako instalazioak egitera dedikatzen dira.** /A.A.

Instalaciones Aranetak orain dela 27 urte ekin zion ibilbideari, baina Ormazabal izenarekin. Enpresaren sortzaileak Martin Ormazabal eta Jose Antonio Aperribai izan ziren. Hasieran iturgindegia zen, baina, urteak pasatu ahala, zerbitzu gehiago jarri dituzte.

Gaur egun, industriarako eta suteen aurkako instalazioak egiten dituzte, eta hamabi langile inguru ditu enpresak. Suteen aurkako sistemen arduradunak Roberto Rodríguez eta Jesus Ostolaza dira; eta instalazio industrialen arduradunak, berriz, Jose Antonio Aperribai eta Aniotz Gabilondo.

Bezero gehienak Debarroan dituzte, baina galdategiko hareazko moldeak margotzeko makinak mundu osoan zehar saltzen dituzte. Instalazio industrialetako bezeroak lantegi txikiak, Copreci, Fagor, Ulma, Alejandro Altuna... eta beste hainbat dira. Suteen aurkako sistemen bezeroak, aldiz, garajeak, atalondoak, enpresa txikiak eta ertainak, eta abar.

Kataideko Industrialdean hainbat urte eman ondoren, 2002ko irailean Labegaraietako Industrialdera joan ziren. Aranetakoek jakinarazi digutenez, Kataideko pabilioi zaharretik Labegaraietakora alde handia dago. Lehengo eta oraingo lan jarduna bera da, baina pabilioi berriak leku handiagoa dauka, eta, era berean, lanerako hobeto hornituta dago.

**PRODUKTU ETA ZERBITZUEN ESKAINTZA ZABALA**

Alde batetik, suteen aurkako hainbat sistemen salmenta, instalazio eta mantentze lanak eskaintzen dituzte. Sistema horien artean, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantzako Departamentuak honako hiru espezialitate hauek ziurtatu ditu: suteen aurkako babes instalatzailea, suteen aurkako babes mantentzailea eta su-itzalgailuen salmenta eta mantentze lanak. Azken zerbitzu horrekin BVQi-k ziurtatutako ISO 9002 lortu dute.

Bestalde, aire konprimatuaren trataera eta instalazioak ere eskaintzen dituzte. Horien artean, presiozko ontzi instalatzailea Jaurlaritzak ziurtatuta dago.

Ponpen salmenta, instalazio eta mantentze lanak ere egiten dituzte. Gainera, ponpa arruntenen *stock*-a eta 24-48 ordu bitarteko entrega zerbitzua dute.

Beste instalakuntza batzuk dira: berogailu industrialak, ur gainberotuzko galdarak, gas industrialak, hozteko dorreak...

ARANETA S.L.

**INSTALACIONES ARANETA**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 77 04 95**
- **Faxa: 943 71 18 02**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Web: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 6 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**



AMAIA ARANBURUZABALA
Bial Mekanizazioak enpresako arduradun bat CNC makina berriarekin lanean.

■ BIAL MEKANIZAZIOAK

# Enpresa ugariri erantzuteko gertu

**Bial Mekanizazioak bi anaiak sortutako enpresa dugu, Patxi eta Iñaki Altzibarrek, hain zuzen ere. 1999an sortu zuten, eta 2002ko ekainean kokatu ziren Bergarako Labegaraietako Industrialdean. Hain zuzen, edozein motatako pieza arrunten mekanizatuak egiten dituzte bertan.** /A.A.

Bial Mekanizazioak nahiko enpresa berria da, 1999ko uztailean sortu zuten-eta. Hasieran, Bergarako San Lorentzoko Industrialdean kokatu ziren. Bi anaiak sortutako enpresa da, Patxi eta Iñaki Altzibarrek, hain zuzen ere. Altzibar anaiak dira, era berean, Bial Mekanizazioetako lan jardunaz arduratzen direnak.

Bergarako Labegaraietako Industrialde berrian 2002ko ekainean kokatu ziren. Patxi Altzibarrek esan digunez, aldaketa nabarmena dago San Lorentzoko pabilioitik Labegaraietakora: "San Lorentzoko pabilioia oso zaharkiturik zegoen eta, gainera, ez zen geurea. Bestalde, espazio aldetik ere askoz txikiagoa zen. Gainera, beste enpresa berri batzuekin zuzenean harremana izateko aukera ematen digu".

Edozein motatako pieza arrunten mekanizatuak egiten dituzte. Baina, betiere, plano batez baliatuz. Horrez gain, ordezko piezak eta edozein pieza egin ahal izateko tresnak egiten dituzte.

Bezeroei dagokienez, normalean Bergaraldeko eta Debagoienako bezeroen eskariei erantzuten diete: "Behin edo behin Bizkaiko lantegiren batendako ere egin izan dugu lan; baina Debagoineako enpresekin nahiko lan daukagula pentsatzen dut, ez daukagu kanpora lan bila joateko beharrik", esan digu Patxi Altzibarrek. Hortaz, beste enpresa batzuendako egiten dute lan. Momentu honetan zortzi enpresarendako ari dira lanean, baina beti ez diete bezero berei erantzuten: "Ez dugu beti enpresa berendako lan egiten; edozein enpresaren eskariari erantzuteko ahalmen handia eskaintzen dugu", gaineratu digu Altzibarrek.

Orokorrean erabiltzen duten materialak burdina, altzairua eta plastikoa dira; baina, batez ere, burdina.

**MAKINA BERRIA: CONDIA, B 1050**

Euren lana egiteko fresatzeko makina konbentzionalak erabili izan dituzte orain arte. Baina industrialde berrian kokatzean, betiko makinak erabiltzeaz bat, CNC makina (zenbaki kontroldun makina) bat erostea erabaki dute: Condia, B 1050. Makina berri horrek azkartasuna eta zehaztasuna ematen die, baita pieza mota gehiago egiteko aukera ere; izan ere, pieza konbentzionalez gainera, kurbatura dutenak ere egin ditzakete.

BIAL MEKANIZAZIOAK, S.L.L.

**BIAL MEKANIZAZIOAK**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 76 09 72**
- **Faxa: 943 76 09 72**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Web: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 19 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**




MIREIA LARRAÑAGA

Azkar enpresa urtarrilean kokatu zen Bergarako Labegaraietako Industrialdean.

■ AZKAR

# Edozein enpresari zerbitzatzeko gai

**Azkar 1933an sortu zen, Lazkaon. Urteen joanak errotutako enpresa honek Euskal Herritik nazioarte mailara hedatzea lortu du. Funtsean, zerbitzu-enpresa da, eta Debarroko enpresei zerbitzu hobea eskaintzeko jarri dute egoitza berri bat Bergarako Industrialdean.** /A.A.

Azkar, gaur egun, nazioarte mailara hedatuta dagoen arren, enpresa bezala Lazkaon sortu zen, 1933an. Aurtengo urtarrilean egoitza berri bat zabaldu dute Labegaraietako Industrialdean.

Hainbat gauza egiteaz arduratzen dira, baina funtsean zerbitzu-enpresa da. Sortu zen egunetik, Azkar enpresaren lanbidea enpresa konkretuei lehengaiak eramatea eta haien produktuak bezeroei entregatzea izan da. Gaur egun, zerbitzu horiez gain, beste batzuk ere eskaintzen dituzte: enpresen produktuak biltegiratzeko aukera, eta eskaeren prestakuntza; beste modu batera esanda, biltegi bat logistikoki kudeatzen dute. "Enpresendako oso garestia da produktuendako biltegi bat edukitzea, biltegia hutsik egon arren, bertako gastuak ordaindu egin behar direlako. Hori ikusita, guk behar hori asetzea erabaki genuen, eta produktuek gure biltegian irauten duten denborari dagokiona bakarrik ordaintzen digute", esan digu Mikel Estala Bergarako egoitzako arduradunak.

### URTEEN JOANAK ERROTUTAKO ENPRESA

Urte askotako lan eta esperientziaren ondorioz, Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko enpresei erantzutea lortu dute. "Gure kamioietan sar daitezkeen produktuak dituzten edozein enpresari zerbitzatzen diogu", esan digu Estalak. Euskal Herrian, bost delegazio eta sei biltegi logistiko dituzte. "Estatuan, Euskal Herrikoak barne, 59 delegazio eta 40 biltegi logistiko ditugu", adierazi digu arduradunak. Frantziara, Herbehereetara, Erresuma Batura, Italiara eta Portugalera daukate hedatuta euren zerbitzua. Gainera, bezeroek euren produktuaren egoera jakin nahi badute, Interneten kontsultatzeko aukera dute.

Zerbitzu horiei guztiei erantzuteko, 3.000 langile dituzte Espainian, eta konkretuki Lazkao eta Bergara artean, 60.

Debarroko enpresei zerbitzu hobea eskaintzeko jarri dute egoitza berri bat Bergaran, gertutasuna oso garrantzitsua da-eta mota horretako lanetarako.

Lan egiteko moduagatik, Aenor-en eskutik jasotako kalitatezko ziurtagiria du Azkar enpresak. Horrez gainera, orain dela hiru urtez gero Azkar enpresak burtsan kotizatzen du. "Hortaz, Azkar ondo finkatutako enpresa fidagarria da", diosku Mikel Estelak.

azkar

**AZKAR**

**HARREMANETARAKO**
- **Telefonoa: 943 76 93 55**
- **Faxa: 943 76 92 64**
- **Posta-e: info@lazkao.azkar.es**
- **Webgunea: http: www.azkar.es**
- **Helbidea: Telleria 8 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**



AMAIA ARANBURUZABALA

Jesus Arriaran Egia, Arri Industri Horniduretako arduraduna, materiala txukuntzen.

■ ARRI INDUSTRI HORNIDURAK

# Industri horniketan nahi duzun guztia

**Arri Industri Hornidurak enpresa orain dela lau urte sortu zuten; baina Labegaraietako Industrialdera 2002ko abuztuan joan zen. Industrian erabilgarriak diren hainbat motatako materiala saltzen dute. Horrez gain, leku aldaketarekin batera, latigilloak egiteko makineria erosi dute.** /A.A.

Nahiko enpresa berria dugu Arri Industri Hornidurak. Izan ere, orain dela lau urte inguru sortu zen. Hasieran, Bergarako Zubiaurre auzoan kokatuta zegoen, baina 2002ko abuztuan Labegaraietako Industrialdera joan ziren. Enpresako arduradun nagusia Jesus Arriaran Egia da, baina beste langile batek ere badihardu bertan lanean.

Industri hornikuntza saltzera dedikatzen dira, hau da, lanerako tresneria, arropak eta oinetakoak dituzte salgai. "Industriaren alorrean erabilgarriak diren mota askotariko materiala aurki dezakezue bertan: mota guztietako bihurkinak, erreminta kaxak, entxufe azkarrak, txamarrak, eskularruak, katiuskak... Ia denetik daukagu, eta, gainera, nahiko prezio merkean".

Enpresako bezero gehienak Debagoienean kokatutako lantegietako langileak dira. Hala ere, bezero partikularrak ere joaten dira material bila.

Industrialdera joateak abantaila handiak ekarri dizkiela esan digu Jesus Arriaranek: "Abantailarik handiena espaziozabaltasuna izan da. Zubiaurreko lehenagoko pabilioiak 100 metro koadro zituen, eta Labegaraietako pabilioiak, berriz, 200 metro koadro inguru ditu. Horrela, pabilioi berriak material gehiago sartzeko aukera ematen digu. Beste abantaila bat bezeroen ugaritzea izan da. Industrialdean beste hamaika enpresaz inguratuta gaude, eta gertutasuna dela medio, bertako langileak hona etortzen dira lanerako material bila. Industri hornidurak saltzeko nahiko leku estrategikoa dela esan daiteke".

Horrez gainera, espazio zabala zutela eta latigilloak egiteko makineria erostea erabaki zuten.

### LATIGILLOAK EGITEKO MAKINERIA BERRIA

Hain zuzen, enpresako azken berritasuna dugu latigilloak egiteko makineria. Ibilgailu guztiek dituzte latigilloak; hortaz, bezero ugari ekarri dizkie lan jarduera berri horrek.

Mota askotako latigilloak daude: besteak beste, hidraulikoak, oliozkoak eta haizezkoak. Eta ibilgailu motaren arabera, hainbat tamainatakoak. Arri Industri Horniduretan mota guztietakoak egiten dituzte, eta horretarako bi aparailu dituzte: tutu malguak moztekoa eta tutuaren puntetan zorroak jartzekoa.

ARRI

**ARRI INDUSTRI HORNIDURAK**

**HARREMANETARAKO**
- **Telefonoa: 943 76 19 04-656 78 64 84**
- **Faxa: 943 76 43 03**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Webguneaa: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 2 bis Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**


ERRASMODEL
Modeloak, moldeak eta prototipoak egiteko zortzi metroko CNC makina alemana.

■ ERRASMODEL

# Teknologia zehatz eta bizkorra dute

**Errasmodel 2002ko abenduan sortu zen, baina bertako langileek urte gehiago daramatzate mota horretako lanetan. Modeloak, moldeak, prototipoak eta ingeniaritza zerbitzuak egitera dedikatzen dira, eta oso teknologia modernoa darabilte. Richard Errasti da gerentea.** /A.A.

Aurreko urteko abenduan sortu zen Errasmodel, eta lehenengo pausoak Labegaraietako Industrialdeko pabilioietan eman ditu; hortaz, enpresa berri-berria dugu. Hala ere, bertako langileek urte askotako esperientzia dute sektore horretan. Lau langile ditu momentu honetan enpresak, baina aurrerago jende gehiago hartzeko asmoa dute.

Enpresa modeloak, moldeak, prototipoak eta ingeniaritza zerbitzuak egitera dedikatzen da.

Edozein motatako modelo, molde eta prototipoak egiten dituzte. Horretarako, CNC makina bat (zenbakizko kontroldun makina) dute. Horrela, bada, bezeroek nahi dutenaren planoa bidali (bi edo hiru dimentsiotako planoak), eta eurek datu horiek ordenagailuan sartzen dituzte. Ordenagailuko datuak agindu bihurtzen dira makinarendako, eta zuzenean aukeratutako materialaren gainean, eskatutako molde, modelo edo prototipoa egiten du makinak. Bukaeran, pieza horiek pixka bat lixatzen dituzte, ertzak txukun gera daitezen. "Orain arte, batez ere, makina-ermeminten eta automoziorako trokelen modeloak egin ditugu; baina gure lan jarduna eskariaren araberakoa da", esan digu Richard Errasti gerenteak.

Bestalde, ingeniaritza zerbitzuari dagokionez, CAD/CAM programekin dihardute lanean.

Materialari dagokionez, poliestirenoa, egurra eta pasta masterra erabiltzen dituzte; eta hiru horien artean, batik bat, poliestirenoa.

Errasmodel-en bezeroak trokeleriak, galdategiak, eta makina-erremintak nahiz prototipoak egiten dituzten enpresak dira. "Gure bezeroak Euskal Herrian eta atzerrian hedatuta daude. Eta Alemaniatik eskari asko jasotzen ditugu".

### TEKNOLOGIA MODERNOENA ERABILTZEN DUTE

Teknologia modernoena eskaintzen die bezeroei: oso berria, zehatza eta bizkorra. Ordenagailuek software aurreratuenak dituzte, eta bi eta hiru dimentsiotako lanak egiteko zehaztasun handia eskaintzen dute. Zortzi metroko CNC makina aleman bat daukate, eta pieza handiak lantzeko aukera ematen die. Era berean, Labegaraietako Industrialdeko pabilioiak eskaintzen dien espazio-zabaltasuna euren lanerako oso lagungarria dela esan digu Richard Errastik.

ERRASMODEL S.L.L.
Modeloak, Prototipoak, CAD-CAM ingeniaritza zerbitzuak

**ERRASMODEL**

**HARREMANETARAKO**
- **Telefonoa: 943 76 34 41**
- **Faxa: 943 76 09 73**
- **Posta-e: e@errasmodel.com**
- **Webgunea: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 23 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**


MIREIA LARRAÑAGA
2000ko irailean kokatu zen Mecanizados Axpe Bergarako Labegaraietako Industrialdean.

■ MECANIZADOS AXPE

# Mekanizazioak egiten, 33 urte

**Axpe enpresakoek zenbakizko kontroldun makinak (CNC), zentro mekanizatuak eta tornu eta fresatzeko makina konbentzionalekin egin daitezkeen mota guztietako piezen mekanizazioak eskaintzen dituzte. Gainera, urte askotako esperientzia dute lanbide honetan.** /A.A.

2000ko irailean sortu eta kokatu zen Mecanizados Axpe enpresa Labegaraietako Industrialdean. Edozelan ere, enpresako langileek urte askotako esperientzia dute, Jose Luis Axpe, enpresako gerentea, 1970a ezkero ibili da-eta lanbide honetan.

Piezen mekanizazioak egitera dedikatzen dira Axpe lantegikoak. Eskaintza zabala dute: zenbakizko kontroldun makinak (CNC), zentro mekanizatuak eta tornu eta fresatzeko makina konbentzionalekin egin daitezkeen edozein motatako piezen mekanizazioak jartzen dizkie eskuragarri bezeroei. Euren lanaren oinarrian planoa dago, hau da, lan guztia bezeroak bidalitako piezaren planoaren arabera egiten dute. Sei langile ditu enpresak eta, oraingoz, horrela jarraitzeko asmoa dutela esan digu Axpeko gerenteak: "Orain dela gutxi hartu dugu jende berria, eta orain oso ondo moldatzen gara seiok; bezeroen eskariei ongi erantzuteko gauza gara".

Mecanizados Axpe enpresako bezero gehienak Bergara ingurukoak izan arren, Debarroko beste zenbait enpresaren eskariei ere erantzuten diete. Horren ildotik, honako hau esan digu Jose Luis Axpek: "Piezen mekanizazioak egin nahi dituen edozein enpresari zerbitzatzeko gertu gaude; nahi duena jar dadila gurekin harremanetan, ateak zabalik ditugu".

### LANERAKO MAKINA BERRIAK DITUZTE

Industrialdeko pabilioiaren espazio zabaltasunak makina berriak jartzeko aukera eman die. Orain, piezen mekanizazioak egiteko zortzi makina dituzte. Makina konbentzionalei dagokienez, fresatzeko makina bi eta hiru tornu dituzte.

Teknologia berriei dagokionez, zenbakizko kontroldun (CNC) tornu bi ezarri dituzte. Batek 260 milimetroko diametroa eta 600 milimetroko luzera du eta, horrez gainera, piezak seriean egiteko barra-eramailea dauka. Eta besteak 360 milimetroko diametroa eta 1.000 milimetroko luzera du. Zentro mekanizatua ere badaukate, eta lau ardatz ditu: X= 600 milimetro; Y= 500 milimetro; Z= 500 milimetro; eta A= tresna banatzailearekin hornituta dago.

Makina berriei esker bezeroei hobeto erantzuten diete: bizkortasuna, kalitatea eta serie-fabrikazio maila txikia, ertaina eta handia eskaintzen dute. Aurtengo proiektu berria ISO 9001 lortzea da.

axpe MEKANIZATUAK

**AXPE MEKANIZATUAK**

**HARREMANETARAKO**
- **Telefonoa: 943 76 58 02**
- **Faxa: 943 76 58 02**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Web: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 19- B6 pabilioia Labegaraietako Industr. / BERGARA**

■ INDUSTRIALDEAK EGITASMOA, 1982TIK GAUR EGUNERA

# Industrialdeak, 21 urte EAEn aberastasuna sortzen

LEIRE KORTABARRIA

**Gaur egun industrialdeak gure hiri eta herrietako paisaiako elementu bat gehiago dira. Hala ere, orain dela 21 urte, lehenengoa eraiki zenean –Oñatin, hain zuzen ere–, iraultza handia ekarri zuen EAEko ekonomia eta industria esparruetan.**

Debagoienean hasi zen industrialdeen fenomenoa, 1982an. Oñatin, hain zuzen, eraiki zuten Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo industrialdea. Bigarrena ere gure ibarrean eratu zen, Aretxabaletan, hain zuzen ere, 1982ko abenduan. Gerora, Debagoienean beste lau industrialde egin dituzte, eta beste bat eraikitzen dabiltza orain.

Baina Debagoienean bakarrik ez, Autonomia Erkidego osoan industrialdeek ekonomia, industria eta enpresa esparruak biziberritu dituzte.

**LEHENENGOA, OÑATIN**

Industrialdeak egitasmoa 80ko hamarkadan jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak. Egitasmoaren arrakasta ulertzeko, kontuan hartu behar da ekonomia eta industria krisialdi sakonean zeudela.

1981ean, Jaurlaritzak SPRI Industri Promozio eta Birmoldaketarako Elkartea sortu zuen. Era berean, Europako hainbat herrialdetan abian zeuden industria sustapenerako egitasmoak aztertu zituen Jaurlaritzak. Urrats horien guztien emaitza Industrialdeak programa izan zen. Galesen abian zegoen industria garapen egitasmo baten isla moduan eratu zen EAEko lehenengo Industrialdea elkartea, Oñatiko Industrialdea. Hainbat erakunde publikoren parte hartzearekin sortu zen lehenengo elkarte hura, eta erakundeen esku-hartzea arrakastaren giltzetako bat izango zen.

Debagoienaz gain, Gipuzkoa osoa eta EAEko beste bi lurraldeetan ere hasi zen ezartzen Industrialdeak egitasmoa: 1984an Laudioko Industrialdea sortu zen, eta han arkitektura-ondarea gordetzeko helburua gehitu zitzaion Industrialdeak programari. Bizkaiari dagokionez, siderometalurgia eta ontzi-industria ordezkatzeko ekimen berriak behar ziren, eta Bizkaiko ekonomiak behar zuen oxigenoa eraman zuen programa berriak. 1985ean sortu zen lurralde horretako lehenengo poligonoa, Abanto-Zierbenan, hain justu ere.

Bai Araban bai eta Bizkaian ere Foru Aldundiek eta inplikatutako herrietako udalek bat egin zuten egitasmoarekin, Gipuzkoan gertatu zen modu berean.

**SPRILUR ELKARTEAREN SORRERA**

Egitasmoaren helburuak zabaldu egin ziren 90eko hamarkadan. Lurzoru eta Eraikuntza Departamentua sortu zen, enpresei lur eremuak eta eraikinak eskaintzeko. 1992a urte esanguratsua izan zen, orduan eraiki zituzten eta Lazkaoko Industria Lurra eta Azpeitiko Industria Lurra. Industrialdeekiko aldea zen euren helburua zela ez bakarrik pabilioiak sortzea, baita urbanizatutako lur eremuak sortzea ere.

1995a izan zen, ordea, urte esanguratsuena Industrialdeak egitasmoan: Sprilur Elkarte Anonimoa sortu zen, ordura arte Jaurlaritzak aurrera eramandako industria gestio ekintza guztiak bateratzeko helburuarekin.

**AZKEN URTEAK**

90eko hamarkada bukaeratik aurrera Industrialdeak guztiz errotuta daude euskal ekonomian. 2002ra arte Industrialdeak egitasmoak eta Sprilurrek euren ekintzak dibertsifikatu dituzte: poligono industrial berriak sortu, bertan behera geratutako guneak birmoldatu eta industriarendako berreskuratu, zoru industrialeko kutsadura garbitu, eta Mercedes-Benz, Saunier Duval eta Daewooko lantegiei ezartzen lagundu. Gaur egun aberastasuna sortzen jarraitzen du Industrialdeak programak.



LEIRE KORTABARRIA

Oñatiko Berezao auzoko poligonoa izan zen inoiz egindako lehenengo Industrialdea. 1982an egin zuten.

**Lehenengo industrialdea Oñatin sortu zen eta bigarrena, Aretxabaletan**

**80ko krisialdi ekonomikoari aurre egiteko formula izan ziren industrialdeak**

**1995erako 37 Industrialde zeuden EAEn eta horietan, 358 enpresa**

**Erakunde publikoen parte-hartzea arrakastaren gako bat izan da**

## 15.000 LANGILETIK GORA

**Orain dela 21 urte, Industrialdeak egitasmoa sortu zenean, zalantzak ziren nagusi. Urteen poderioz, formula hori guztiz finkatu da, eta horren argibide moduan honako kopuruak aipa ditzakegu: 1995aren hasieran 37 industrialde zeuden abian EAEn; guztira, 358 enpresa zeuden gune horietan –erdia, sortu berriak–, eta 4.500 langile. 2002an 48 ziren erakunde publikoek industria sustatzeko egindako ekintzak. 1.300 enpresatik eta 15.000 langiletik gora dira Industrialdeak egitasmoaren onuradun. Gizarte-kapitala 109 milioi eurokoa da. Inbertsio guztiak 385 milioi eurotik gorakoak dira, eta sei milioi m² lur kudeatu dira.**

## DEBAGOIENA, AITZINDARI

**Debagoienean sortu ziren lehenengo bi industrialdeak, Oñatin eta Aretxabaletan, hain zuzen ere. Sprilurrek dioenez, elkarte horiek izan ziren EAEko hurrengo industrialdeak sortzeko eredu. Adibidez, orduan konturatu zen Jaurlaritza egitasmoaren arrakastaren klabe batez: "Erakunde publikoak lehenengo momentutik inplikatu izana oso garrantzitsua izan zen", dio Sprilur elkarteak, eta hori Debagoieneko esperientzietan ikusi zen. Lehenengo industrialdea Oñatin eratu zen, 1982an, elkarte anonimo formularekin; hango bazkide ziren SPRI elkartea, Oñatiko Udala, Debagoieneko Mankomunitatea eta Gipuzkoako Foru Aldundia.**

## EUSKAL INDUSTRIA ERABERRITU

**Industrialdeak egitasmoa abian jarri zenean, krisialdi ekonomikoa zen nagusi mundu osoan. Sprilurrek dioenez, "egitasmo hori euskal industriaren eraberritzean faktore erabakigarria izan zen".**

**Izan ere, 21 urte hauetan egitamuak enpresa berriak sortzen eta bazeudenak garatzen lagundu du, aldez aurretik urbanizatutako eta bereziki industriarako egokitutako poligonoetan kokapena eskainiaz. "Tamaina txiki eta ertaineko enpresa askok egitasmo horren bidez lortu dituzte euren jarduera finkatu, lanpostuak sortu eta lehiakortasuna hobetzeko behar zituzten tresnak", dio Sprilur elkarteak.**


Altuna
BASERRIKO TRESNEN SALMENTA ETA KONPONKETA
HONDA
VIKING
BELARRA MOZTEKO MAKINA
Jonsered motozerretan
eskaintza berezia
198 eurorainoko
deskontua
eskaintza
berezia
HONDA
VIKING
YANMAR
MOTOAITZURRA
STIHL
JONSEREDED
SASI-GARBITZEKO MAKINA
MOTOZERRA
HONDA
SORGAILUAK
ALFA
RAPID
SEP
SEGA MAKINA
Altuna
BERGARAKO INDUSTRIALDEA • TELLERIA • 17 PAB•AO1-A02-A03 •
BERGARA • TEL./FAX: 943 76 12 11
STIHL®
Jonsered
HONDA
POWER PRODUCTS
YANMAR
VIKING
ANTONIO CARRARO
MECCANICA BENASSI
BJR
TRAKTOREAK
ALFA
Rapid
S.E.P.

DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Debagoieneko ekintzaile
eta ekimen ekonomikoen
zerbitzura.

Pabilioi industrialak
eta bulegoak
zure enpresa kokatzeko.

Telefonoa **943 79 62 80**
Faxa **943 79 76 19**
Posta elektronikoa **debagoiena@industrialdea.spri.es**

BERGARAKO
# INDUSTRIALDEA
Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a / GOIENKARIAren gehigarri berezia

# Geroari eutsiz
## Lehengo labegaraietan, industrialde berria




ENEKO AZKARATE


COMERCIAL BRUNET




LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEA

Zatoz Debagoieneko erakustoki handiena ikustera

Galde egiguzu sustapen bereziez

Telleria 2, Labegaraieta industrialdea
BERGARA
943 76 31 52






GKN Automotive

GKN Lazpiur SL

Doitasunezko
forjendako
tresneria

Telleria kalea 15
20570 BERGARA

Tel.: 943 76 93 49
Faxa: 943 76 92 69

■ DEBAGOIENEKO INDUSTRIALDEA

# Ibarreko industrialdeek bat eginda dihardute lanean

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Debagoieneko Industrialdea, izenak berak argi adierazten duen moduan, ibarreko industrialdeak batzen dituen elkartea da. Oñatin hasi zuen ibilbidea, 1982an, eta pixkanaka, ibarreko industriagune guztiek egingo dute bat taldean.**

**1982AN SORTUTAKO PROIEKTUA**

Oñatiko Industrialdea izan zen ibarreko lehena. 1982ko otsailean ekin zion bideari, eta urtetako lanaren ostean, 2001eko urriaren 5ean Aretxabaletako eta Bergarako industrialdeekin bat egin eta Debagoieneko Industrialdea elkartea sortu zen. Gaur egun, SPRIk, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko udalek osatzen dute Debagoieneko Industrialdea S.A. enpresa. “Aurrerantzean, Antzuola, Arrasate, Elgeta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako udalekin bat egiteko eta lan eremua ibar osora zabaltzeko asmoa dago. Izan ere, herri horietan industriaguneak badauden arren, ez dute industrialderik osatzen”, esan digu Koldo Azkoitiak, orain arte Debagoieneko Industrialdea S.A. enpresako gerente izan denak.

Elkartea sortzearekin batera, beste helburu bat zehaztu zuten: Debagoienean industria ekimenak eta inbertsioak bultzatzea eta enplegua sortzea, hain zuzen ere. Horretarako, batetik, lur industrialaren urbanizazio planak jarriko dituzte abian; bestetik, pabiloi industrialak eraikitzea da elkarteko arduradunen asmoa.

**HIRU INDUSTRIALDE NAGUSI**

Debagoieneko hiru industrialde nagusiak, hortaz, Oñatin, Aretxabaletan eta Bergaran daude kokatuta.

Oñatin, Berezao, Zubillaga eta Oxiñurdineko industriaguneetan banatuta, 40 enpresa baino gehiago daude eta 280 langile inguruk dihardute lanean.

Bergarako Industrialdea Labegaraietan dago kokatuta, eta 350 enplegu daude, 35 lantegitan.

Aretxabaletako Industrialdeak, berriz, gain hartzen die horiei biei; izan ere, Basabeko eta Bainuetxeko industriaguneek betetzen dituzten 90.615 $m^2$-etan, 76 enpresa daude, eta berauetan, 880 langile baino gehiago dabiltza.




ENEKO AZKARATE

Oñati, Bergara eta Aretxabaletako industrialdeek osatzen dute ibarreko elkartea. Argazkian, Bergarako Labegaraietakoa.

**1982an sortu zen Debagoieneko lehen industrialdea, Oñatin**

**Oñati, Bergara eta Aretxabaletako industrialdeek osatzen dute ibarreko elkartea**

**Arrasaten, Markuleteko industriagunea egin dute, elkartea ibarrera zabalduta**

**Industria jardueretako enpresak dira nagusi Debagoienean**

Debagoieneko gainerako herrietan lantegiak industriaguneetan kokatzen diren arren, gune horien kudeaketa ez du Debagoieneko Industrialdea S.A. enpresak egiten.

**ARRASATE ETA LEINTZ GATZAGA**

Debagoieneko Industrialdea S.A. enpresak lan eremua zabaldu nahi duela aipatu da lehenago, eta bide berri horri ekiteko Arrasaten Markuleteko industriagunea eraiki dute. Ia 18.490 $m^2$ dituen industria esparru horretan enpresa bi daude gaur egun. Bada, asmoa da Arrasateko Udala ere elkarteko kide egitea, arduradunen esanetan.

Bestalde, Leintz Gatzagako erdialdean, XVIII. mendeko eraikin bat berritu eta bertan bulegoak egitea da enpresa horren beste egitasmoetako bat. Eraikinak dituen 800 $m^2$-etan, teknologia berriekin zerikusia duten enpresei lekua egingo diete.

Koldo Azkoitiari Debagoieneko enpresetan zein arlo den nagusi galdetuta, zera erantzun digu: “Denetariko enpresak daude, baina guk lehentasuna industria jardueretan dabiltzanei ematen diegu. Hala ere, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak ez dira falta gure industrialdeetan. Horiek, batez ere, arrazoi urbanistikoengatik kokatu dira bertan”.

Industrialdeak, hortaz, elkartuta dabiltza lanean ibarrean, enplegua eta industria ekimenak sustatuta. Etorkizunerako asmo nagusien artean elkarteak ibar izaera hartzea dago, eta horretarako, falta diren herriak elkartean sartu nahi dituzte, udalei akzioen salmenta proposatuta.

## GERENTE BERRIA

**Koldo Azkoitiak Koldo Pereirari pasatu dio lekukoa berriki, eta hemendik aurrera bergarar horrek jardungo du Debagoieneko Industrialdea S.A.ko gerente lanetan.**

**Hasiberria den honetan, Aretxabaletako eta Arrasateko industriaguneak egokitzea dira enpresaren helburu nagusiak. Bergaran, berriz, Labegaraietako industriagunea amaitzear dago, eta gero, San Juanen hasiko dira lanean. Esparru hartan, bi gune izango dira: pribatua bata, eraikitzen ari direna, eta Debagoieneko industrialdea S.A.k gestionatuko duena, bestea. Zati horretan zer egin dezaketen erabakitzen ari dira oraindik, Koldo Pereirak esan digunez.**

## POLIGONOTIK INDUSTRIALDERA

**Industrialdeak eta poligono industrial moduan ezagutzen ditugun guneak ez dira gauza bera, bata bestearen osagarriak baizik.**

**Industrialdeak elkarte anonimoak dira eta industria jardueraren garapena dute helburu. Horretarako, industriaguneetan lurra kudeatzeaz, proiektu berriak prestatzeaz eta pabiloiak eraikitzeaz arduratzen dira industrialdeak. Horren ondoren, lantegiak enpresarien esku jarri eta bere bideari jarraitzen diote, nork bere alorrean.**

**Horrela, bada, industrialde bakoitzak industriagune bat baino gehiago izan ditzake, herriko edo ibarreko hainbat txokotan.**

## MEKANIZATUAK, NAGUSI

**Debagoieneko Industrialdea S.A. enpresak Aretxabaletako, Bergarako eta Oñatiko industriaguneak kudeatzen ditu.**

**Aretxabaletako Basabe gunean, informatikarekin zerikusia duten enpresak dira, kopuruari dagokionez, nagusi. Oñatiri dagokionez, berriz, Zubillagan, mekanizatuetan diharduten lantegiak dira gehien. Bergaran ere, egoera berdintsua da, Labegaraietan mekanizatuak dira-eta enpresa gehienetako lan jarduna. Edozelan ere, kontuan hartu behar da era askotariko mekanizatuak daudela. Bestalde, gainerako lantegien eginkizuna ikusita alor askotako enpresak daudela garbi geratzen da.**




KIÑU ARGAZKI DENDA

Comercial Brunet-eko tresneria ondo ikusteko, izugarrizko erakusleihoa jarri dute.

■ COMERCIAL BRUNET

# Tresna berriak ortu eta loratgietarako

**Brunet enpresa baratzeetarako, basoetarako eta loratgietarako makineriaren salmentara eta konponketara dedikatzen da. Urtarrilean hasi ziren industrialdean, baina Enrike Brunet enpresako arduradunak hamalau urte zituenetik dihardu alor horretan lanean.** /AMAIA ARANBURUZABALA

Baratzeetarako, basoetarako eta loratgietarako materiala eskaintzen duten hainbat etxe internazionalen ordezkari da Comercial Brunet enpresa; Husgvarna (suediarra), Robin (japoniarra), Kawasaki (japoniarra), Solo (alemana) eta Yanmar (japoniarra) etxeetako makineria jarri digu eskuragarri, besteak beste. Etxe horietako produktuak saltzeaz gain, konponketa lanak ere egiten dituzte, bezeroei sektore horretan ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzeko helburuarekin.

Brunet enpresako ohiko bezeroak Urola aldeko eta Deba ibarreko baserritarrak, txaletetako bizilagunak, udaletako langileak eta basoko langileak dira; hala ere, edozein bezero partikularrendako ateak irekita dituztela azpimarratu digu enpresako jabe Enrike Brunet-ek.

2003ko urtarrilean kokatu ziren Labegaraietako Industrialdean; edozelan ere, urte asko daramatza Brunet-ek mota horretako makineriarekin lanean. Hain zuzen ere, hamalau urte zituela murgildu zen lanbide horretan, eta ordutik gaur egun arte, hainbat tokitan jardun du. Bergaran, 24 urte daramatza: industrialdean kokatu aurretik, Zubiaurren eta Ozaetan kokatutako lantegietan egin du lan.

Industrialdean oso gustura dagoela esan digu Enrike Brunet-ek, hainbat abantaila ekarri dizkio-eta bertan lan egiteak, hala nola: lan egiteko eta tresneria kokatzeko espazio zabala, kamioiak sartu eta ateratzeko erraztasuna, bezeroendako nahi adina aparkaleku izatea... Gainera, espazio-zabaltasunak inguruko erakusketa handiena jartzeko aukera eman die.

Enpresak bi langile ditu, eta oraingoz horrela jarraitzeko asmoa dute: "Udaberri-uda aldean udazkenean eta neguan baino askoz ere lan gehiago egoten da, eta buru-belarri ibili behar izaten dugu lanean. Langile gutxi izan arren, punta-puntako tresneria daukagu, eta horrek asko errazten digu lana. Orduan, bezero guztiei ondo erantzungo diegulakoan nago, ez daukat horren beldurrik", adierazi digu Enrike Brunet-ek.

**SASI-GARBITZEKO MAKINA BERRIAK**

Azken berrikuntzak jaso dituzte sasi-garbitzeko makinen alorrean. Hain zuzen, horietako bat dugu lau aldiko motorra duen makina ekologikoa, alegia, kerik ateratzen ez duena. Bestalde, emakumeendako tresneria arinagoa daukate.

COMERCIAL BRUNET

**COMERCIAL BRUNET**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 76 31 52**
- **Faxa: 943 76 70 12**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Webgunea: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 2 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**




MIREIA LARRAÑAGA

Elsa Rodríguez, Bergarako Ipar Project enpresako arduraduna.

■ IPAR PROJECT

# Sortu berria, baina esperientziaduna

**Aurtengo otsailean sortu zen Ipar Project enpresa; edozelan ere, enpresako arduradun Elsa Rodríguezek bide luzea darama eraberritze lanen alorrean: 20 urte. Esperientzia horrekin batera, mota guztietako berrikuntzak eskaintzen dizkigu: komunak, sukaldeak, zeramika...** /A.A.

Ipar Project mota guztietako berriztatze lanak egitera dedikatzen da: komunak, sukaldeak... Eta horretarako, hainbat material mota erabiltzen ditu, baina Ipar Project enpresaren berezitasuna zeramika da: jatorri eta mota askotariko zeramikekin egiten dute lan, eta guztiak kalitate onekoak.

Enpresa hori aurtengo otsailean sortu zen Bergaran; hala ere, lehenago sortutako beste egoitza bat dauka Azpeitian. Bi langile ditu Bergarako egoitzak, eta Elsa Rodríguez da arduraduna. Nahiz eta enpresa berria izan, Elsa Rodríguezek hogei urte daramatza beste batzuendako zaharberritze lanak egiten. Gainera, azoka askotara joateko ohitura duela esan digu: "Urtean barrena, lauzpabost azokatara joateko ohitura dut, estatu mailakoetara nahiz internazionaletara. Azoketara joatea oso aberasgarria da, bi aukera handi ematen dizkit-eta: alde batetik, merkatuan dauden produktuak ezagutzeko aukera; eta, bestetik, nire enpresaren maila besteenarekin parekatzeko aukera. Horrela, bada, Ipar Project-en maila oso ona dela ziurtatu dezaket".

Bezero mota askorendako egiten dute lan: bezero partikularrendako; baita, arkitekto, aparejadore, kontratista eta dekoratzaileendako ere. Gaineratu digu kalitatean eta diseinuan oso onak diren gremio edo lan-taldeekin egiten dutela lan. Jeneralean, Deba ibarreko herrietan egiten dute lan, batzuetan urrutiago ere joan behar izan duten arren.

Hortaz, oso gremio eta etxe onez sortutako obren zuzendaritza eskaintzen diote bezero partikularrari, lasaiago egon dadin. Hala ere, bezeroak etxe eta gremio konkretuak nahi baditu, Ipar Project horiekin lan egiteko gertu dago.

**INDUSTRIALDEKO KOKAPENAREN GARRANTZIA**

Industrialdean kokatzeak abantaila asko dituela adierazi digu Ipar Project-eko arduradunak: "Alde batetik, bezero partikularrendako oso erosoa da. Aparkaleku ugari daudenez gero, bezeroa lasaiago etor daiteke hona, autoa aparkatzeko inongo kezka barik. Eta hori oso garrantzitsua da, kontuan hartuta bezeroek nahiko denbora luzea pasatu behar izaten dutela hemen; bestetik, pabilioiaren zabaltasuna dugu. Horrek erakusketa zabala jartzeko aukera ematen digu. Oso ondo erantzuteko ahalmena dugu, hortaz".

PROIEKTUAK . DEKORAZIOA
Ipar project s.l.
SUKALDEAK . BAINUAK . ZERAMIKA

**IPAR PROJECT**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 76 98 30**
- **Faxa: 943 76 52 44**
- **Posta-e: Ez dauka**
- **Webgunea: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 23 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**




ENEKO AZKARATE

Masterrekatik Industrialdera pasatu da Azkarate aroztegia. Argazkian, Jose Jabier Azkarate ugazaba.

## ■ AZKARATE AROZTEGIA

# Horma-armairuetan aukera zabala

**Enpresa aspaldikoa da. Gaur egun aroztegiaren jabea Jose Jabier Azkarate da, baina aurretik Jose Jabierren aitak eta aitonak jardun dute ofizio berean. Ibilbide luze horrek arotzen merkatua hobeto ezagutzen lagundu die; hori dela eta, egun, arotz lanetan edozer egiteko gauza dira.** /A.A.

Belaunaldiz belaunaldi igarotako ogibidea dugu Azkarate aroztegikoa. Orain dela laurogei urte sortu zuen lehenengo arotzlantegia Jose Jabier Azkarateren aitonak. Garai hartan, batez ere, nekazaritzarako erabiltzen ziren lanabesak egiten zituen aitonak. Horrela, bada, gurdia hartu eta baserriz baserri joaten zen, tokian tokiko lanak egitera. Geroago, aitak aitonaren eskolak jaso eta semeari transmititu zizkion.

Orain dela hogei urte inguru hasi zen Jose Jabier Azkarate aitarekin lanbide honetan; orduan, Masterreka kalean zeukaten aroztegia, eta bertan egon da aroztegia orain dela bi urtera arte. Egun, Industrialdean dute zurgindegia. Industrialdera lekualdatzeko hainbat arrazoi eman dizkigu Azkaratek: "Industrialdean Masterrekan baino hobeto gaude; lanerako materiala ekartzen diguten kamioiek barruraino sartzeko leku handiagoa daukatelako, guk geuk ere lanerako espazio handiagoa daukagulako, eta abar".

Enpresak hiru langile ditu, baina bezero ugariri erantzuten die: beste enpresa batzuei, partikular txikiei, eskolei...: "Edozein bezero motari erantzuteko gertu gaude, hau da, arotz lanetan behar duzun guztia egiteko gauza gara", ziurtatu digu Jose Jabier Azkaratek. Gainera, egur mota guztiekin egiten dute lan: "Lanerako materialaren aukeraketa eskariaren araberakoa izaten da, bezeroak aukeratutako edozein egurrekin egiten dugu gure lana".

### BEREZITASUNA: NEURRIRA EGINDAKO LANAK

Arotz lan guztiak egiten dituzte: armairuak, zaharberritzeak, mota guztietako ateak, leihoak, tarimak, parketak, sukaldeak, horma-armairuak, eta abar.

Arotz lan horien guztien artean, Azkaratetarren berezitasuna neurrira egindako altzariak egitea da. Hori dela eta, horma-armairu aukera oso zabala dute: "Guk egiten ditugun lan gehienak neurrira egindakoak izaten dira; hortaz, altzari horiek modelo bakarrak dira. Hori kontuan hartuta, hemen bertan, industrialdeko pabilioian, erakusketa egiteko asmoa daukagu; horrela, bezeroek hona etorri eta egiten ditugun lanak zelakoak diren ikusi ahal izango dute". Erakusketan eurek eskuz egindako hainbat lan jartzeko asmoa dute, baina, bereziki, armairuak eta hainbat ate mota.

AZKARATE aroztegia

**AZKARATE AROZTEGIA**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 76 47 19 - 610 88 40 20**
- **Faxa: Ez dauka**
- **Posta-e: azkaratearoztegia@euskalnet.net**
- **Helbidea: Telleria 19 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**



AMAIA ARANBURUZABALA

Joxe Migel Bolibar eta Mikel Lete, Belmek enpresaren jabeak.

## ■ BELMEK MEKANIZATUAK

# Bigarren urterako ISO 9001 lortu dute

**Belmek Mekanizatuetan lan jarduna doitasun handiko mekanizatuak egitea da. Batez ere, automobilgintzako mekanizatuak egiten dituzte. Lau langileko enpresa txikia da, eta orain dela bi urte sortu zen. Hala ere, hori ez da eragozpena izan ISO 9001 kalitatezko ziurtagiria lortzeko.** /A.A.

Enpresa berria dugu Belmek; izan ere, 2000ko uztailean eman zituen lehen urratsak. Mikel Lete eta Joxe Migel Bolibar izan ziren sortzaileak. Gaur egun, euren helburuak jarraituz, enpresa txiki izaten jarraitzen du, lau langile ditu-eta.

Enpresaren lan jarduna doitasun handiko mekanizatuak egitea da. Horretarako, bezeroak bidalitako planoez eta CNC tornuez (zenbaki kontroldun tornuak) baliatzen dira, zeintzuk zehaztasun handiko mekanizatuak egiteko beharrezkoak diren. Materialari dagokionez, aluminioa, altzairua eta brontzea erabiltzen dituzte.

Batez ere, ibilgailu-industriara zuzendutako lanak betetzen dituzte Belmek Mekanizatuek; automobilgintzarako mekanizatuen serie-fabrikazioa maila ertaina eta handia bitartekoa da, eta alor horretan bigarren mailako hornitzaileak dira. Bestalde, neurri txikiagoan izan arren, lehenengo hornitzaileak dira hainbat motatako makineriak egiten dituzten bezeroendako.

Belmek-en bezeroak Euskal Herri osoan, Espainian eta Frantzian hedatuta daude. "Bezeroei begira, industrialdean kokatzea onuragarria izan da guretako; enpresez inguratuta gaude, eta, hala, piezen prozesu osoa bertan egiten da eta garraio gastuak asko aurrezten dira. Horrez gain, industrialdeko enpresen artean harreman ona dago, eta ondo moldatzen gara", esan digu Mikel Letek.

### ISO 9001: LANERAKO FILOSOFIA BAT

Hasieran esan dugunez, Belmek enpresa txikia eta gaztea da, eta aitzitik hori ez da eragozpena izan ISO 9001 kalitatezko ziurtagiria lortzeko: "Gure egoeran dauden enpresa gutxi ezagutzen ditut; lantalde txikia daukagu eta bi urte bakarrik daramatzagu lanean. Hortaz, ziurtagiri hori izatea harro egoteko modukoa dela pentsatzen dugu", esan digu Joxe Migel Bolibarrek. Egiaztagiri hori lanerako filosofia bat da, hots, lan prozesua baldintzatzen duen arau bat. Filosofia horren barruan etengabeko hobekuntzara konprometituta daude.

Mikel Letek zera adierazi digu: "Ziurtagiri horrek ate asko ireki dizkigu, batik bat, merkatu internazionalean. Gainera, bezeroak guk egiten ditugun doitasunezko piezen kalitateaz fidatzeko beharrezkoa dela pentsatzen dugu".

BELMEK

**BELMEK MEKANIZATUAK**

**HARREMANETARAKO**

- **Telefonoa: 943 76 94 60**
- **Faxa: 943 76 92 81**
- **Posta-e: belmek@terra.es**
- **Webgunea: Ez dauka**
- **Helbidea: Telleria 19 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA**




AMAIA ARANBURUZABALA

Ega.Lan enpresa orain dela hiru urte aldatu zen Plazentziatik Labegaraietako Industrialdera.

■ EGA.LAN

# Bastidoreak ere saltzen dituzte

**Orain dela zazpi urte inguru sortu zen Ega.Lan enpresa. Konformatu mekanikoak eta muntaketak egitera dedikatzen da orokorrean, baina orain dela bi hilabete, beste zerbitzu bat eskaintzen hasi da: bastidoreen salmenta. Enpresako arduradun nagusia Andres Egaña da.** /A.A.

Ega. Lan enpresakoak konformatu mekanikoak eta muntaketak egitera dedikatzen dira. Beste modu baten esanda, bigarren mailako lanak egiten dituzte: enpresa handiagoek hainbat motatako piezak bidaltzen dizkiete eta haiek pieza horiei eskatutako aldaketak egiteaz arduratzen dira Ega.Lan enpresako langileak. Besteak beste, zulaketak, hariztatzeak, muntaketak, pieza txikien estanpazioak, errematxatzeak, eta abar.

Orokorrean, enpresa handiagoendako egin du lan Ega.Lan enpresak; batik bat, V.T.L (Gasteiz), Pascual Churruca (Soraluze), Gol (Soraluze), Tritor (Bergara), Farmi (Eibar), Safedoor (Bartzelona) edo Pulver Lack (Bartzelona) enpresendako. “Lan handien Debarroko lantegiendako egiten dugu; hala ere, orain dela gutxi enpresa katalan batzuekin gogor hasi gara lanean”, adierazi digu Ega.Lan enpresako jabe eta arduradun nagusi Andres Egañak.

Hain zuzen ere, Andres Egañak zazpi urte inguru daramatza mota horretako lanak egiten. Baina horietatik, azken hiru urteak bakarrik daramatza Bergarako Labegaraietako Industrialdean; gainerako guztiak, Soraluzen.

Labegaraietako Industrialdeak dituen abantailez berba egin digu Egañak: “Oso ondo antolatuta dago Bergarako Industrialdea. Pabilioiak izugarrizkoak dira, eta zabaltasun horrek asko lagundu digu lan egiteko orduan: materiala jasotzeko, antolatzeko... Gainera, alboan horrenbeste enpresa edukita, elkarren arteko lanharremanak sortzea errazagoa da”.

Langileei dagokienez, nahiko enpresa txikia da Ega.Lan, sei langile ditu-eta. Edozelan ere, lanarekin ondo konpontzen direla esan digu lantegiko arduradunak.

**ESKAINTZA BERRIA: BASTIDOREAK**

Hasieran esan dugunez, Ega.Lan enpresaren lan jardun nagusia konformatu mekanikoak eta muntaketak egitea da. Edozelan ere, orain dela bi hilabete produktu propio bat egiteari ekin diote: margotutako pinturen kokapenerako bastidoreak. Bastidore horiek piezak margotzen dituzten pintoreei zuzenduta daude: “Oraingoz, bastidoreen salmenta oso ondo doala esan dezakegu; orain, gainera, gogor hasi gara lanean enpresa katalan batzuekin”, adierazi digu Egañak.

**EGA.LAN**

**HARREMANETARAKO**

- Telefonoa: 943 76 99 78
- Faxa: 943 76 99 78
- Posta-e: eganaiza@euskalnet.net
- Webgunea: Ez dauka
- Helbidea: Telleria 16 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA



GUREAK

Gureak-ek Gipuzkoa osoan ditu hedatuta egoitzak. Goian, Gureak-en diharduen langile bat.

■ GUREAK LANTEGIAK

# Bezeroei hobeto erantzuteko aukera

**Bergarako Gureak lantegi zaharra Gipuzkoan zabaldu zuten lehenengoa izan zen. Egoera kaskarrean zegoen, sortu zen egunetik ez zuten-eta berrikuntzarik egin. Hori dela eta, Industrialdera joatea erabaki zuten, langileei eta bezeroei zerbitzu berri eta hobeak eskaintzeko asmoz.** /A.A.

Gureak lantegiak Atzegik –urritasun fisiko eta psikikoren bat dutenen aita-amek osatutako elkartea– bultzatutako ekimena dira, eta Gipuzkoa osoan hedatuta daude. Gureak 1975ean sortu zen, eta Bergarakoa, Donostiakoarekin batera, lehenengo egoitza izan zen.

Ez dute eurek diseinatutako produktu propiorik merkaturatzen; hainbat enpresarendako ekoizten dute, hala nola: Copreci, Fagor, Lacor, Mayc, Goizper, Baleo... eta beste hainbatendako. Eta Euskal Herriaz gainera, nazioartean ere badituzte bezeroak. Bergarako lantegia automozio sektorearendako eta makina automatikoendako kableatuak egiten dago espezializatua, eta enpresa horiei guztiei erantzun ahal izateko, 85 langile dabiltza lanean. Bergarako lantegiko gerentea Asier Vitoria da.

Gureak, lantegi izateaz gainera, zerbitzua ere bada, eta urritasun handienak dituzten langileei begiraleen arreta eta zaintza berezia eskaintzen die. Hala, urritasun mailaren arabera, lan bat edo beste bat egiten dute. Hala ere, erregimen batetik bestera pasatzeko eta diru ordain hobea lortzeko aukera dute.

“Gureak-en lana pertsona ezindu bat formatzea da enpresa normalizatu batera joan ahal izateko. Hala eta guztiz ere, enpresa askok mesfidantza handia dute urritasun fisiko edo psikikoak dituzten pertsonak euren lantokian sartzeko. Horren aurrean, Gureak-ek industria aktibitateetatik kanpo enpresak sortzeko erabakia hartu zuen, eta hori aurrera eraman nahian gabiltza Bergaran ere”, adierazi du Asier Vitoriak.

**AURRERAPENAK: ZERBITZU GEHIAGO**

Bergarako egoitza zaharrak 25 urte zituen, eta inoiz berrikuntzarik egin barik zegoenez, oso egoera kaskarrean zegoen. Horrela, Industrialdera joatea erabaki zuten, bezeroei zerbitzu hobea emateko asmoz. Industrialdeko egoitzak bi pabilioi, hiru solairu eta 1.200 metro koadro ditu; horrela, Debarroko eta Urolako bulegoak bertan jarri, langile gehiago hartu eta bezero gehiagori erantzun diezaiekete. Gainera, jantokia eta eguneko zentroa ezartzeko aukera ere eman die. Hain zuzen ere, urritasun larriak dituztenei zuzenduta dago eguneko zentroa, adin jakin batera iristerakoan bertan lan erosoagoak egitera pasatzen dira-eta.

**GUREAK LANTEGIAK**

**HARREMANETARAKO**

- Telefonoa: 943 76 98 80
- Faxa: 943 76 98 86
- Posta-e: bergara.talleres@ext.grupogureak.com
- Webgunea: http: www.grupogureak.com
- Helbidea: Telleria 1-3 - Labegaraietako Industrialdea / BERGARA

**Industrias UGATU s.l.**

- **Hotzeko estanpazioak edo dekoletatuak:**
  **M2-tik M125-eraino, C6, C8, C10, C12**
- **Azkoin estandarrak**
- **Azkoin bereziak**
- **Zirrindolak**
- **Allen esparragoak**






**UGATU**
Telleria 9
96 posta kutxa
20570 Bergara
Tel.: 943 76 98 23
posta elek.:
ugatu@ugatu.com

■ BERGARAKO INDUSTRIALDEA

# Iraganeko testigantza jasota, etorkizunari begira

LEIRE KORTABARRIA

**Bergarako Industrialdea aspalditik jardunean dagoen arren, luze hartu dute berau eraikitzeko lanek. Hori dela eta, inaugurazio ekitaldi bateratua egiteke dago. Hala, arduradunek espero dute datozen hilabeteotan egin ahal izatea.**

Orain dela lau urte, 1999an, hasi ziren Bergarako Industrialdea eraikitzeko lanak. Lanok bost fase edo alditan banatu dira. Baina Industrialdea bukatzeak hain luze jo duen arren, arduradunek –SPRI-Lur, Lurzoru eta Eraikuntza Industrialen Sustapenerako Sozietatea; Debagoieneko Mankomunitatea; eta Bergarako Udala izan dira bultzatzaileak– badute harro egoteko arrazoia.

Izan ere, Bergarako Industrialdea, kontzentrazio-gune horien batez besteko tamaina kontuan hartuta, ohi baino handiagoa da: 47.627 metro koadroko azalera du eta horietatik eraikitzeko erabili diren orubeek 24.363 metro koadro hartzen dituzte.



GOIENKARIA

Labe Garaiak eta Zerrajera zeuden tokian eraiki da Industrialdea: Bergarako industrian eta ekonomian, toki esanguratsua da hori.



**47.627 metro koadrorekin eta hiru pabilioirekin, industrialde handia da Bergarakoa**

**Labe Garaiak eta Cerrajera zeuden lur eremuan dago, Bergarako leku sinboliko baten, alegia**

**Debagoieneko Industrialdea SA elkartearen barne dago gaur egun Bergarako Industrialdea**



GOIENKARIA

Hainbat fasetan eraiki eta inauguratu da Bergarako Industrialdea. Irudian, iazko martxoaren 23ko inaugurazio ekitaldiko une bat.

**35 ENPRESA ETA 367 LANPOSTU**

Bergarako Industrialdeak ibarreko lantegi askori ematen die ostatu. Gaur egun, 35 enpresa daude han kokatuta. Erreportaje hau idazteko momentuan, hain zuzen, 367 lanpostu sortu ditu Bergarako Industrialdeak.

Lantegiak Industrialdeko bi solairuko hiru pabilioitan daude banatuta. Lantegien izaera askotarikoa da, baina gehienak, gaur egun, mekanizatu arlokoak dira, eta tamaina ertainekoak.

Industrialdeko gerenteak azaldu digunez, une hauetan bi egoitza daude emateko gertu. Enpresa batek han kokatu nahi badu, prozedura bat jarraitu behar du: eurekin harremanetan jarri eta eskaera bat bete. Industrialdeak badu organo bat, Administrazio Kontseilua, eta hark erabakiko du zeini esleitu orube jakin hori.

Lantegiak emandako lokala onar dezake edo ez (adibidez, beheko edo goiko solairuan dagoela-eta komeni ez zaiolako), baina arduradunek argi utzi dute Industrialdeak bere irizpideak ere badituela; esate baterako, enpresa industrialak hobesten ditu. Era berean, herrian urbanismo arazoak dituzten enpresek hara pasatzeko aukera dute.

## ANTZINAKO BI ERAIKIN GORDE DIRA

**Gaur egungo Bergarako Industrialdea herriaren industriaren historian zeresan handia izan duen gune baten dago kokatuta. Bere izenak dioen moduan, Labegaraieta izan zen Bergarako industriarik garrantzitsuenetariko baten kokagunea. Labe Garaiez gain, Cerrajerak ere lantegi bat zuen han. 1999an hasi ziren gaurko Industrialde modernoa eraikitzeko lanak, baina SPRIk eta Mankomunitateak –bultzatzaileek– historiaren atal garrantzitsu horren testigantza gorde nahi izan dute. Horrenbestez, bi eraikin zahar aprobetxatu dituzte gune berrirako: bata, lehengo Largos enpresaren orubea. Argi eta Logistica Mondragon daude bertan; eta bestea, erlojuaren eraikina.**

## BERGARAKO INDUSTRIALDEA SA

**Debagoienaren eskualde izaera gero eta indartsuagoa da, eta ibarreko industrialdeen egitura administratiboan ere sumatzen da.**

**Hasiera baten, Bergarako Industrialdea SA elkartea eratu zuten sustatzaileek –SPRI-Lur enpresa, Mankomunitatea eta Bergarako Udala–, industrialde berria aurrera ateratzeko eta kudeatzeko. Bergarako Industrialdearen proiektua 1995ean jaio zen, Debagoienean orduko abian zeudenen jarraitzaile moduan, eta Bergarako Industrialdea SAk kudeatu zuen, 2001era arte. Urte hartan, Debagoieneko industrialdeek bat egin zuten, eta, hala, Bergarako Industrialdea SA desagertu egin zen.**

“Teknologia, edozein leku edo unetan,
premiazkoa da edo ez da;
hortaz, beharrezkoa baduzu,
ezin izango dituzu inbertsioak ekidin”

*Ideas para gestionar en tiempos inciertos*
Antonio de Lorenzo

BERGARAKO BIHARGINTZA 98, S.A.
Garapenerako Udal Elkartea

Poligono industrial berria
San Juan auzoan (S-10),
7.000 m$^2$

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 4tik 11ra

# OÑATIKO HISTORIA EZEZAGUNA

**Oñatiko txokolategintzak historia luzea du; orain arte idatzi gabeko historia. Anton Azpiazu oñatiarra dabil, lehenengo aldiz, ikerketa historiko hori egiten.**

Oñati, hiribildu txokolategilea" esaldia askotan entzun izan dute txantxikuarrek eurek, baita ibarreko gainerakoek ere. Ospea ondo merezia du Oñatik; izan ere, gutxienez lau mendeko tradizioa du herri horretan txokolategintzak. Hori horrela izanda ere, ordea, inork ez du historia hori miatu, inork ez ditu lau mende hauek Oñatin utzi dituzten milaka bitxikeriak, datu interesgarriak, errezetak, ohiturak... batu. Orain arte.

Anton Azpiazu Oñatiko semeari dagokio bere jaioterriko historiaren zati garrantzitsu hori batzeko ohorea. Hark dioskun moduan, guztia kasualitatez hasi zen, denbora-pasa bezala. Kontua da Antonek Zahor txokolate lantegian egiten duela lan; 90eko hamarkada hasieran, hainbat gertakizunek bultzatuta, Oñatiko txokolategintzaren historiak jakinmina piztu zion: "Garai hartan hainbat aldaketa gertatu ziren, eta beldur izan nintzen, hura ez ote zen Oñatiko txokolategintzaren bukaera izango. Orduan hasi nintzen informazioa bilatzen. Hasieran noizean behingo kontua zen, baina, pixkana-pixkana, benetako pasio bihurtu da niretako", diosku Anton Azpiazuk.

Ez da historialari profesionala, baina bere herriaren eta, oro har, Debagoienaren historiaren atal esanguratsu, atsegin eta bitxikeriaz betetako bat modu metodikoan batu duen lehenengoa da Anton. Urte hauetako guztiotako lanak liburu eran emango du fruitua, nahiz eta egileak patxadaz hartzea erabaki duen: "Oraindik asko dut bilatzeko, ez diot nire buruari eperik ipini gura", esaten digu.

1640tik gaur egunera arteko historia batu du Antonek. Zenbatu ezineko bezainbat anekdota eta datu esanguratsu aurkitu ditu, hala nola: oñatiarrek tratu handia zutela Espainiako Gortearekin; Ameriketan kakao esplotazioak zituztela hainbat oñatiarrek; Oñatin gaztainekin egindako bonboiak ekoizten zituztela; eta abar. /LEIRE KORTABARRIA







Oñatiko fabriken tableten hainbat bilgarri. Azpian, Zahor lantegiak 64-65 urtetik aurrera ezagun egin zuen *Juanito Zahor*-en abenturen kromo-liburu bat.

AZALA: GOIO ARANA / IRUDIAK: ANTON AZPIAZU

HISTORIA/ TXOKOLATEA, XVI. MENDETIK GAUR EGUNERA ARTE

# Txokolatea: Oñatiko urre ilun gozoa

ORAIN DELA 400 URTETIK EGITEN DA TXOKOLATEA OÑATIN, ETA HORREN GAINEKO LEHEN HISTORIA IKERKETA EGIN DU HERRITAR BATEK

LEIRE KORTABARRIA

**Oñatin, gaur egun, Zahor txokolate lantegia dugu. 400 urteko jarduera baten eredu berriena da; izan ere, 1600. urte ingurutik izan dira Oñatin txokolate ekoizleak. Historia horren eta, oro har, jaki preziatu horren nondik norako guztiak dakizki Anton Azpiazu ikertzaileak.**

Oñatiren kasuan, behintzat, txokolatea non, noiz, zergatik, nork… jaten zuten ikusiaz, azken lau mendeotako gizartearen irudi oso bat lortu ahal izango dugu.

Oñatin, XVII. mendean, 60 bat txokolate obradore zeuden. Garai hartan txokolatea klase sozialaren bereizgarria zen: oso produktu esklusiboa zen, eta Oñatiko dukeak, mojek, fraideek, merkatariek… bakarrik hartzen zuten. Kakaoa eskuz ehotzen zuten: "Egunean kilo bi egiten zituzten, asko jota", dio Azpiazuk. Oñatiko obradoreek ospe handia zuten, eta leku askotako jendea etortzen zen lan egitera: Azpiazuk aurkitutako lan-kontratu zaharrena 1753an Zaragozako seme bati egindakoa da.

**GAUR EGUN, ZAHOR LANTEGIA**

Txokolatea 1700. urte inguruan hasi zen demokratizatzen; hala ere, oraindik goi mailako produktua zen. Aro modernoan zazpi lantegi egon dira Oñatin; lehenengoa 1850ean zabaldu zuen Gabina Bastarrikak. 60ko hamarkadan Loyola txokolate lantegia, bere arloan, Estatuko lantegirik handiena izatera iritsi zen.

Gaur egun Zahor lantegiak eusten dio tradizioari, eta mundu osoko hainbat lekutan eros ditzakegu haren produktuak.



LEIRE KORTABARRIA

Txokolate-ontziak oso preziatuak ziren, eta jende askok testamenduan uzten zituen.

## Lehen aldiz jan zeneko eguna

**Urrea zuria, beltza edo gorria izan daitekeela entzuten dugu, baina, Oñatiren kasuan, urreak beste kolore bat du: txokolatearen kolore marroi iluna.**

**Hori egiaztatzeko hainbat datu harrigarri utzi dizkigute azken 400 urteok. Anton Azpiazuk Oñatin txokolatea lehenengo aldiz noiz jan zen aurkitu du: badirudi 1615eko urriaren 31n izan zela, Austriako Ana erreginaren eskutik, ezta gutxiago ere. XVII. mendean, Oñati Errege-Bidea zela, hau da, euren bidaietan, erregeek han geldiunea egiten zutela: besteak beste, Carlos III. Espainiako erregea izan zen Oñatin, eta, ziur, txokolatea hartu zuen bertan.**

**Txokolatearen industriari esker hainbat oñatiar asko aberastu ziren: adibidez, Caracasko Gipuzkoako Konpainia merkatari elkarteko kide gisa —Esteban de Garmendia Oñatiko seme eta elkarteko kidea zen Cadizko gobernatzailea 1728an, eta beste oñatiar askok ardura handiko postuak izan zituzten Espainian—; Amerikētan, kakao-ekoizle moduan; lehengaien salerosketari edo kontrabandoari esker… Azpiazuk zera dio: "Diru asko etorri zen sasoi hartan Oñatira".**

**ANTON AZPIAZU** / IKERTZAILEA

## *"Txokolate ona da koilara sartu eta tinko geratzen denean"*

**Txokolatea bihurtu da Anton Azpiazu Lanz oñatiarraren pasioa; jaki moduan, baina, batez ere, ikerketa-gai moduan. Bere aurkikuntzekin, liburu bat aterako du laster.**

**Hamar urtetik gora ibili zara ikertzen… Ez duzu lan makala esku artean!**

Lantegian dihardudanez, oso zaila da ikertzeko denbora ateratzea. Oñatiko Udal artxibategian, Bidaurreta eta Santa Anako komentuetakoetan, eta Unibertsitatekoan begiratzen dut. Goizez bakarrik joan naiteke; astean behin, arratsaldez; eta hilean behin, zapatuan. Lan luzea eta nekeza da, eta sarri, amore emateko puntuan izan naiz. Eskerrak familiakoek animuak ematen dizkidatela.

**Alde onak ere izango ditu, ordea…**

Bai, bai. Izugarri gozatzen ari naiz lan hau. Ni ez naiz historialari profesionala, baina pentsatu nuen ezinezkoa zela, Oñatik halako tradizio luzea izanda, testigantza bat bera ere ez izatea. Etorkizunean, inork Oñatiko txokolatearen historiaren inguruko edozer jakin gura badu, izango du nora jo. Baina nire desioa izango litzateke lan-ildo honi beste norbaitek jarraipena ematea.

**Badakigu txokolatea behar bezala jaten?**

Ez, ez. Hori mojek dakite ondo prestatzen: iluntzean egin, gau osoan deskantsatzen utzi, eta goizean, txokolate egina gosaldu. Txokolate ona da koilara sartu eta tinko gelditzen denean. Gozotegietako hainbat produktuk "txokolateduna" direla diote, baina hori ez da txokolatea.



Anton Azpiazu.

**Aurkitu duzu Oñatiko txokolatearen bereizgarririk?**

Ez; aurkitu dudana da, adibidez, gaztainazko bonboiak egiten zirela hemen. Baina berezitasun bat da, adibidez, Oñatiko txokolatea Everestera ere igo dela: Martin Zabaleta igo zenean, espedizio hark Zahorrek egindako txokolatea zeraman. Hortaz, han ere izan da gure txokolatea.

## KONTZERTUAK/ 'EGUNKARIROCK', ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDEKO EMANALDIA

# Hamabost talde, bat eginda

ARRASATEKO TALDE ETA DISKO JARTZAILEEK 'EGUNKARIA'-REN ALDEKO KONTZERTUA EGINGO DUTE BIHAR

LEIRE KORTABARRIA

**Bihar, zapatua, musika jaialdi berezia egongo da Arrasaten: *EgunkariRock* izena du eta herriko hainbat musika talderen ideiatik abiatutako ekintza da, Herri Ekimenaren lankidetzarekin. Bakoitzaren musika proiektuaren gainetik, *Egunkaria*-ren alde bat egin dute musikariok.**

"Jende askok irudi jakin bat du: aldarrikapenen bat egiteko kontzertuak beti metal taldeek egiten dituztela, eta hori ez da horrela. Oraingoan, hamaika estilotako musikagileek egin dute bat aldarrikapen berberarekin". Horrela azaltzen dute Arrasateko Herri Ekimeneko arduradunek *EgunkariRock* jaialdiaren atzean dagoen espiritua.



IKER BARANDIARAN

Des-Kontrol taldeak joko du biharko *EgunkariRock* jaialdian, beste talde askoren artean.

### BIHAR, UARKAPEN

Kontzertua bihar izango da, zapatua, Arrasateko Uarkape pilotalekuan, 17:00etatik 03:30era. Honako talde eta musikariek hartuko dute parte: Never surrender, Ardi galduak, Quadrofenicos, Iskanbila, Anger, Des-Kontrol, Kañeria 13, Cretinos, Ekon, Special crew, Arkada Social, Enboskada, Jodete, Numen eta Jukebox taldeek. Bestalde, Arrasateko DJ Kaiet eta Bilboko DJ Alain disko jartzaileek ere emanaldia egingo dute, talde horiek guztiek jo eta gero. Sarrera txartelak sei eurotan daude salgai. Pilotalekuan taberna zerbitzua izango da, baita *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko material salmenta ere.

### "BIHAR GUK JASAN DEZAKEGU"

*EgunkariRock* Arrasateko taldeek eurek bultzatutako ekintza da. Adierazpen askatasunaren aldeko ekitaldia da. Taldeek "euskal prentsa idatziari egindako erasoa" salatzen dute, eta "pentsatzeko, berba egiteko edo abesteko aukera askatasunaren zapalkuntza" bezala deskribatzen dute *Egunkaria* itxi izana.

Talde horiek estilo desberdinak dituzte; hala ere, musikak eurendako duen esanahiak uztartzen ditu guztiok: "Gu musikariak izanik, gura duguna esateko, gure sentimenduak azaltzeko, berbak erabiltzen ditugu. Musika edo berbak dira gure bizitzeko tresna, prentsa idatzian moduan. Hori kontutan izanik, guztiok batu eta egoera horren aurka agertokira igotzea erabaki dugu, bihar guk geuk jasan dezakegulako erasoa".

### ANTIMILITARISMO EGUNA

Ez da hori ideia baten haritik asteburuan izango den jaialdi bakarra: Eskoriatzan bihar, zapatua, Antimilitarismo Eguna antolatu du Gazte Asanbladak.

Goizetik aurrera kale animazioa, herri bazkaria eta hainbat kontzertu izango dira, gaztetxean: besteak beste, Asier Serranok, Surfing Kaos-ek eta Silencio Absoluto-k joko dute.

## NIREAUKERA




### 'STILL LIFE'
### Pat Metheny

**Gitarra jotzailea naiz, eta musika tresna horren doinuak entzutea dut bereziki gustuko; ez ditut kaleratu berriak hainbeste entzuten. Nire artistarik gustukoena Pat Metheny jazz estiloko gitarra jotzaile estatubatuarra da, nire ustez, gaur egun, musika tresna hori jotzen duen musikarien artean, onenetarikoa. Methenyren ia disko guztiak ditut, eta gustukoena 1987an argitaratu zuen *Still Life (Talking)* delakoa dut. 15 urte dituen arren, ez da batere zaharkituta geratu. Methenyren beste disko bikain batzuk *Letter from home* (1989koa) eta *We live here* (1995ekoa) dira.** /L.K.



**Juanjo Untzilla**

Gitarra jotzaile oñatiarra. Mikel Telleria eta Jose Mari Anduagarekin egin du lan.

## KALERATUBERRIAK/ Iban Arantzabal

### LIBURUA / Poesia




**MUNSTRO ABERTZALEA**

**Elkar**
**Ignazio Aiestaran**
135 orrialde

Gogoetaren mundutik dator Ignazio Aiestaran iruindarra; batzuetan, ordea, pentsamendu egituratua ez da tresna egokiena sentimenduen borborra eta ideien anabasa adierazteko. Horregatik aukeratuko zuen, beharbada, poesiaren bidea filosofo gazteak. Aiestaranek ez du poesia lirikoa egiteko asmorik, hala ere. Ez duzu aurkituko hemen txorien kantuaren laudioriorik, ezta amodiozko penen deitorerik ere; aitzitik, pentsamenduz eta ideiaz gainezka dagoen poesia egin du: deitu poesia soziala nahi baduzu, edo filosofikoa, edo politikoa, zergatik ez.

### DISKOA / Nobela




**EULIEN BAZKA**

**Hasier Etxeberria**
Susa literatura
168 orrialde

Damian Arrutiren abenturak irakurri ahal izango ditugu. *Thriller-a* da, harrapatzen duena, eta era berean axola handiko kontuez dihardu: bizimodu modernoaren zentzugabekeria, belaunaldien etena, eta horrelako gaiak jorratzen ditu.

Damian Arruti intsektuak aztertzen dituen entomologoa da eta ezagutzen duen emakume baten gorpu txikitua begi aurrean ikustean gauza asko aldrebestuko zaizkio, eta zer pentsatua emango.

Nobela beltza da, eta *goretzat* definitu du idazleak. Muga errealaren eta irrealaren mugan dagoen liburua.

### DISKOA / Rocka




**KOKEIN**

**Kokein**
Gaztelupeko hotsak
7 kanta

Eibarko harrobiak emandako azken emaitza, iturri berrietatik eta klasikoetatik edaten duena: Pearl Jam, Incubus... Banda gaztea, nahiz eta partaideak beste hainbat taldetan jardundakoak izan.

Intentsitatearen sokatik tira egiten duten arren, soinu eta giro lasaiek ere badute oinarri finkorik.

Zaloaren ahots partikularrak egungo rock musikarik garaikideena transmititzen du. PiLT taldeko partaideen laguntzarekin grabatutako CDa erakusten dihardute eszenatokietan. Taldearen aurkezpen lan indartsua.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a

# Apirilak 4-11

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## LEHIAKETAK

### OÑATI

► **Arrantza txapelketa** izango da apirilaren 13an, domeka, Arantzazu barrutian, 9:00etan. Izena emateko azken eguna apirilaren 12a izango da, Alzu-Arrese dendan.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **1910etik 1940ra arteko ezkontzen** inguruko argazki erakusketa izango da ikusgai asteburuan, hilak 5 eta 6, Olaran etxean.

## JAIAK

### ARAMAIO

► **Korrika dela-eta, jaialdia** izango da bihar, zapatua, herriko kiroldegian.

### ARRASATE

► **Korrika Kulturalaren barne,** honako ekintzak izango dira datozen egunotan: etzi, domeka, Arrasate Musikaleko Bandaren kalejira, eguerdian; astelehenean, hilaren 7an, Korrika Txikia, 15:15ean, eta Korrika, 18:30ean; ordutik aurrera, kale animazioa izango da.

### BERGARA

► **Korrika dela-eta, hainbat ospakizun** izango dira astelehenean, apirilaren 7an. 12:00etan, bertsolarien eta trikitilarien emanaldia izango da; 12:30ean, Bandaren saioa; 13:00etan, herri bazkari handia; eta 19:00etan, puzgarriak eta tailerrak.

### ESKORIATZA

► **Militarismoaren aurkako eguna** antolatu du Gazte Asanbladak biharko, zapatua. 11:00etan, kale animazioa izango da; 12:30ean, kontzertua, herriko plazan, eta poteoa jarraian; 14:30ean, herri bazkaria; 16:30ean, perkusio talde baten eskutik, kalejira; 18:30ean, kontzertuak, gaztetxean; eta 22:30ean, beste kontzertu bat. Egun osoan zehar, zabalik izango da gaztetxea. Bazkarirako eta kontzerturako txartelak Aldatzen eta Urrestillan daude salgai, 13 eurotan.

► **Umeendako jolasak** izango dira astelehenean, apirilak 7, Korrika iritsi aurretik (lasterketa 17:45 inguruan helduko da herrira).

### OÑATI

► **Korrika Kulturalaren barne,** honako ekitaldiak izango dira: etzi, domeka, jan-edanak banatuko dira herriko plazan, goiz partean. Aldi berean, kale animazioa izango da. Txorimaloak ibiliko dira kaletik, 18:00etan; 19:30ean, erromeria izango da, plazan; segidan, triki-poteoa.

► **Txantxiku Ikastolaren eguna** ospatuko dute gaur, egubakoitza. Umeendako jolas parkea izango da Santa Ana ikastetxeko jolaslekuan, 14:30etik 18:00etara; segidan, jaialdia, Santa Ana antzokian.

## IKASTAROAK

### BERGARA

► **Eri psikikoen senideendako** formakuntza ikastaroa antolatu du Aguifes Gipuzkoako gaixo psikikoen familiartekoen elkarteak. Datozen saioak apirilaren 9an, 16an, 23an eta 30ean izango dira, kultura etxean. Izena emateko, deitu Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailera (943 77 91 00).

### EUSKAL HERRIA

► **Hobekuntza mailako mendi-eski ikastaroa** antolatu du Gipuzkoako Mendizale Federazioak, maiatzaren 1etik 4ra bitartean. Posets-en izango da. Izenematea apirilaren 24a baino lehen egiten dutenek 135 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 150. Informazio gehiagorako, deitu 627 39 84 16 telefonora (Jaime Eguzkitza).

## ANTZERKIA

### ANTZUOLA

► ***Ondo esan beharko* antzerki lana** eskainiko dute Ramon Agirrek eta Joxerra Senperek gaur, egubakoitza, eskolako aretoan, 22:00etan.

### ARETXABALETA

► ***Trabena espekta-kuloa* antzezlana** egingo du Goaz taldeak datorren egubakoitzean, apirilak 11, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► ***Las chicas serias no gustan* antzezlana** egingo du Madrilgo Torpedolevel taldeak gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 00:00etan. Datorren egubakoitzean, leku eta ordu berean, Jon Zabal ilusionistaren emanaldia izango da.

► ***Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlana** eskainiko du Gorringo taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

### ELORRIO

► ***Cara de Plata* antzezlana** egingo du Al Suroeste Teatro-Teatro i Piau taldeak datorren egubakoitzean, apirilak 11, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► ***Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlana** izango da hilaren 11n, Unibertsitatean, 22:30ean.

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Prozesu feministaren** gaineko batzarra izango da astelehenean, hilak 7, udaletxeko ganbaran, 19:00etan.

► **Jabego horizontala** eta jabekideen arteko harremanak izango dira hizpide hilaren 10ean, eguena, Basotxo elkartearen egoitzan, 17:00etan.

► **Galizian, galipota biltzen** izan ziren hainbat herritarrek diapositiba emanaldia antolatu dute eguenerako, apirilak 10, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

► **Odol-ateraldiak** izango dira datorren astelehenean, hilaren 7an, Osasun Zentroan, 16:15-20:00.

### ARRASATE

► **Posets-Benasquera mendi**



► IKUS-ENTZUTEKOAK

## 'HIRE HIMALAIA' BIDEO ETA ARGAZKI EMANALDIA, ARRASATEN

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarrak mendiaren inguruan egin dituen gogoeten emaitza ikusteko aukera izango dugu datorren eguaztenean, Mondragoeko Amaia Antzokian: *Hire Himalaia* bideo eta argazki emanaldia. Sokalagun leial eta munduko 14 "zortzimiletako" hamabitan gailurkide izan zuen anaia Felixi, 2000ko uztailean bizia kendu zion istripuaren ondoren egindako lana, eta beronek inspiratutakoa, dugu *Hire Himalaia*. Felixi omenaldia da, eta baita Albertoren barne-begirada bat bere bizitzaren ardatz dituen mendiei, mendien inguruko herriei eta herri horietan bizi den jendeari. Hori guztia DVD euskarrian ikusteko aukera izango dugu, teknologia onenarekin eginda, hortaz.

**Non:** Arrasateko Amaia Udal Antzokian. **Noiz:** apirilaren 9an, eguaztena. **Ordua:** 19:30ean.





URRETXINDORRAK
ZOZKETA!

CD-EN IRABAZLEAK:

| | |
|---|---|
| • Marife Zubimendi | Antzuola |
| • Mertxe Zapata | Aretxabaleta |
| • Arantxa Gabilondo | Aretxabaleta |
| • Iker Romo | Arrasate |
| • Patxi Agirrebeña | Arrasate |
| • Arantxa Egibar | Bergara |
| • Ainhoa Aranburu | Bergara |
| • Andoni Badiola | Bergara |
| • Aitziber Aranburu | Bergara |
| • Marina Lander | Etxebarri Ibiña |

Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25



### ‘URAK DAKARRENA... GLU, GLU, GLU, GLU’

Umorezko bakarrizketaren generoaren barne dago Esther Uria aktore errenteriarrak egingo duen antzezlan hori. Teknologia, sexua, zahartzaroa, zabor kosmikoa… bezalako denetariko gaietaz egingo du berba. Gaur izango da, egubakoitza, Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

**irteera** antolatu du Besaide taldeak apirilaren 12rako eta 13rako. Izenematе epea apirilaren 7an amaituko da.

► **Debagoieneko Eskola Arteko XVI. Abesbatzen Topaketa** izango da bihar, zapatua, Amaia Antzokian, 17:00etan.

► **Herri afaria izango da** apirilaren 7an, astelehena, Uarkape tabernan, 21:00etan, Korrika dela-eta. Txartelak salgai daude Hiren, Iratin eta AEKn.

### OÑATI

► ***Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo ikasketak* hitzaldia** egingo du Beatriz Etxeberria orientatzaileak datorren astelehen eta martitzenean, Txantxiku Ikastolako areto nagusian, 18:30ean.

► **Harkaitz Cano idazlearekin topaketa** antolatu du Udal Liburutegiak apirilaren 9rako, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan. Idazlearekin berba egin gura luketen guztiak daude gonbidatuta.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Hainbat talderen rock kontzertua** izango da bihar, zapatua, Uarkape pilotalekuan, 17:00etatik 03:30era, Egunkariaren alde.

### BERGARA

► **Techno jaialdia** izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 00:00etan.

► **Angiolillo eta Goiko Rock** taldeen saioa izango da gaur, egubakoitza, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

► **Siniestro Total, La Lengua de Trapo eta Bosco el Tosco y…** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Udal Musika Bandak** kalejira eta kontzertua egingo ditu etzi, domeka, udal pilotalekuan, 12:30ean.

► **Piano eta flauta kontzertua** izango da datorren egubakoitzean, apirilak 11, Musika Eskolan, 19:00etan.

► **The Cynics** taldeak emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilaren 11n, Jam aretoan, 22:00etan.

### ELORRIO

► ***¿Qué sabes de lo mío?* musika saioa** eskainiko du Teddy Baxter musikariak gaur, egubakoitza, Arriola aretoan, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Hainbat kontzertu** izango dira bihar, zapatua, Militarismoaren Aurkako Egunaren barne. 12:30ean, herriko plazan izango da emanaldi bat; gaztetxean, beste bi kontzertu izango dira, 18:30ean eta 22:30ean.

### OÑATI

► **Jose Mari Anduaga musikari oñatiarrak** *Bizitza Bera* diskoa aurkeztuko du datorren egubakoitzean, hilak 11, Santa Ana aretoan, 22:30ean.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***La presa***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.s
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Al sur de Granada***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***A propósito de Schmidt***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Dragon hill***
Zapatua eta domeka: 17:00.

***Spider***
Eguena, zine kluba: 20:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Atrapada***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Recién casados***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***El núcleo***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***La presa***
Egubakoitzetik domekara: 17:30.

***Atrapada***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Evelyn***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Chicago***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***El americano impasible***
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.

***La prueba***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***La prueba***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00.

***The eye***
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Domeka: 22:45.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***La presa***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 23:00.
Domeka: 22:45.

***El núcleo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:30.

***Los Thornberrys***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15.

***El pianista***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45.
Domeka: 17:15, 20:00.

***Evelyn***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Este cuerpo no es el mío***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45.
Domeka: 22:30.

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

***Frida***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:15, 23:00.
Domeka: 17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***El hombre del tren***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Bowling for Columbine***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***Mi vida sin mí***
Egubakoitza: 17:30, 22:30.

***Marie-Jo y sus dos amores***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El guerrero***
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

***La copa***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***El sueño de Valentín***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Adaptation, ladrón de orquídeas***
Egubakoitza eta domeka: 20:00.
Zapatua: 20:00, 01:00.

■ **STER ZINEMAK**

***Chicago***
Egubakoitza: 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Zapatua: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05.
Domeka: 16:05, 18:20, 20:35, 22:50.

***El núcleo***
Egubakoitza: 19:45, 22:25, 01:05.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:25, 01:05.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:25.

***La prueba***
Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

***Daredevil***
Egubakoitza: 18:25.
Zapatua eta domeka: 16:15, 18:25.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 21:40, 00:50.
Domeka: 21:40.

***Recién casados***
Egubakoitza: 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Domeka: 16:25, 18:25, 20:25, 22:25.

***El americano impasible***
Egubakoitza eta zapatua: 22:45, 00:55.
Domeka: 22:45.

***La presa***
Egubakoitza eta zapatua: 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 20:35, 22:35.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza: 18:15, 20:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:15, 20:30.

***Atrapada***
Egubakoitza: 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:40, 22:50, 01:00.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:40, 22:50.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza: 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Zapatua: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Domeka: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:00, 19:50.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:00, 19:50.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***El núcleo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:00, 22:30, 00:55.
Domeka: 12:15, 17:00, 20:00, 22:30.

***Recién casados***
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 18:25, 20:25, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:30.

***El oro de Moscú***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:40.

***Atrapada***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:10, 22:20, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:10, 22:20.

***Empire***
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:50.
Domeka: 12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45.

***La presa***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 15:50, 17:55, 20:05, 22:25, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:50, 17:55, 20:05, 22:25.

***Este cuerpo no es el mío***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***Adaptation, ladrón de orquídeas***
Egubakoitza eta zapatua: 22:25, 00:35.
Domeka: 22:25.

***El sueño de Valentín***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Mortadelo y Filemón***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:15, 00:20.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:15.

***Daredevil***
Egubakoitza eta zapatua: 15:55, 17:55, 20:10.
Domeka: 12:15, 15:55, 17:55, 20:10.

***Chicago***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:20, 20:25, 22:35.

***Las horas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:05, 20:15, 22:20.

***Gangsters de Nueva York***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:30, 23:00.
Domeka: 15:45, 18:45, 22:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Lejos del cielo: ●●●● / Las horas: ●●●● / Mi vida sin mí: ●●● / A propósito de Schmidt: ●●● / Atrápame si puedes: ●● / Gángsters de Nueva York: ●●● / Chicago: ●●●●***

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### EL AMERICANO IMPASIBLE

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** Pillip Noyce.
**AKTOREAK:** Michael Caine, Brendan Fraser.

Nahiz eta gustura ikusi eta lan txukunak izan, badira ederrak izatera heltzen ez diren filmak. Hori da *El americano impasible*-ren kasua. Filma gustura ikusten da eta nahiko argi kontatzen ditu nahasiak izan zitezkeen gertakizunak. Entretenigarria da, baina ikusleak ez du pantaila zeharkatzeko eta istorioan sartzeko behar duen bultzakada sentitzen.

50eko hamarkadan, Graham Greene idazle britainiarrak *El americano impasible* eleberria idatzi zuen, eta Joseph L. Mankiewicz-ek liburua zinema bihurtu zuen. Orain, Phillip Noyce zuzendariak beste bertsio bat egin du. Istorioa 50eko hamarkadako Saigon hiri aztoratuan kokatzen da. Frantziarren, komunisten eta, zelan ez, estatubatuarren mugimendu politikoak ikusteko aukera izango dugu. Eta politikaren gaineko istorio honetan, amodio-triangelu bat sortuko da: kazetari beterano ingeles bat Vietnamgo neska batekin maiteminduta dago, eta Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako gazte bat neska berarekin maiteminduko da. Hori dela eta, bi



gatazkaren (politikoa eta amodiozkoa) aurrean izango gara.

Politika eta intrigazko zatia argi azalduta dago; zati horretan sortzen diren bilbe edo tramak nahiko ondo uler daitezke. Tamalez, amodiozko istorioa pixka bat motz geratzen da. Michael Caine aktore britainiar handiak edozein pertsonaia eta egoera sinistea posible egiten du; berehala sinisten ditugu neskarekin dituen harremanak. Alderantziz, gazte bikotearen bat-bateko maitemina motz geratzen zaigu: amodioa nahiko laua den dantza eszena baten sortzen da, eta gazteen hurrengo topaketak modu eliptikoan kontatuak daude. Horrela, harreman horiek ez dira irudietan sendotzen. Akats horrek ez digu filma gustura ikustea eragozten, baina ez digu filmean behar den moduan murgiltzen uzten.

ANTONIO ZABALA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**ETXEBIZITZAK**

**ARRASATE**
• 48 m²-ko etxebizitza alde zaharrean. Logela bi, bainugela bi, sukaldea eta egongela. 19.500.000 pezeta.
• 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
• 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.

**BERGARA**
• 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.
• 55 m². Logela bi, egongela, sukaldea eta bainugela. Erdi berritua. 21.000.000 pezeta.

**ANTZUOLA**
75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.26.800.000 pta.

**ALOKAGAI**
• **Arrasate.** 7 logela, 10 ohe, berogailua, egokitua. Langileendako egokia.

**BERGARA**
**PABILIOIAK SALGAI EDO ERRENTAN BERGARAN!**

**Eskaera handiagatik etxebizitzak behar ditugu salgai edo alokagai.**

OROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
• Koldo Elizalde 85 m²
• Zubiaurre 60 m². Kanpora ematen du. Egoera ona.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**
**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**
**BASERRIAK**
• Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
• Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

OÑATI
**ZUBILLAGAN 800 M²-KO INDUSTRIA PABILIOIA SALGAI**
**943 71 60 91**

ARETXABALETA
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**

# Iragarki sailkatuak

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 12 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
**ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA BEHAR DIRA KAFETEGI BATEN LAN EGITEKO.**
**656 74 78 23**

ARRASATE
**ZERBITZARIAK BEHAR DIRA TABERNA-JATETXE BATEN LAN EGITEKO.**
**656 78 35 74**

ARRASATE
**JATETXE BATEN ASTE BARRUAN ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA BEHAR DIRA.**
**615 75 98 40**

BERGARA
**ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNA BATEN LAN EGITEKO.**
**943 76 50 99**

ARETXABALETA
**ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN TABERNAN LAN EGITEKO.**
**652 70 82 46**

ARETXABALETA
**SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO.**
**652 70 82 46**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Apartamentua ematen da errentan erdialdean. Berri-berria. Igogailua eta berogailua. 680 67 33 88.

**Arrasate.** Etxebizitza familiabakarra salgai. Jesus. 943 79 92 02 edo 639 97 74 61.

**Donostia.** Etxebizitza handia salgai, Unibertsitatetik eta Pakeatik gertu. Terraza handia eta bi autorendako garajea. Oso eguzkitsua eta lasaia. Oso aukera ona. 943 21 18 55 edo 607 71 71 55.

**Donostia.** Etxebizitza salgai Gros auzoko Karkizano kalean. 56 m². Berrituta eta hornituta. Eguzkitsua. Igogailua dauka. 282.475 euro. 620 28 39 16.

**Elorrio.** Apartamentu berria salgai. 45 m². Logela bat, bainugela, sukaldea eta egongela. 111.200 euro. 946 82 11 00.

**Elorrio.** Duplex berria salgai. 83 m². Hiru logela, bainugela, egongela eta sukaldea. 196.900 euro. 610 20 01 14.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Etxebizitza ematen da errentan, hiri erdigunean, uztailean, abuztuan eta irailean. 649 03 47 20.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zigorrola auzoan. 615 78 05 03.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zigorrola auzoan. 943 77 03 25.

**Arrasate.** Ikasleei etxebizitza ematen diet errentan San Andres auzoan. Berogailua dauka eta hornituta dago. 943 79 58 74.

**Benidorm (Alacant).** Apartamentua ematen da errentan hondartzako lehenengo lerroan. Itsasoari begira. 630 41 84 65.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Herrilagunak kalean. 943 76 11 29.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Koldo Elizalde kalean. Deitu 20:00etatik aurrera. 615 76 21 02.

**Laredo (Kantabria).** Etxebizitza ematen da errentan udan, abuztuan izan ezik. 943 76 44 34.

**Somo (Kantabria).** Etxebizitza ematen dut errentan oporretan, Aste Santuan eta aste burkaeretan. Hondartzatik 50 metrora. 942 33 57 80 edo 630 63 88 93.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote gazte batek etxebizitza hartuko luke errentan. 686 12 79 57.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 630 32 23 69.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan. Sukaldea erabiltzeko aukera. 943 79 05 26.

**Arrasate.** Lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 669 57 88 51.

**Arrasate.** Neska/mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Eskolatik gertu. 943 79 91 25.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aramaio.** Garaje itxia salgai. 945 44 54 17.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Araba ibilbideko 27an. 20 m². 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ibargarai kaleko 37an. 13.000 euro. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 690 32 91 84.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Masterreka 9an. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 76 05 62 edo 943 76 17 98.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Ozaetan. 943 76 00 12.

**Bergara.** Garajea salgai San Lorentzo auzoan, Zapelaitz azpian. 667 09 27 75.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Intxaurtxueta auzoan. 646 66 58 54.

**Oñati.** Garaje itxia salgai, plazatik oso gertu, Lope Agirre kalean. 20 m2. 943 78 10 49.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia ematen da errentan Araba ibilbideko 27an. 20 m2. 943 79 69 83 edo 627 90 68 91.

**Arrasate.** Garaje plaza bat ematen da errentan Uribe auzoan. 657 72 51 65.

**Arrasate.** Garajea ematen da errentan Kontzezino kalean. 658 72 09 87.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Jardunean dagoen negozioa saldu edo errentan ematen da. Yo-le izena du dendak eta Otalora kalean dago. Interesatuok, galdetu dendan.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 657 70 09 59.

**Bergara.** Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 13:00etatik 14:00etara. 943 76 18 11.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Mutila gertu barran, sukaldean edo zerbitzari lan egiteko. 605 77 42 23.

**Aretxabaletan,** Arrasaten edo inguruan enpresak edo etxebizitzak garbitzen egingo nuke lan. Luz Marina. 615 90 06 80.

**Arrasate.** 17 urteko hiru neska ekainean lan egiteko gertu. 625 70 84 94.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume gaztea gertu etxeko lanak egiteko, orduka. 639 65 94 44.

**Arrasate.** Emakumea gertu lan egiteko, goizez, ordu batzuetan. 943 79 74 30.

**Arrasate.** Irakasle ikasketak bukatu dituen eta esperientzia handia duen 23 urteko neska euskalduna gertu goizez zein arratsaldez umeak zaintzeko. Ixone. 653 71 87 32.

**Arrasate.** Neska gaztea gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko. 645 70 03 19.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, astelehenetik egubakoitzera. 696 84 19 51.

**Bergara.** Lehen Hezkuntzako eskolak emango nituzke. Irakasle ikasketak egin ditut. 669 33 95 93.

**Bergara.** Neska gaztea lan egiteko gertu. 630 32 23 69.

**Debagoiena.** Neska bat egun erdiz lan egiteko gertu. 667 80 63 97.

**Debagoiena.** Neska gaztea gertu edozein garbiketa lan egiteko. 943 76 54 46.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta-Arrasate.** Batxilergo Teknologikoko lehenengo mailako eskola partikularrak behar ditut. 943 77 08 30 edo 620 28 32 63.

**Ekonomiako** eskola partikularrak jaso gura ditut. Humanitate eta Enpresa ikasketetako lehen maila ikasten nabil. 652 76 64 95.

**Kontabilitate orokorreko** eskola partikularrak jasoko genituzke lau lagunek. 943 79 07 94.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskola emateko gertu. 635 70 88 88.

**Arrasate.** Goi mailako industria ingeniaria gertu eskola partikularrak emateko. Esperientzia handia. Arreta pertsonalizatua eta maila guztiak. Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Elektrizitatea eta Ingelesa. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu eskola partikularrak emateko. Ixone. 653 71 87 32.

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak, goizez edo arratsaldez. 616 45 23 99.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**BMW** F650/ST motoa salgai. Oso ondo dago. Prezio ezin hobea. 696 21 55 75.

**Ford** Fiesta salgai. Ondo dago. 17:00etatik aurrera deitu. 656 77 89 94.

**Gas gas** Enducros/250cm3 motoa salgai. 1998koa. 620 73 99 18.

**Honda** Dominator motoa salgai. 650 cm3. Gorria. 2.000 euro (negoziagarria). 943 77 13 91.

**Honda** XR motoa salgai. 250 cm3. 605 71 26 89.

**Kawasaki** GPX/600 motoa salgai. Ondo dago. 900 euro. 605 71 24 73 edo 943 76 64 01.

**Mitsubishi** Space Wagon TD monobolumena salgai. 100.000 Km. 1997koa. Aire girotua. Ondo dago. Arratsaldez deitu. 656 71 87 50.

**Opel** Corsa 1400/16v/90ZP salgai. 2001eko abendukoa. 7.530 euro. Mari Jose. 943 76 37 61.

**Opel** Kadett autoa salgai. Matrikula: SS-AH. 1.200 euro. 943 76 52 48.

**Opel** Kadett autoa salgai. Oso merkea eta kilometro gutxi. IAT (ITV) urte osorako. Deitu damutu baino lehen. 699 11 83 63.

**Peugeot** 205 autoa salgai. Diesela. 1997koa. 655 74 80 07.

**Peugeot** 205/GRD autoa salgai. Diesela. Ondo dago. 1.200 euro. 617 05 07 58.

**Renault** 11 autoa salgai. 943 76 54 69.

**Renault** 21 Megane autoa salgai. 610 43 20 19.

**Rieju** RJ 50 motoa salgai. Prezio onean. 669 13 31 08.

**Suzuki** Bandit 400 salgai, prezio onean. 639 48 81 91.

**ZERO KILOMETROKO AUTOETAN ESKAINTZA BEREZIAK**

| | | | |
|---|---|---|---|
| • Focus TDdi | 02 | • Fusion 16 i | 03 |
| • Focus TDdi | 02 | • Fiesta TDCi | 03 |
| • Focus 16 i | 02 | • Conect TDCi | 03 |
| • Focus 18 i | 02 | • Transit TDi | 03 |
| • Mondeo 18 i | 03 | • Focus ST-170 | 03 |
| • Mondeo TDdi | 03 | | |

MUGARRI
943 79 75 64

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Aire-konpresorea.** 1,5 ZP. Prezioa: 95 euro. Ondo dago. 943 79 86 28.

**Arrasate.** Oilasko makina elektrikoa, izotz makina, tabernarako musika ekipoa eta tabernarako beharrezkoak diren beste gauza asko (kopak, platerrak...). Dena salgai, prezio onean. Gauez deitu. 946 23 19 21.

**Bergara.** Habia-ohea eta kaxoi-altzaria salgai. 943 76 15 76.

**Berogailua,** butanozkoa, salgai. Prezio onean. 943 76 16 58.

**Citroën** Xsara berriarendako hagunak (llantak) salgai. 300 euro. Xabi. 615 79 79 21.

**Ispilua eta egonkorgailuak** salgai. Karabanarendako. Berriak. 639 31 16 35.

**Izozkailu** handi bat saldu nahi dut. 130 cm luze eta 60 cm zabal. Prezio onean. 943 76 16 58.

**Karabana** salgai, Escala 490 markakoa. Gehigarriekin. Ondo dago. 943 79 68 15 edo 657 72 84 47.

**Kutxa** handi bat saldu nahi dut. 130 cm luze eta 60 cm zabal. Prezio onean. 943 76 16 58.

**Simaurra** salgai. 629 33 26 34.

**Solariuma** salgai. Bertikala da. Gorputzerako 28 lanpara eta aurpegirako bat. Ondo dago. 669 42 64 00.

**Surfa** egiteko ekipo osoa salgai. Bic Rumba 320 + tresneria osoa: 331 euro. Eta Bic Veloce 278 101L haize arinendako aproposa: 240 euro. 943 79 58 82.

**WR2** jokoa salgai. PlayStation II-rako. 40 euro. 646 08 24 59.

### 802. EROSI

**Bergaran** edo inguruan ortuko lursaila erosiko nuke, baita mendiko lursaila ere (pinuekin edo barik). 3-15 hektarea bitartean. Gauez deitu. 943 76 24 33.

**Tamaina txikiko akordeoi** kromatikoa erosiko nuke. 943 76 31 10.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Martxoaren 29an, arratsaldean, Errekabarren kalearen atzeko aldeko eserleku baten gainean Nikon 401 argazki-kamera utzi nuen ahaztuta funda barruan. 660 55 01 04.

**Arrasate.** Martxoaren 22an (zapatua), arratsaldean, Garagartzako plazan Nikon markako kamera digitala galdu nuen. 943 77 01 48.

**LAN EGIN GURA DUZU?**
**943 44 45 09**

**JUSTIZIA** Ministerioak Euskal Herrirako lanpostu publikoak eskaintzen ditu: 42 laguntzaile, 10 agente eta 23 justizia ofizial. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**AIREPORTUAK.** AENAk eskainitako 250 lanpostu: airekontrolatzaileak. Eskakizuna: ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**AUTOESKOLAKO IRAKASLEA.** Diru-sarrerak: 1.500 euro inguru. Langabeziarik gabeko lanbidea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**SUHILTZAILEAK.** Lanean berehala hasteko. Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza ezin hobeak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**GARRAIOLARIA.** Profesional bilakatzeko titulua lor ezazu. Hedapen prozesuan dagoen sektorea. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**ADMINISTRARIAK.** (Tekniko eta laguntzaileak). Laster bertako udal eta erakundeetarako deialdiak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**UDALTZAINA.** Egizu lan bertako udaletan. Laster deialdiak. Eskakizuna: eskola graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**LIBURUTEGI** laguntzaileak. Bertako udal, agiritegi, dokumentazio-zentro, eta abarretan lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**ESKOLA GRADUATUA** edukita: harreragileak, lorezainak, txoferrak, atezainak, eta abar. Ofizio-funtzionario bezala udaletan eta erakundeetan lan egiteko. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

**OSAKIDETZA.** Laster deialdiak: erizain-laguntzaileak, OLT/EUD (ATS/DUE) eta zaindariak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 44 45 09.

Garbi S.L.®

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
**943 33 18 37 (HERNANI)**
**649 84 67 09 (BERGARA)**

## AIPAGARRI

### Juan Mari Leturia

BERGARA



Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Kontsumo Sailak Gipuzkoako hamabi merkatari txiki omendu ditu, horietako bi debagoiendarrak: Bergarako Juan Mari Leturia eta Landaluze harategikoak. 50 urte baino gehiago dituztelako omendu dituzte, hain zuzen ere, komertzio horiek.

### Naroa Enekotegi

ESKORIATZA



Naroa Enekotegi mezzosopranoak Escuderoren *Zigor* operan parte hartuko du, euskaraz idatzitako opera bakarrean. Ordezko moduan egongo da, mezzosopranotakoren batek huts egiten badu ere. Euskalduna jauregian izango dira emanaldiak, bihar hasi eta hilaren 15era arte.

### Jesus Arroiabe

ESKORIATZA



Gipuzkoako Foru Aldundiak Jesus Arroiabe ehiztaria eta plater tiratzailea saritu du, 2002. urtean denboraldi ona egin izanagatik. Izan ere, iazko uztailean Espainiako txapelketa irabazi zuen beterano nagusienen mailan, Granadan jokatutako txapelketan. Horixe saritu nahi izan diote.

## JAIOTAKOAK

**Jennifer Castelo Tena.** Bergaran, martxoaren 15ean.
**Amaia Bermúdez Etxebarrieta.** Aretxabaletan, martx.15ean.
**Nayla Pérez Viñaras.** Bergaran, martxoaren 23an.
**Andoni Fernández Placer.** Aretxabaletan, martxoaren 24an.
**Maialen Fernández de Lezea Eguren.** Bergaran, martx. 25ean.
**Oxel Garitano Ahedo.** Arrasaten, martxoaren 26an.
**Ane Valle Jiménez.** Arrasaten, martxoaren 27an.
**Nerea Valle Jiménez.** Arrasaten, martxoaren 27an.
**Unai Fernández Pérez.** Aretxabaletan, martxoaren 27an.
**Iraia Díaz Varilla.** Aretxabaletan, martxoaren 28an.
**Eñaut Mikeo Beitia.** Aretxabaletan, martxoaren 28an.
**Julen Olaizola Ruiz de Azua.** Aramaion, apirilaren 1ean.

## HILDAKOAK

**Isidro González Pérez.** Arrasaten, martxoaren 27an. 89 urte.
**Regina Olaran Bergara.** Arrasaten, martxoaren 28an. 86 urte.
**Juan Murillo Valor.** Aretxabaletan, martxoaren 28an. 80 urte.
**Lorenzo Aperribai Unanue.** Arrasaten, martxoaren 31n. 80 urte.
**Natalia Fernández Mazo.** Bergaran, martxoaren 31n. 97 urte.
**Fernando Lazpita Martínez.** Arrasaten, apirilaren 2an. 38 urte.



**Mikel González Otxoa**
Arrasate • Martxoaren 18a • 2,920 Kg. Gurasoak: **Aurora Otxoa** (Arrasate) eta **Txemi González** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Iraia Díaz Varilla**
Aretxabaleta • Martxoaren 28a • 2,910 Kg. Gurasoak: **Jone Varilla** (Aretxabaleta) eta **Jose Díaz** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Unai Fernández Pérez**
Aretxabaleta • Martxoaren 27a • 2,700 Kg. Gurasoak: **Monika Pérez** (Aretxabaleta) eta **Antonio Fernández** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin.



**Denise Cacheiro Pérez**
Bergara • Apirilaren 2a • 3,700 Kg. Gurasoak: **Maite Pérez** (Bergara) eta **Marcos Cacheiro** (A Coruña). Argazkian, Denise gurasoekin.



**Irati Arbulu Sarraoa**
Elgeta • Apirilaren 1a • 4,300 Kg. Gurasoak: **Bea Sarraoa** (Elorrio) eta **Joseba Arbulu** (Ubera, Bergara). Argazkian, umea aitaren besoetan.



**Julen Olaizola Ruiz de Azua**
Aramaio • Apirilaren 1a • 3,300 Kg. Gurasoak: **Arantzazu Ruzi de Azua** (Aramaio) eta **Josu Olaizola** (Aramaio). Argazkian, umea aitaren besoetan.

## URTEURRENA

### Florentino Aiastui Ugarte



Arrasaten hil zen 2002ko apirilaren 2an
81 urte zituela

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 6an, 12:00etan, **Arrasate**ko Santa Agedako elizan (Gesalibar auzoa).

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Goienkaria
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

euskaldunon Egunkaria aurrera!

8 €




12 13

Apirilaren 12an eta 13an banatuko da,
**Egunero**-rekin batera.

**FERMIN MUGURUZA**
**Irun meets Bristol. Komunikazioa**

- Fermin Muguruzaren **In-komunikazioa** diskoaren nahasketa berriak, Bristolgo musikariek egina.
- **Egunero**-rako edizio berezia
- Digipack formatua
- 15 abesti: 74 minutuko iraupena

Diskoaren salmenten dirua **Egunero**-rentzat izango da.

**Harpidedunentzako oharra: Diskoaren eskaria egiteko azalpenekin, gutuna jasoko duzue etxean.**

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 5**

Lainotuta izango dugu zerua zapatuan. Goizeko lehen orduetan behe-lainoa izango dugu. Tenperaturak gora egingo du. Haizea, berriz, ipar-ekialdetik ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Eguzkia nagusi.
**Pirinioak:** Eguzkia.

**DOMEKA, 6**

Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Goizean behe-lainoa izango dugu. Domekan gora egingo du tenperaturak. Haizea, berriz, ekialdetik ibiliko da, baina arin.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Egun eguzkitsua.
**Pirinioak:** Eguzkia.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**13,9º C**

ILARGIAREN ALDIAK: APIRILA

| ilberri | ilgora | ilbete | ilbehera |
|---|---|---|---|
| 1 | 9 | 16 | 23 |

EGUZKIA: APIRILAREN 6a

Sortu 07:42 · Gorde 20:40

## URKULUKO URTEGIA

**Gero eta euri gutxiago egiten dihardu azkeneko aste hauetan; horregatik, Urkuluko urtegiko ur maila ere gero eta beherago dago. Oraingo astean %90,12 da ur maila.**

**% 90,1**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | | |
|---|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 | goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 | goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 | arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 | berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 | aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 | goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 | kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 | txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 | zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 | kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 | putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 | irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 | irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 | sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

## E-DEBAGOIENA

■ 'E-DEBAGOIENA' EGITASMOA KOORDINATZEN DIHARDU

**SABIN FERNÁNDEZ**/MU-KO IKERKETA ZUZENDARIA

# *"Proiektuak zehazten eta dirulaguntza bila dihardugu"*

MARIA AGIRRE



ARGAZKILARIA

**Orain dela hilabete batzuk Mondragon Unibertsitateko ikerketa zuzendari izendatu zutenetik, *e-debagoiena* egitasmoa zuzentzen dabil. Proiektuak koordinatzea eta dirulaguntzak lortzea dira Sabinen egitekoak.**

**Unibertsitatera iritsi arte, zein izan da zure ibilbidea?**

Industria ingeniaria naiz, eta Ikerlanen hasi nintzen lanean, Robotika Sailean, hain zuzen ere. Estatuko lehenengoei robotak egin genituen garai hartan. Espaziorako proiektuetan ere ibili naiz, Bilboko enpresa batendako eta Ikerlan-endako lanean. Irizarren ere ibili nintzen, eta duela hilabete batzuk, Mondragon Unibertsitatean nabil, ikerketa zuzendari postua betetzen.

**Zein da zure egitekoa *e-debagoiena* egitasmoan?**

*e-debagoiena* barruan dauden zortzi proiektuak koordinatzen nabil, eta proiektu bakoitzerako dirulaguntza bila ere bai.

**Zer moduz, orain arte?**

Ondo, hor dihardugu proiektuak zehazten eta dirulaguntza bila. Proiektu batzuek dirulaguntzak eskuratzeko zailtasun handiagoa dute; esate baterako, Hezkuntza XXI, Biblio eta komunikaziorako laguntzak lortzea gaitza da. Gainerako proiektuetarako, berriz, errazagoa dirudi. Dirulaguntzen gaia SPRIk dihardu zuzentzen, eta erakunde horrek eskatuko du dirulaguntza Madrilen. Proiektu bakoitzerako zenbat diru eska daiteken finkatuta dago, eta orain, ikusi egin behar dirulaguntzarik ematen ote duten.

*"Proiektu batzuek dirulaguntzak eskuratzeko zailtasun handiagoa dute"*

**Erraza izango da *e-administrazioa* proiekturako dirulaguntzak eskuratzea?**

Bai; gaitzena den arren, era berean, sozialena ere badelako. Proiektua Madrilen onartuz gero, dirulaguntza garrantzitsua etor daiteke. *e-administrazioa*-k aurrerapauso handiak ekarriko dizkio herritarrari, udalarekin dituen harremanetan. Edozein agiri eskuratzeko ez dugu Udalera joan beharko.

*"Iberdrolaren sarea erabiltzea irtenbidea izan daiteke herri txikiendako"*

**Oraingoz, herri txikietara ez da kablerik iritsiko.**

Bai, arazoa hor dago. Egin beharreko inbertsioa handia da, eta herri horietan ez dago herritar nahikoa inbertsioa amortizatzeko. Edozelan ere, badaude beste aukera batzuk, eta horiek aztertzen dihardute. Satelitea edo Iberdrolaren sarea erabiltzea izan daitezke irtenbide posibleak.

■ BATZORDEAREN BATZARRA

### Herri txikien arazoari irtenbide bila dihardu SPRI erakundeak

Joan den astean, batzarra egin zuen *e-debagoiena*-ko batzorde errektoreak. Kablea dela-eta herri txikietan sortu den arazoari irtenbidea topatzeko lanean dihardutela esan zuen SPRIko ordezkariak. Hain zuzen ere, operatzailea iritsiko ez den herri txikietan zer egin daitekeen aztertzen dihardute. SPRIko ordezkariaren arabera, egun teknologia ugari daude aukeran, horregatik, herri bakoitzerako egokien izan daitekeena aztertzen dihardute. Bestetik, Euskalteleko ordezkariak kablea sartzeko obrak zelan doazen azaldu zuen. Esan zuen Oñatin hasi direla lanean eta maiatzean Eskoriatzan hasiko direla.

■ JARDUNALDIAK DONOSTIAN

### 'e-debagoiena'-ren aurkezpena informatikari euskaldunei

Informatikari Euskaldunen Bilkura egingo da gaur, apirilak 4, Donostiako Miramar jauregian. *Informatikaria gizarte elektronikoan* izenburupean antolatu dituzte jardunaldiak, eta *e-debagoiena* egitasmoaz berba egingo dute *e-debagoiena*-ko komunikazioaz arduratzen den Maria Agirrek eta Goienako Telematika zuzendari Iban Arantzabalek. Bestalde, Joxe Arantzabal mondragoetarrak *Gaixotasunak biluztu nau Interneten* izenburko hitzaldia egingo du.

UEUko Informatika Sailak antolatu du bilkura, eta dagoeneko laugarren aldiz antolatu dute.

## HITZGEZIDUNAK

**Luma**




## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**BOSGARREN PISUTIK BERA**

Obra batetik, aiñ zuzen be laugarren pisotik, jausi zan egun baten biargiñ bat. Eta ugazabak goitxik deitxu zeban, esanez:

- Emon orri ura!

An inguruan zeguan *Kaporala* eta esan ei zeban:

- Zelan dok au? Zenbagarren pisotik jausi biok ardaua emoteko?

**BILLETE FALTSUA**

Gabe baten juan da berandu etxera *Kaporala*. Andria oetik asi jako aserre eitten:

- Bai, diru guztiak gastauta zatoz etxera. Lotsagabia!

- Ez, andra, or lagatzen detsut mesilla gañian 500 pezetako billetia. Baretu zan apurtxo bat andria. Ez denbora askorako, baiña. Senarran fetxoriak ikusitxa, laster asarratu zan berriro be:

- Zu, Jazinto, faltsua zara, oso faltsua!

Jazintok orduan:

- Faltsua bai or mesilla gañian dauan billetia!

Olaxe zan: txokolate fiñetan agertzen diran kromuetarako billetia laga zetsan-eta.

**BELARRITXAKUAK DITXUK ALA?**

Beiñ Star fabrikan, flejez beteta etorri zan kamioi bat ustutzen zebitzen biargiñ talde bat. Danak, gutxienez, bi bulto aundi zaraiozen karretilletan almazenatzera. *Balbotin*-ek, baiña, bat bakarra zaroian. Konturatu da ugazaba eta esaten detsa:

- Ezin ditxuk bi eruan ala?

- Zer ba, belarritxakuak dira ala?

## EZETZASMATU!

**Estepan Plazaola**



### Zenbat sartu-leku izango ditu Eibar-Gasteiz autobideak Debagoienean?

Eibar-Gasteiz autopistak 46,2 km izango ditu, guztira; horietatik, 31,9 Gipuzkoako partean. Maltzagakoa kenduta, Gipuzkoan izangо dituen beste sarrera guztiak Debagoienean egongo dira. Horra, beraz, galdera: zenbat sartu-leku izango ditu Eibar-Gasteiz autobideak Debagoienean?

- 3 sarrera
- 4 sarrera
- 7 sarrera
- Sarrera 1

**Erantzun zuzena:** Lau. Bi sarrera izango dira Bergaran (Zaldumendi eta Amillaga), bat Arrasaten (Epele) eta beste bat Eskoriatzan (Apotzaga-San Bernabe).

## SOLUZIOAK





## ASTEKOHOROSKOPOA

**Gipuzkoako Astrologi Elkartea**

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Kolaboratzaileekin eztabaidak izango dituzu, gauzak zure erara egin gura izango dituzu-eta, inori galdetu barik. Eta jarrera bera izango duzu bikotekidearekin. Neska/mutil, ez izan horren zorrotza!

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Hobekuntzak lanean; izan ere, erabakiak hartzeko botere handiagoa izango duzu. Bestalde, aste ona amodio kontuetan. Azkenik, diru kontuetan ere aste ona: diru sarrera estra izango duzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Lasai ibili eta ez larritu, hemendik gutxira abian dituzun proiektu guztiak bete egingo dira-eta. Bestalde, atzerrira egin behar zenuen bidaia atzeratu egingo da agiriekin arazoak izango dituzulako. Azkenik, artikulazioetan min izango duzula-eta txekeoa egin beharko duzu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Berria den edozeri beldur diozu; hori dela eta, lanean gora egiteko aukera gal zenezake. Ez kikildu eta izan ausart, hola jokatuz gero aspalditik buruan dituzun proiektu horiek aurrera eramango dituzu-eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Familiakoen eta lagunen exijentziek estutu egiten zaituzte. Bada, egoera horrekin amaitzeko garbi berba egitea duzu onena. Bestalde, lanean aldaketak izango direla-eta urduri ibiliko zara. Hortaz, ahalegin zaitez kalera irten eta jendearekin berba egiten, histeriko huts bihurtu gura ez baduzu, behinik behin.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Nekatuta zaude, eta horrek eragin lezake lanean hanka-sartzeren bat edo beste egitea. Hortaz, ahalegin zaitez egunerokoak ondo antolatzen eta ardurak beste batzuen esku uzten. Bestalde, diru sarrera handiagoak izango dituzu, aspaldiko lan batzuk ordainduko dizkizute-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Aldaketak lanean, baina txarrerako; izan ere, zuk uste baino gutxiago ordainduko dizute aurrerantzean. Bestalde, diruarekin hala-hola ibiliko zara, euro asko gastatzen dituzu-eta arropatan.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Sasoi ona buruan zenituen proiektu horiek aurrera eramateko, baina, betiere, lankide edo kolaboratzaileren baten laguntzarekin. Bestalde, nagusiaren esker ona jasoko duzu ondo egindako lan batzuengatik, eta horrek izugarri poztuko zaitu.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Anaiaren/arrebaren batek arazoak izango ditu, eta zuk hainbat ardura alde batera utzi beharko dituzu hari laguntzeko. Edozelan ere, tentu handiz ibili, eta inoren gainean ezer esan aurretik haren lekuan jarri.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Jendearekin egon gura izango duzu, bakarrik ez egotearren. Zure buruarengandik ihes egitea ez da soluzioa. Ahalegin zaitez harroa ez izaten eta partekatu zure arazoak lagunekin eta familiartekoekin.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Aprobetxa ezazu bizi izaten zabiltzan une onuragarri hau zure burua promozionatzeko. Bestalde, lanean hobekuntzak izango dituzu, eta, horren ildotik, aisialdirako denbora luzeagoa izango duzu. Azkenik, amodio harreman atsegin, positibo eta pozgarriak.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Bikotekide egonkorra baduzu, zuenak egin du: izan ere, harengandik gehiago espero zenuen, eta utzi egingo duzu. Bestalde, zure ardurei uko egiteagatik hanka-sartze handiren bat egin zenezake eta, are gehiago, lana gal zenezake.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko apirilaren 4a



**'Harmailatik tertulia'**
ASTELEHENA/ **21:15**

## Laburpenak ikusi ostean, solaserako garaia

Asteburuko partiduen laburpenak ikusi eta gero solaserako garaia izango da *Harmailatik* saioan. Liga amaiera interesgarri dator, eta gertatzen den guztiaren gainean jardungo dugu saioan.



**'Korrika 13'**
MARTITZENA/ **20:30**

## Badator Korrika, tipi-tapa, tipi-tapa, korrika

Bergarararrak izango dira lehen debagoiendarrak Korrika 13n parte hartzen; gero oñatiarrak eta astelehenean ibarreko gainerako herritarrak. Eta Korrikaren atzetik, GOITBko kamerak.



**'Herrilan'**
EGUAZTENA/ **20:30**

## 'Herrilan' saioari agur, Arrasateko alkatearekin

Bigarren aldiz izango du aurrez aurre Alberto Gorritiberea *Herrilan* saioko aurkezleak Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea. Alkateari galderak egiteko, deitu 943 71 23 93 telefonora.



**'Soinuz blai'**
MARTITZENA ETA EGUENA/ **21:15**

## Musika doinuz blai astero, Goiena Telebista

Ugutz Usandizaga eta Maite Albesek aurkeztutako saioan, ikusleak aukera du bideo klipa nortbaiti eskaintzeko, 943 71 23 93 telefonora deituz, edo goitbprogramazioa@goiena.com helbidera idatziz.

## TELEBERRIAK

### Beste bi tokiko telebista airean

Ez dago tokiko telebista askorik gurean, eta gutxiago euskara hutsez emititzen dutenak: Ttipi Ttapa, Zarautz Telebista eta Goiena Telebista. Hiruretatik sendoena, baliabide, emisio ordu eta eskaintzen duen kalitateari dagokionez, GOITB. Horixe da euskarazko tokiko telebisten panorama. Oso bestelakoa da katalanez emititzen duten tokiko telebistena. Baina hori beste kontu bat da. Oraingoa, zera: Oarso Telebista, eten luze baten ostean, berriro ere emititzen hasiko dela datorren astetik aurrera, hilaren 10etik aurrera, hain justu. Xume-xume, baina bideari ekingo diote berriro ere, Oarso aldeko berriek diotenez. Eta Goierri aldean ere badabiltza zerbaitetan. Urtetan GOITBn jardundako Jon Aldanondo da Goierri Telebistako arduradun. Berandu baino lehen, goierriarren etxeetara iritsi nahi dute. Ea, bada.

### 'Sorginen Laratza'-k 400 saio egin ditu

Atzo, eguena, ospatu zuen *Sorginen Laratza*-k 400. saioa. Hori dela eta, saio berezia egin zuten. Astean lau bider emititzen hasi ziren lehenengo eta astean behin, azken ikasturtea ezkero. Gonbidatu ugari pasatu dira 400 saio horietan eta horietako asko gogoratu zituzten saio berezian; kazetariak ere asko izan dira, egun jarraitzen dutenez gain, tartean, Itxaro Zubillaga, Kaittin Allende eta Maider Egües debagoiendarrak.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Apirilaren 4tik 10era

| EGUBAKOITZA 4 | ZAPATUA 5 | DOMEKA 6 | ASTELEHENA 7 | MARTITZENA 8 | EGUAZTENA 9 | EGUENA 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik tertulia**<br>14:30 **Iparrorratza**<br>15:00 **Saio berezia: korrika**<br>16:30 **Sarrera doan**<br>17:00 **Iluntzean: Arantxa Iturbe**<br>17:30 **Soinuz blai**<br>18:00 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik tertulia**<br>14:30 **Iparrorratza**<br>15:00 **Saio berezia: korrika**<br>16:30 **Sarrera doan**<br>17:00 **Iluntzean: Arantxa Iturbe**<br>17:30 **Soinuz blai**<br>18:00 **Astebete** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harrmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Korrika 13**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Korrika 13**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Korrika 13**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Herrilan Arrasate**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Herrilan**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Herrilan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Herrilan**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Herrilan Arrasate**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Herrilan**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Iluntzean: Pello Zabala**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Sarrera doan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Iluntzean**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 20:30<br>**Astebete** | 17:00<br>**Iluntzean** | 16:30<br>**Sarrera doan** | 21:15<br>**Harmailatik tertulia** | 20:30<br>**Korrika 13** | 21:00<br>**Gaurkoak** | 21:15<br>**Iluntzean** |

**GOIENA TELEBISTA** / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

Adi,
**GOITB Oñatin UHFko 28.**
kanalean!

GOITB etxean sintonizatzeko arazorik baduzu, jar zaitez zure ohiko antena-teknikariarekin harremanetan.

Goitb Goiena Telebista
*Ikusiko duzu!*

## TELEBEGI/ Oihana Elorza

### *Korrika 13*

Ez dakit 13ak, baina 20ak, behintzat, ez digu notizia onik ekarri azkenaldian. Otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten, eta martxoaren 20an, berriz, Iraken aurkako erasoa hasi zen. Basora, Najaf, Al-Hila… herriak suntsituta eta Bagdad bonbapean gau eta egun. Azken egunotan telebistan ikusten ditugun irudiak.

Albistegiek tarte handia eskaintzen diote egunero gerrari eta propio gaiaren ingurukoak kontatzen dituzten programa eta albistegi bereziak ere emititzen dituzte hango eta hemengo telebista kateek.

Korrikaren aurreko edizioa bikain jarraitu zuen GOITBk. Debagoien osoa kilometroz kilometro ia-ia. Ez dakit aurten asmo bera daukaten edo ez, baina horrela bada, oñatiarrok ere ikusiko dugu egingo duten lana. Handik datozen gerra irudiak bezalaxe, hemengoak ikusteko aukera ere baitaukagu jadanik.

Abian da Korrika 13. Hamalau baietz!



GOIENKARIA

Aintzane Gardoki kazetari arrasatearrak aurkezten du *Iluntzean* saioa.

# "Hurbiletik ezagutzera eman nahi ditut famatuak"

*Arrakasta bihurtu da eguenetako 'Iluntzean' saioa*

LEIRE KORTABARRIA

**Ikusleek ondo hartu dute *Iluntzean* elkarrizketa saioa, eta zuzendari eta aurkezle Aintzane Gardoki kazetaria pozik dago orain arteko lanarekin. Elkarrizketa horien helburua da "pertsonaia hurbilagotik ezagutzea", Gardokik dioenez.**

Hainbat arlotako pertsona aski ezagunak pasatu dira orain arte GOITBko estudiotik, Aintzane Gardoki kazetari arrasatearrarekin berba egitera: Julio Ibarra ETBko kazetaria, Txaro Arteaga Emakundeko zuzendaria, Abraham Olano txirrindulari ohia, Igor Elortza Bizkaiko bertsolaritza txapelduna, eta Arantza Iturbe idazle eta esataria. Ordu erdiko tartean, Aintzane Gardokik izen ezagun horien atzean dagoen pertsona azaleratu du.

Bost elkarrizketatuon gainean zera diosku Gardokik: "Guztiek ondo hartu gaituzte, pozik etorri dira saiora". Nork bere izaera agertu du: "Abraham Olano, adibidez, jendeari entzun diot esaten oso serioa dela, baina nik barrea ikusi nion aurpegian", gogoratzen du kazetariak. Guztiekin ondo moldatu dela diosku, hala ere. Gainera, nabarmentzen du gonbidatu guztiek harridura eta miresmena azaldu zutela Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba eta GOITB zelakoak diren gertutik ikusi zutenean.

Aurrerantzean, *Iluntzean* saioko arduradun nagusiak orain arteko formula bera jarraituko duela esan digu: "Elkarrizketotan, euren lanbidearen edo irudi publikoaren gainean galdetzen diet pertsonaiei, baina pertsona moduan ezagutzera ematen saiatzen naiz". GOITBko platoan eseriko direnen artean, honako izen entzutetsuak daude: Pello Zabala meteorologoa; Mikel Urdangarin kantautorea; Anjel Alkain aktorea; Jose Elorrieta ELA sindikatuko idazkari nagusia; Inazio Oliveri Mondragon Unibertsitateko errektorea; eta Alberto Iñurrategi mendizalea.

Edukiez eurez gain, atentzioa eman dio publikoari saioko estetikak: iluntasunaren erabileraren bidez, atmosfera berezia sortu dute GOITBko arduradunek.



Pello Zabala.



Mikel Urdangarin.



# Goienkaria©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko apirilaren 4a


## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Maider Unda/ Borroka libreko kirolaria

**Aramaioko Oletatik Madrilera. Nahiko salto handia da.**
Horrela ikusita bai, baina lehen ere sarritan etortzen nintzen Madrilera entrenatzera. Astebeterako-eta etortzen nintzen. Orain, ordea, urte osorako nago.

**Madrilen daramazun bizimoduak zerikusi txikia izango du Oletan eraman izan duzunarekin.**
Bai, guztiz alderantzizkoa da. Hemen gosaldu eta entrenatu egiten dut, eta bazkaldu ondoren ere, entrenamendu saioa dut. Oletan, aldiz, denetarik egiten nuen.

**Hortaz, orain, entrenatzea da zuen ardura printzipala.**
Bai, burua entrenatzeko bakarrik dugu.

**Zelan antolatzen dituzu egunak?**
Orain ikastaro bat egiten nabil, eta goizean, entrenatu baino lehenago, ikasten jarduten dut. Goizean pare bat ordu egiten ditut entrenatzen, eta arratsaldean beste pare bat. Erresidentzia baten bizi naiz. Errendimendu Handiko Zentroan bertan dago erresidentzia. Kirol jarduera askotako kirolariak gaude.

**Eta borroka librean ibiltzen zareten zenbat kirolari zaudete erresidentzian?**
Erresidentzian hiru gaude, baina Madrilgo jendea ere etortzen da entrenatzera. Entrenatzeko modua aldatu egiten dugu egunaren arabera: astelehenetan pisuekin (pesak) ibiltzen gara, martitzenetan zirkuitu batera mugatzen gara, eguaztenetan teknika lantzen dugu...

**Zu zeu, noiztik zaude Madrilen?**
Irailean etorri nintzen, mundiala baino lehenago. Fisikoki, hobekuntza nabarmena ikusi dut hona etorri naizenetik, baina gero lesioa izan nuen, eta nahiko geldirik egon behar izan dut. Orain, berriro hasi naiz sasoi puntua hartzen.

**Eta Oletako bizimodua ez duzu faltan sumatzen?**
Noizbehinka aste bukaera pasatzera joaten naiz. Bestalde, txapelketa garrantzitsuen ondoren, astebeteko oporraldiak izaten ditugu, eta etxera joateko aprobetxatzen dut.

**Ez da oso ohikoa borroka librean ibiltzen den emakumerik aurkitzea. Zelan hasi zinen?**
Otxandioko Eskolan hasi nintzen, kasualitatez. Lehiatzera irteteak motibatu egiten du, eta jarraitzea erabaki nuen. Aitak ez zuen hasieran oso ondo ikusten, tartean masailalbo hezurraren haustura izan nuelako.

**Badaezpada ere, inguruko jendeak broma gutxi zurekin! Nik, behintzat, ez nuke zure zaplatekorik jaso gura.**
Ez; oso hotza naiz, eta jenioa lehiatzerakoan baino ez dut ateratzen.

**Zeintzuk dira etorkizunerako dituzun asmoak?**
Aurten, Munduko Txapelketa. Irailean jokatuko da, eta lehenengo bostak Olinpiar Jokoetarako sailkatuko dira. Klasifikatu, beste torneo batzuk jokatuko ditut.



**“Madrilen, Errendimendu Handiko Zentroan, entrenatzea da gure ardura nagusia”**

**“Mutilekin entrenatzeak azkartasuna ematen du”**

**“Irailean jokatuko den Munduko Txapelketa dut aurtengo helburu nagusitzat”**

► *Aramaioarra / 25 urte / Borrokalaria*

## PIPERRAUTSA

## *Etorkizuna*

Munduarena ilunegia da eta ibarraren geroa aipatu nahi dut, une erabakigarrian baitago. Aldundi eta Jaurlaritzak adostu dute garapen proposamen bat Debagoienerako, eta esku artean izan dut plana azaltzen duen liburua. Puntu interesgarri batzuk aipatu nahi ditut.

Bat. Planean, Debagoiena da esparru funtzionala, unitate bat, ez bederatzi udalerrien meta. Badakit hau onartzea gogorra dela, baina antolamendurako ezinbestekoa da.

Bi. Plana ez da alde teknikoetan geratzen, kontuan hartzen du ibarraren identitatea eta hau indartzea du helburu. Harrigarri badirudi ere, errepidezko lotura errazek ahuldu egin dezakete ibarra komunitate gisa. Gasteiz ordu laurden batera, eta Donostia hirura, kanporako joerak areagotu egin daitezke, eta ibarra industrialde soilean geratu. Ibarrak eskaintzen duena osatu behar da, hori gerta ez dadin. Etxebizitza, zerbitzuak eta aisia dira atal premiazkoenak.

Hiru. Planari berari ez diot tranparik aurkitu. Bestelako kontua da horrelako egitasmo handietan aukera izaten dutela interes ezkutuek. Eta hemen ere agertuko dira. Baina ez genuke horregatik egitasmoa arbuiatu behar, baizik gu guztiona egin eta bere zuzentasuna bermatu.

Lau. Agerian geratu da berriro Debagoienak ez duela gai estrategikoak kudeatzeko tresnarik. Zergatik ez dute sortzen garapen enpresa bat udalek eta ibarreko eragileek?

MIKEL IRIZAR


